

aurkibidea

Zerbaki honetan..... 3

Haur- eta gazte-literatura

ETXANIZ, X.: Haur-literaturaren inguruan.....	7
ATXAGA, B.: Abecederium haur-literaturari buruz.....	25
LERTXUNDI, A.: Hamar ukazio baiezen pare baterako	43
ZUBELDIA, I.: Haur eta gazteen literatura argitaratzailearen ikus-pegitik	57
OLAIZOLA, J.M.: Haur eta gaztetxoentzako literaturgintza	65
OLARIAGA, A.: Marrazkilariaren abentura.....	71
ELUSTONDO, M.: Eskolak haurra irakurtzaletu?	77
ETXANIZ, X.: Informazioa euskal haur-literaturaz	83

Orain eta Hemen

Don Migel-en oroiz - Portugesa: Hizkuntza arautzen - Negoziatu, bai (Iranekin) - Beste Hauteskundeak - Katalanaren mugetan: Aran eta "Franja" - PNV/EA - Ez ote jauzi kualitatiboa? - Mendebaldea berriro demofaxismorantz - Zein Hizkuntza Unibertsitatean? - Mario, Madrilako prentsaren kontzientzia ona - Balentin Enbeita hil da	91
---	----

... hainbat aburu

TORREALDAI, J.M.: Ohar laburrak euskal prentsa berria dela eta	111
ROJO COBOS, J.: Poesiaren definiziorako	117

Liburuak

Jaso ditugu	121
-------------------	-----

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaria

joan mari torrealdei

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1985erako prezioak

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ...2.000 pta.	—	2.200 pta. (110 FF)	—
ale arrunta500 pta.	675 pta.	550 pta. (28 FF)	725 pta. (36 FF)
ale bikoitza900 pta.	900 pta.	1.000 pta. (50 FF) ...	1.000 pta. (50 FF)
ale extra.....1.100 pta.	1.200 pta.	1.200 pta. (60 FF) ...	1.300 pta. (65 FF)

Eskuetan duzun zenbaki hau jakin-en bigarren aldiko 41.a da, eta aurtengo laugarrena.

Zenbaki honetako gai nagusia haur- eta gazte-literaturaz da. hemen bildu ditugun artikulua —bat ez beste denak— jadanik mintzaldi bezala publikoaren frogara pasa dute. Hain zuzen, maiatzaren 13tik 16ra Donostiako Aurrezki-Kutxa Municipalak habesturik eta beronen aretoan jakin-ek antolatu zuen "euskarazko literaturaren II. astea" delakoan. Iaz, lehen astean, euskal antzerkia izan genuen mintza eta aztergai, 37. zenbakian argitaratu genuena. Eta aurtien, haur- eta gazte-literatura aztertu dugu, orain publiko zabalarentzat ematen dugun hauxe.

Mintzaldiez gain, marrazkigintzaren erakusketa ere antolatu genuen Donostiako Aurrezki-Kutzarekin batean, areto berean. Erakusketa honen asmoa zen, haur- eta gazte-literaturagintzan gaur egiten den ilustrazioaren garrantzia azpimurratzea eta ilustrazioan egon dauden joerak, teknikak eta tematika ezberdinak ezagutzera ematea, testu idatziarekin batera.

Dossier honetan ematen ditugun idazlanak, euskaraz haur- eta gazte-literatura modernoari egiten zaion lehen hurbiltzapen bezala ulertu behar dira. Eta horrexegatik, lehen hurbiltzapen direlako, zabaletik jo nahi izan dugu. Beste nazioetako literaturen koordinadatan nola kokatzen den ikusi nahi izan dugu, hasteko. Xabier Etxanizek egin du lan hori. Eta gero, Bernardo Atxagak literatur mota honen berezitasunak aztertu ditu eta Anjel Lertxundik alderdi pedagogikoak. Haur- eta gazte-literaturaren prozesuan partaide diren idazlea, editorea, marrazkilaria eta irakaslea ere mahainguruan bildu ditugu, nor bere ikusguneak egoera azaltzeko eta balioztatzeko.

Dossierra ixteko, euskal haur-literaturaz informazioa eskaintzen digu Xabier Etxanizek. Honelaxe burutzen dugu dossier hau, bidebatez X. Etxanizi eskerrak emanez, gaia moldatzean eskainiriko laguntza estimagarriagatik.

Orain eta Hemen sailean hamar bat artikuluska bildu ditugu oraingoan, gertakari kulturalak, politikoak eta beste komentatuz.

... hainbat aburu sailean, udazken honetan sortu den prentsa berriaz (Hemen, Eguna, DV-Zabalik, El Correo Escolar) ohar laburtxo batzu eskaintzen dizkigu Joan Mari Torrealdaik, esperientzia honen geroaz kezkaturik.

Javier Rojo Cobosek, bere aldetik, poesiaren definiziorako zenbait puntu azaltzen ditu.

Liburuak sailean, azkenik, aldizkarian jaso ditugun argitarapenen berri ematen dugu, liburu bakoitzaren fitxa teknikoa eskainiz.

Eskuetan duzun zenbaki honekin burutzen ditugu gure aurtengo emanaldiak. Datorren urtean ere elkarrekin kulturagintzan jarraitzea opa diogu geure buruari.



X. Etxaniz
B. Atxaga
A. Lertxundi
I. Zubeldia
J.M. Olaizola
A. Olariaga
M. Elustondo
X. Etxaniz

HAUR- eta GAZTE-LITERATURA

Haur-literaturaren inguruan

Haur-literaturaren historiaz: literatura idatzia; gerra aurea; gerra ondorengo hutsunea; haur-literaturaren boom-a. Oraingo haur-literatura: herriz-herri zenbait berri. Korronte eta tematika ezberdinak. Azken oharra.

Abecederium haur-literaturari buruz

Alicia. Bagdag. C. Collodi. Dodgson. Eguillor. Fabula. Grimm. Edward Lear. Humorea. Moby Dick. Nekatua. Sherezade. Txikia. Ume. Wendy. Zerbeza.

Hamar ukazio baiezen pare baterako

Eskola eta hizkuntz irakaskuntza. Hizkuntz irakaskuntzaren zutabe nagusiak. Mintzamina. Literatura. Gramatika. Idazmina. Haur-literatura eta herri-literatura. Hizkuntza jolasgai. Hizkuntza gozagai. Espresibitatea.

Mahaingurua

Argitaratzailearen ikuspegia. Idazlearen eskarmentua. Marrazkilariaren abentura. Eskolak haurra irakurtzaletu?

Informazioa euskal haur-literaturaz

Haur-literaturaren inguruan

Xabier Etxaniz

Azken urteotan eta zenbait kausa direla medio, haur-literaturaren berpizte baten aurrean aurkitzen gara (Euskal Herrian bertan ere gero eta indar gehiago du haur-literaturak). Arrazoiak ugari dira, baina oro har, mundu osoa harturik, haurtzaroari ematen zaion tratamendu berria (haurra ez da gizontxo bat, bere nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsona baizik) eta oraingo pedagogia aurrerakoia dira berpizte honen zergatiak. Gaur egun, Piaget, Neill, Durkheim eta beste zenbait ikerlariren lanaren ondorioz, irakas-kuntza berri bat defendatzen da, irakasliburu atsegina bultzatzen da.

Guzti honek eragin nabarmena izan du haur-literaturan; izan ere, eta Graciela Perriconi-ren definizioa harturik ("Haur-literatura = artea + pedagogia"), esan daiteke orain dela gutxi arte pedagogiaren pean egon den hau, batipat artea dela orain; hau da, pedagogiaren eta literaturaren arteko borroka honetan, bigarrenak bereganatu duela haur-literatura (pedagogiarako ere balio handia mantentzen duelarik).

Fenomeno asko gertatu dira, beraz, azken urteotan: Haurraren Nazioarteko Urtea, Haur-literatur lehiaketak, Sariak, Haur-libu-

ruaren presentzia merkatuan, bere inguruko erakundeak (IBBY), Kurtsiloak... Eta gertaera hauek haur-literaturaren berpizte horrekin batera eman dira, berpizte hori eragin dute.

Baina orain gauden egoera honetara ailegatzeko, eboluzio bat eman da, progresio orokor bat eman da haurtzaroan, pedagogian eta haur-literaturan.

Haur-literaturaren historiaz

Haur-literaturaren historia egitean, oso argi eta garbi utzi behar da literaturaren barnean ahozko literatura eta literatura idatzia aurkitzen direla eta, beraz, ahozko literatura ere kontutan izan behar dugula historia hori egiterakoan. Are gehiago gure kasuan, ahozko literaturak pisu handia bait du Euskal Herrian. Lo-kantak, ipuinak, olerkiak, haur-jolasak, aho-korapiloak, igarkizunak, etab. haur-literaturak bereganatu dituen elementuak dira. Batzuk, gainera, badirudi ez zeudela haurrei zuzenduta (lo-kantak, ipuinak,...), baina haurrek bereganatu dituzte eta gaur egun haur-literaturaren osagarri garrantzitsuak dira. Herri bakoitzak du bere folklorea eta beraren bidez azaldu ohi ditu bere jatorria, munduaren ikuspegia eta ohiturak (Basajaun, Lamiak, Jentilak, Makilakixki); bestalde, olerki eta jokoen bidez, hitzaren munduan sartzen dira haurrak, eta, honela, jolastuz, hizkuntza ezagutzen dute; esan daiteke, hizkuntzaren erabilpena dela garrantzitsuena hasierako literatura honetan: hitzak indarra hartzen du eta jostagai bilakatzen da.

Ahoz-ahoz eta belaunaldiz-belaunaldi supazterñoan transmitituriko literatura dugu hau; eta orain, gizarte ruralaren krisia dela eta, krisian aurkitzen da.

Literatura idatzia

Haur-literatura idatziaren historia egitean planteatzen zaigun lehen arazoa, zera da: ea zer den haur-literatura. Galdera berez nahikoa konplikatu da eta guk, erantzuna sinpletu nahian edo, haur-literaturatzat haurrek egindakoa edo haurrei zuzendutakoa kontsideratu beharrean, haurrek irakur eta uler dezaketena sartuko

dugu haur-literaturan; horrela, haurrei zuzendutako liburuen ondoan aurkitzen ditugu *Altxorraren uhartea*, *Tormesko itsu-mutila*, *Platero y yo* eta beste asko: berez helduei zuzenduak zeuden liburuak, baina haurrek bere egin dituztela eta, haur-literaturan sartzen ditugunak.

Haur-literatura idatziaren jatorria Indian kokatzen da: VI. mendean argitaratu zen *Panchatantra* izeneko liburua, Daroucha erregearen seme-alabentzat. Liburu honetan markatzen dira Erdi Aroan oraindik ere haur-literaturan emango diren erregelak: 1) Haurrei zuzendurik egotea, eta 2) Atsegina eta didaktikoa izatea. Honelako liburuez gain, helduentzat idatzitako zenbait lan bereganatuko dituzte haurrek, hala nola *El Conde Lucanor*, *El Mio Cid* eta antzekoak. Suposatzekoa da, Euskal Herriko baladak ere arreta handiz entzungo zituztela orduan haur eta gazteek. Irakur-gai berak zituzten helduek eta haurrek, eta horrela izango da Ernazimenduaren zati handi batean ere.

XVII. mendean lau gertaera nagusi ditugu haur-literaturaren historian: Alde batetik, 1658. urtean argitaratua dugu *Orbis sensualium pictus*, ilustrazioak jasotzen dituen lehen haur-liburua. Johann Amos Comenius-ek idatzi zuen, eta horregatik kontsideratu izan da haur-literaturaren aita. Bohemian jaioa dugu Comenius, eta, antza denez, nahikoa pedagogo aurreratua izan zen.

Bestalde, eta XVII. mende honetan, *Las mil y una noches* liburu ezaguna ekartzen du Europara Anton Galland diplomatiko eta jakitunak; eta argia ikusten du La Fontaine-ren *Fables* liburuak.

Azkenik, eta laugarren gertaera nagusi bezala, *Lo cunto de li cunti* Giambattista Basilek idatzitako liburua dugu, bertan Italiako ipuin herrikoiak jasoz. Ipuin harrigarriak idazten dira Europan, eta 1697an Perrault-en *Histoires et contes du temps passé avec des moralités* liburuak kaleratzen da, helduentzat pentsatuak hasiera batean, eta gaur egun haurren artean guztiz ezagunak direnak.

Izugarrizko garrantzia du XVII. mende honek haur-literaturan; aurreko mendea Pedagogiaren urrezko mendetzat hartu da eta nahiz eta XVII. mendeko pedagogo garrantzitsuek ez idatzi haur-literaturarik (Saavedra Fajardo, Juan de Huarte, Pedro Simón Abril,...), garai horretan, eta lehenbiziko aldiz, kontutan hartzen da haurren hizkuntz maila; eta Rabelais, Montaigne eta antzeko pentsalariak esker hasten da helduaroa eta haurtzaroa bereizten.

XVIII. mendean jarraitzen du, eta areagotzen da, erabilpen didaktikoa. Robinsonen mendea dugu, Gulliver-ek bidaiak egingo ditu eta John Newberry-ren eskutik sortzen da "Juvenile Library" (1750).

Haur-literatura erabiltzen da mundua azaltzeko: fisika, historia, geografia,... irakasteko. Rousseau-k *Emilio* argitaratzen du, eta, bestekak beste, *Robinson Crusoe* (1719) liburua hartzen du heziketaren bibliatzat. Garaiko filosofo eta pentsalariek haurrak literatura berezia behar duela uste dute. Haur-liburuak enkargatzen dira (Iriarte-ren *Alegiak* Floridablancak, Samaniego-renak Peñafloreak, etab.). Giro honetan, eta didaktismoak bultzaturik, liburu errealista primatzen da, fantastikoa gaizki kontsideratzen delarik, kaltegarritzat heziketarako. Hurrengo mendean, aldiz, nahikoa panorama ezberdina azaltzen zaigu.

XIX. mende-hasieran kaleratzen da lehen euskal haur-liburua: Vicenta Moguel-en *Ipuin onak*, 1804ean argitaratua et Esoporen 50 alegi biltzen dituena. Hurrengo urtean, 1805ean, Andersen jaioko da eta 1812an Grimm anaien ipuinek ikusiko dute argia.

Haur-literaturaren historian menderik garrantzitsuena dugu hau. Fantasia, irudimena, estetika eta sormena inposatzen dira etika eta pedagogiarean aurrean. Haur-literaturaren idazle nagusienak ditugu: Grimm anaiak, Andersen, Hoffmann, Lewis Carroll, Jules Verne, Collodi, Stevenson, Charles Dickens,... Euskal Herrian Vicenta Moguel, Juan Jose Moguel eta Agustin Pascual Ugalde Iturriaga ditugu; azken hau, lehen euskal alegigilea. Haurrentzako lehen liburuak euskaraz ditugu, didaktismoa jarraituz eta Europako korrante berrietatik urrun.

XIX. mende honetan ugaritzen dira haur-aldizkariak; komikiak ere bere lehen urratsak emango ditu. Fikzio-zientzia, *Non-sense*-a, errerealismoa, hirurak nahasirik eta indar handiz agertuko zaizkigu. Ilargira doazen gizonak, mintzo den karta edo beltzen zapalketa agertuko zaizkigu.

Lehen aldiz ematen da bukaera triste bat (Andersen-en zenbait ipuinetan, "Berunezko soldaduak"en, esaterako), lehen aldiz hiltzen dira haurrak (Dickens-en eta H. Malot-en liburuetan, edo *Corazon*-en). Haurrari mundua azaltzen zaio ikus dezan, ikas dezan; baina beti arte-lana zainduz; ipuinak, liburuak, artistikoki erabiltzen dituzte.

Mende honen bukaera aldera, eta erromantizismoaren eraginez, zenbait lan egiten dira, indioei buruzko liburuak esaterako

(James Cooper eta Karl May-k idatzitakoak); zenbait lurraldetan abertzaletasun-sentimendua sortzen da: gure herrian, Katalunian, etab. Hemen sentimendu horrek ez baldin bazuen haur-literaturaren gehitzea sorterazi, Katalunian indar eta eragin handia izan zuen. Izan ere, heziketa katalanez nahi zutenek gero, haur-literatur produkzioa asko handitu zen. Gure herrian, XX. mendearen lehen herenean emango da haur-literaturaren gehitze hau.

XX. mendea hiru zati nagusitan bana dezakegu: gerra aurrekoa, gerra ondorengoa eta 60ko hamarkadatik honakoa. Eta honako zatiketa hau mundu osoan, Euskal Herria barne, ematen da.

Gerra aurea

Mende honen lehen herenean (1900-1930) aurreko mendean ekindako bidetik jarraitu zuen haur-literaturak, gero eta sendoago, gero eta produktu hobea ateratzen zelarik. 1919an McMillan argitaletxeak pertsona bat jarri zuen haur-literaturaren kargu. EEBBetak haur-literaturaren lehen urratsak ziren. Europan, berriz, *Peter Pan*, *Babar*, *Peter Rabbit* kaleratzen dira; informazio- eta entretenimendu-liburuak nagusitzen badira ere, fantasia eta atsegina bultzatzen dira.

Euskal Herrian, 1918an kalea ikusten du Kirikiñoren *Abarrak* liburuak; 1927an, *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak* Gregorio Mugicaren liburua plazaratzen da; aurreko urtean Jules Moulier "Oxobi"ren *Alegiak* izan ziren, 1931n Jean Barbier-ek *Legendes du Pays Basque d'après la Tradition* idatziko du. Gure literaturaren berpizte baten aurrean gaude, abertzaletasuna sendotzen ari da gizartean eta euskal heziketa izateko lehen pausok ematen dira. Giro honetan, kanpoko liburuak ere itzultzen hasten dira: 1932an "Oxolua"k *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak* liburua itzuliko du (aurten, eta Xabier Mendigurenek itzulia, Elkar-ek berriro plazaratu duena). Grimm anaien ipuinak ere itzuliak dira (Larrakoetxeak eta J. Altunak egindako itzulpenak; azken honek O. Wilde-ren ipuinak ere itzuliko ditu 1927an), eta Schmid-en ipuinak Gabriel Manterolak euskaratzen ditu 1934ean *Ipuintxuak* izeneko liburuan. Euskal haur-literaturaren hasiera indartsu eta nahikoa sendoa izan zitekeen hau (bertako folklorea eta kanpoko liburu ezagunetatik hasita), 1936ko guda dela kausa, eten egiten da.

EEBBetan Wall Street-eko krisiaren ondorioz oso gutxi argitaratzen da (argitaratzen dena, oso kalitate onekoa da); Europan

Babar liburu-saila sortzen da, Jean de Brunhoff-ek (1899-1936) idatzi eta marraztutako liburuak; 1932an Peré Castor-en lehen albuma kaleratzen da pedagogia eta artea elkarrekin doazlarik, eta "benetako poesia, sormen-lana, lurra, unibertsoa eta harrigarriarekiko beharra" helburutzat duelarik.

Babar, Peré Castor eta antzeko lanetan, zera lortu nahi da: haurra, naturarekiko harremanen bidez giza erlazioetara ailegatzea. Irakasliburu atsegina defendatzen da.

Estatu espainolean, haur-prentsaren gorakada handia ematen da. 1906an *Gente Menuda* kaleratzen da, 1914ean *Los Muchachos*, 1925ean *Pinocho*, eta ugaritze-une honetan, gorakada honen erdian, 1936ko gerra hemen eta 1939koa mundu osoan.

Gerra ondorengo hutsunea

Gerra ondoren basamortu zabala ageri da haur-literaturaren munduan; krisia, behar-beharrezko gauzen falta, errepresioa,... asko dira egoera horren kausanteak; Euskal Herrian, Francoren diktadurak ezinezko bihurtzen du euskaraz hitz egitea, idaztea, publikatzea. Europa krisi latzean dago, deuseztaturik; heriotzak, goseak, emigrazioak eraman dituzte idazle eta ilustratzaile asko eta asko. Horieta baten liburuak argitaratuko da gerra bukatu zen urtean: Marie-Antoine-Roger de Saint-Exupéry-ren *Printze txikia* (duela gutxi Txertoak, bigarren aldiz, euskaraz argitaratua). Europatik EEBBetara alde egiten dute idazle eta ilustratzaile askok, eta horren ondorioz indartzen da EEBBetako haur-literatura (Munro Leaf, *Ferdinando zezena* liburuaren egilea, da horietako bat). 1945. urtean sortzen da han C.B.C. (Children's Book Council) erakundea, argialetxeek eraginda eta haur-literatura bultzatu asmoz.

Europako basamortuan, aldiz, oasi txiki batzuk agertzen dira; Tove Jansson idazle finlandiarraren *Munin* liburuak, esate baterako, edo Astrid Lindgren-ek 1944ean idatzitako *Pippa Mediaslargas*. Liburu hau bere alaba gaixo zegoelarik bururatu zitzaion Astrid Lindgren-i (izenburua alabak ezarri zion) eta ohean zetzan alabari kontatu zion; gero, 1944ean bera gaixo eta ohean egon beharrean aurkitu zenean, idatzi zuen liburuak. *Pippa Mediaslargas*-ek pedagogoen kritika zorrotzenak eta haurren ongietorri beroa jaso zituen; haur-literaturan, normalean, haurrek bereganatu dituzte liburu onak, edo berei zuzendu zaizkie pedagogoen erzipideak jarraituz; baina, kasu honetan, *Pippa Mediaslargas* honekin,

oso fenomeno berezia sortzen da: hurrek gustu handiz hartzen dute liburua, berehala bereganatzen dute, eta, bestalde, pedagogoen kritikatu egin zuten, kaltegarria zelakotan, errealitatea eta fantasia nahasteagatik. Geroago pedagogo askok atzera egin dute eta onartu dute liburu honen balioa. Hurrek aspaldidanik zuten onartua!

Askorentzat hau dateke haur-literatura modernoaren hasiera. Pippa bera da liburuko heroia eta bere paper horretan haurri seguritatea ematen dio hazkunde-prozesuan eta lagundu egiten dio bere autonomia bilatzen.

Garai honetan, baita, eta inguruko pobreziaz kutsatu ez zen beste liburu bat, *Marcelino Pan y Vino*, José María Sánchez Silva-ren liburu ezaguna dugu. 1952an argitaratu zen eta 30 hizkuntzatarata itzuli da; idazleak Andersen saria jaso zuen 1968an (sari hori jaso duen estatu espainoleko pertsona bakarra).

Euskal Herrian zailtasun handiak daude eta oso jende gutxi argitara dezake euskaraz. Jules Moulier-ek *Haur elbe haurrentzat* argitaratzen du 1944ean; hegoaldean, berriz, Plazido Mujikak euskaraturiko *Noni eta Mani. Islandiar mutiko biren gertaldiak* izeneko liburuak, Kuliska-Sortari eman zion hasiera 1952an. Sorta honek garrantzi handia izango du hurrengo urteetan euskal literaturaren barnean. Eta, azkenik, garai honetako idazle bat aipatu beharrean aurkitzen gara: Yon Etxaide. Yon Etxaidek *Alos-torra* (1950) eleberria, *Puñá! Puñá!* (1953) ipuin-sorta, *Pernando Plaentxiatarra* (1957) ipuinak eta *Amasei seme Euskalerriko* (1958) biografiak, argitaratzen ditu urte hauetan. Oso hizkuntza landua eta aberatsa erabiliz, lan handia egin zuen, hemengo zailtasunak gaindituz, obra guzti horiek plazaratzen.

Eta honela, oasiak ugaritzen diren heinean ailegatzen gara 1960ko hamarkadara, guk haur-literatura modernoaren zabaltze-eta ugaritze-datatzat hartu dugunera.

Haur-literaturaren boom-a

Felicidad Orquin idazle eta kritikoak dioenez, 60ko hamarkadan hasten da *haur-literatura* kontzeptua seriooki erabiltzen. Une horretan —mentalitate-aldaketa dela eta—, haurra jadanik ez da gizontxo bezala kontsideratzen, nortasun propioa duen pertsona bezala baizik; bestalde, idazkiek balio poetikoa dute. Urte “zo-

riontsuak” dira, dirua dago, ekonomi egoera ona, industrializazioa ematen da; herritik hirira, baserritik herrirako aldaketa ematen da. Familien errenta igotzen da.

Haur-literaturan ere nabaritzen da gorakada hau; bestalde, haur-literatura indartzeko erakundeak sortzen dira, horietan garrantzitsuena IBBY (International Board on Books for Young People) delarik. IBBY 1953an sortu zen Zurich-en haur-literatura bultzatzeko asmoz eta berek sortua da Hans C. Andersen saria, haur-literaturaren nobel sari kontsideratzen dena, eta 1956. urtean sortua. Urte horretan bertan eman zen lehenbiziko aldiz “Deutscher Jugendbuchpreis” saria Alemanian, haur-liburu onenari emana eta indar handia hartu duena.

Francfort-eko azokan leku gutxi duela eta, haur-literaturarako azoka bat antolatzen da 1964ean Bolonian.

Apur-apurka, eta herrialde ezberdinetan, haur-literaturak gero eta pisu handiagoa hartzen du. W. Disney-ren pelikulak, Freinet eta Rodari-ren eragina, UNESCOk harturiko erabakiak, poltsiko-edizioak eginez lortzen den prezioa... asko eta asko dira indartze honen kausak.

Euskal Herrian ere, ugaritze txiki bat ematen da: urte luzeen isiltasuna puskatuz kaleratzen dira *Amandriaren altzoan* (1961) Juliana de Azpeitiak idatzia, *Sorgiñaren umea*, *Umeentzako kontuak* (1966) Martin Ugaldereña, edo Nemesio Etxanizek egindako *Lur berri bila* (1967). Lehen ikastolak sortzen dira eta horrek bultzaturik idazten dira lehen liburu eta aldizkariak (1966an sortzen da Bilbon *Umeen Deia*, José Antonio Retolazak bultzaturik; 10 urte beranduago, berriz, *Ipurbeltz*-ek ikusiko du argia).

Euskal haur-literaturaren birsortze hau, etengabeko aurrerapen bilakatuko da 1970eko hamarkadan, eta *boom* handi gauden hamarkada honetan. Pedagogi aldaketa, hizkuntz askatasun handiagoa, familien errenta eta editorialek nahiz idazle-ilustratzaileek egindako lan handigaitza izan dira gure herrian fenomeno hau gertatzearen kausak.

1970eko hamarkada-hasieran “Kimu saila” sortzen du Gero argitaletxeak. Urte horietako askatasun politikoa probetxatuz, euskal kultura, historia eta literatura eraman nahi dituzte ikastola berrietara. Pertsonaia historikoen biografiak argitaratzen dituzte, gure mitologiako pertsonaiekin batera: *Antso Garteiz*, *Amaia*,

Eneko Haritza, Kattalin Erauso (J.M. Arrieta eta I. Azkunek idatzita); antzerki-lanak publikatzen dira: *Martin Arotza eta Juan Deabrúa eta sendagile Maltzurra*, edota *Buruntza azpian*, biak Lourdes Iriondoren eskutik. Literatur liburuak izanik, oso helburu pedagogikoa dute; urteetan azaldu ezin izan ditugun kultura, historia eta literatura erakusteko modu bat; euskara berreskuratze-ko tresnak (antzerkia oso medio baliagarria da); eta, horiekin batera, haurrek berek egindako lanak ditugu "Kimu sail" honetan: *Haurra ipuin denean*, Andu Lertxundik eragindako eta Zarauzko Ikastolako haurrek idatzitako ipuin-bilduma dugu, berek idatzi eta marraztutako liburua. Antzekoa da Elgoibarko ikastolakoez egin zutena: *Izarren begietan*, poesi bilduma, eta Arantxa Carbonell-ek ilustratua. 1975ean argitaratu zen.

Inguru horretan kaleratzen dira zenbait *Asterix* euskaraz, I. Beobidek sorturiko argitaletxean; iparraldean Peré Castor-en bildumako lauzpabost liburu atsegin eta interesgarri argitaratuko dira Jean-Louis Davant-ek itzuliak (*Adixkide onak, Ahuntza eta pittikak*, eta). Kanpoko argitaletxeak ere interesatzen hasten dira. Pixka-pixkanaka, eskaintza zabaltzen ari da, Ikastoletarako oinarrizko testu-liburuak egiten dira. "Nire lehen liburuak" saila publikatzen da 1977an, hurrengo urtean Kataluniako La Galerak —X. Mendigurenek itzulia—, "Apurrak" saila argitaratuko du euskaraz.

Franco hil da eta abertzaletasun-sentimendu izugarria dago gure gizartean, mobilizazioak ematen dira politikan eta kulturean. Gero eta jende gehiagok ikasten du euskara eta euskaraz. Ikastolak finkatzen dira.

Euskal Herriko argitaletxeek ez dute indarririk, eta kanpotik etorriko dira haur-liburuak. Behar handia dago, demanda handia, eta oferta, aldiz, nahikoa murriztua. Giro horretan sortzen dira Erein eta Elkar argitaletxeak, eta Hordago haur-munduan sartzen da. Erein eta Elkar, hasiera batean, buru-belarri sartzen dira haur-literaturan eta, horrela, 1980-82 bitartean benetako *boom* bat ematen da. 1979an sortzen dira "Tximista", "Itzul" eta "Irakur" sailak; 1980an, berriz, "Sor", "Txori" eta "Axut"; 1981ean "Auskalo", "Txilibitu" eta "Ziripot" izango dira eta 1982an "Perkax", "Sorgin" eta "Birigarro". Hurrengo urteetan ere sail berriak sortu dira, azkenak "Txintxinbela" eta "Kikilikon" izan direlarik. Esan dezakegu, beraz, euskal haur-literatura egoera oncan aurkitzen dela.

Oraingo haur-literatura

Kantitate/kalitate binomia kontutan izanik, bion arteko korrelazio bat ematen da, ugaritzarekin batera maila igotzea bait dator. Estatu espainolean gaztelaniaz idatzitako haur-liburuaren artean, honako eboluzio hau egon da azken urteotan:

	Haur-liburuak	Guztiaren %
1970	1.842	% 9,3
1975	2.275	% 9,6
1979	2.997	% 12,19
1980	4.912	% 17,7
1982	5.071	% 16,8

Ikusten den bezala, 1979-1980 urteen artean izugarrizko aldea dago; honen arrazoia, Haurraren Nazioarteko Urtea da. Izan ere, 1979a Haurraren Nazioarteko Urte izendatu zuen UNESCOk. Gertaera horrek, haurrenganako kezka berriarekin batera, bulztatu egin zuen eta eragin haur-literatura. Euskal Herrian ere, garai horretan hasten dira argitaletxeak sail berriak sortzen.

Kantitatearekin batera, kalitatea etorri da; sariak, lehiaketak, azterlanak, kongresuak, erakunde berceziak, kurtsiloak, etab. Haur-literatura serioago hartu da, lan literarioagoak egin dira, garrantzi handiagoa eman zaio.

Bestalde, haur-literatura mundu osora ari da zabaltzen. Iranen, esate baterako, duela 15 urte sortu zen haur-literatura idatzia, Senegalen duela 10 urte, Kenyan ere orain dela gutxi. Herrialde batzuetan, penintsula iberikoa barne, gorakada eta progresio hau ematen ari den bitartean, beste herrialdeetan krisi txiki bat ematen ari da dagoeneko.

Herriz-herri zenbait berri

Ekialdeko Herrietan aurrerapen bat eman da; Tolstoik markaturiko bidetik ekin zioten, baina gaur egun errealismo sozialak —helburu pedagogiko bati zuzenduak— ez du hainbesteko garrantzirik. Badirudi azken boladan haur-literatura birplanteatzen ari direla: izan ere, herrialde batzutan —Jugoslavian, adibidez—, helduentzako literatura sartzen da haur-literaturan, liburu ezegokiak kaleratuz.

Ilustratzaileei dagokienez, oso onak daude, eta, orain arte banatu diren 10 Andersen sarien artean, hiru bereganatu dituzte.

EEBB-etan, CBCk bultzaturik, haur-literaturak oso garai ona izan du azken 30 urtetan. Poltsiko-liburuak, jendearen interesa, Liburutegietako Erakunde Amerikarra, propaganda, inmigratutako ilustratzaile onak, marrazki bizidunak, eta beste zenbait faktorek lortu dute haur-literaturaren maila igotzea eta produktu ugari kaleratzea. Hiru izan dira Andersen saria jaso duten idazle amerikarrak: Meindert Dejong 1962an, Scott O'Dell 1972an eta Paula Fox 1978an. Honek berak adierazten digu gaurko haur-literaturan zer-nolako pisua duten EEBB-etako idazleek.

Dena den, 1970eko hamarkadan munduko krisiak eragin izan du haur-literaturan. Gobernuaren politika dela eta, liburutegi eta eskoletarako presupostuak murriztu egin dira. Hala ere, azken hamar urte hauetan 3.000 liburu berri argitaratu dira urtero EEBB-etako haur-literaturan.

Britainia Haundia-n, EEBB-etan gertatu den bezala, liburutegietako presupostuen murrizketak tirada txikiak egitea eragin du, liburuen prezioa igoz. Guzti honek frenatu egin du pixka bat bertako haur-literatura.

Alemania-n, berriz, izugarritzko indarra hartu du haur-literaturak. Ez da subjenero kontsideratzen eta gizartean garrantzi handia du. Gurasoak kezkatzen dira beren seme-alaben irakurketaz eta askotan berak dira irakurleak. Literatur sariak eragin handia dute gizartean eta saritutako liburuak pila bat saltzen dira.

Haur-literatura goraka joatearen arrazoi nagusiak, hauexek ditugu: 1) Sariak eragin handia dute; 2) Liburuek maila altua dute eta oso ezagunak dira haur nahiz helduen artean; 3) Komikiaren igoera. Gaur egun 80-90 komiki daude Alemanian, eta *Asterix*, esate baterako, 30 milioi ale baino gehiago saldu dira; 4) Presentzia handia komunikabideetan.

Ez gaitu harritu behar, beraz, Alemaniako haur-literatura zabalte-prozesu batean egoteak, eta Kästner, Härtling, Otfried Preussler, Zimnik, Gina Ruck-Pauquet, Ursula Wölfel eta bar euskaraz aurkitzeak.

Italia-n, Britainia Haundian eta EEBB-etan gertatu dena pasatu da. 1964ean sortu zen Boloniako Azoka, garai horretan pedagogi aldaketa iraultzaile bat ematen da, Rodari dugu, Lodi... 70eko ha-

markadan oso goian zegoen haur-literatura; orain, berriz, behar-ka doala ematen du eta arrazoi posible batzu —krisiaz gain— honako hauek izan daitezke: 1) Telebistaren eragin kaltegarria; kontutan izan Italian telebista pribatuak ere sortu direla; 2) Eskolan emandako gelditasuna; 3) Familiaren axola-eza.

Estatu espainol-ean, Euskal Herrian gertatutako eboluzio bera eman ez baldin bada, antzeko zerbait pasatu da. Lehen, kantitateaz hitz egitean, ikusi dugu haur-liburuaren kopuruaren eboluzioa eta argi eta garbi ikusi da Estatu espainolean izugarritzko gorakada eman dela azken urteotan, *boom* baten aurrean gaudela, eta, argitaletxeek diotenez, oraindik ez du gailurra jo.

Urte hauetan zenbait faktorek bultzatu dute haur-literatura; hona hemen horietako batzu: 1) Argitaletxeen mugimendu handia; aukera ugaria eskaini dute, eta, bestalde, Hego Ameriketako merkatuaren krisiak bultzatu egin ditu argitaletxeak bide berriak, merkatu berriak bilatzera; eta, horietako bat, haur-mundua izan da; 2) 1972an Biblioteca Nacional delakoan Haur-literaturaren departamentua sortzen da; 3) Nazioarte-mailan gertatzen diren fenomenoek (UNESCOren erabakiak, Francfort eta Boloniako azokak, etab.) eragin handia dute; 4) 1960-1975 urte-bitartean idazle espainiarren kopurua bikoizten da; 5) Ministraritzak liburu asko erosten ditu eta sariak antolatzen; 6) 1983an Asociación Española de Amigos del IBBY delakoa sortzen da; 7) Kanpoko idazle ezagunen liburuak itzultzen dira.

Azken puntu honi dagokionez, eta kanpoko zein liburu irakurtzen den Estatu espainolean jakiteko, zera esan daiteke: 1972-1984 urte-bitartean 10.375 liburu itzuli ziren beste hizkuntzetatik gaztelaniara (produkzio osoaren % 25a), honela banatu zirelarik garrantzitsuenak:

Ingelesetik	5.066 liburu (guztiaren % 13a)
Frantsesetik	2.213 liburu (guztiaren % 5a)
Alemanetik	1.084 liburu (guztiaren % 2,7a)
Italieratik	1.035 liburu (guztiaren % 2,6a)
Suomieratik	126 liburu

Ikusten den bezala, inguruko herrialdeetako liburuak itzuli ziren eta erdiak ingelesetik.

Katalunia-ri dagokionez, une honetan bertako liburugintzaren % 25a haur-literaturak hartzen du (Euskal Herrian bezala); oso momentu onean aurkitzen da bertako haur-literatura eta Bartzelonan dagoen argitaletxe- eta inprimategi-multzoak erraztasun han-

diak ematen dizkio gorakada honi; bestalde, gizartean presentzia handia duen elementua da Katalunian liburua. Bi arrazoi nagusi hauetaz gain, beste batzuk aipa daitezke hango haur-literaturaren egoera azaltzean: 1) Katalanaren presentzia irakaskuntzan; 2) Katalan Argitaletxeen Elkarrekin lortu du argialetxe txikiak ere azoka garrantzitsuetan egotea; 3) OEPLI (IBBY) sortzea, Katalunian "Consell Catalá del Llibre per a Infants" izeneko; 4) Katalunian haur-literaturaren erakusketak (Munich-en 1982an); 5) Ihar-dunaldiak haur-liburuaz 1981eko otsailean Bartzelonan; 6) Argialetxeen gehitzea; 7) Sariak.

Gaur egun korrante ezberdinak ematen dira, eta, hasiera batean bertako historia eta geografia azaltzeko literatura egiten baldin bazuten ere, orain ekintza-liburuak, abenturazkoak, fantastikoak, errealistak, ekologistak eta abar ematen dira, bertako idazleak kanpoan ere fama hartzen ari direlarik.

Euskal Herria dugu, azkenik, herriz-herriko ibilalditxo honen azken geltokia. Euskal Herrian *boom* bat ematen ari da. Baina egoera ez da oso normala, kantitate aldetik gehitze bat dago urte batetik bestera, eta kalitatea ere hobetzen ari da. Hala ere, oso hutsune handiak ematen dira gure haur-literaturan:

1. Euskal Herrian ezin dugu esan *literatur kritika* bere une gorenean aurkitzen denik, are gutxiago haur-literaturan. Ez dago kritikarik, eta hau oso arriskutsua da, maila honetan aukeraketa bat eman behar izaten baita; kontutan izan, jende askok, haur askok, ez duela irakurtzen, ez duelako liburu egokirik aurkitu.
2. *Informazio-lekuak* falta dira. Goiko kritika azaltzeko lekuak, egunkari, aldizkari, folieto batzuk: liburu onak azaltzeko, propaganda egiteko, gidatzeko, irakurleak bere aukera hobeto egin dezan.
3. Maisutza-eskoletan *asignatura* hau falta da. Maisu-maistren heziketan garrantzi handia duenez, gehiago bultzatu behar da eta Maisutza-eskoletan sartu.
4. *Itzulpen*-politika serio bat, kanpoko idazle klasikoak nahiz berriak euskaratzeko eta, era berean, euskal idazle onenen lanak erdaratzeko.
5. Instituzioek bultzaturiko *plangintza* behar da. Gizartean hartzen ari den garrantzia kontutan izanik, plangintza serio bat burutu beharko lukete hemengo instituzioek.

Denok dakigu haur-literaturak heziketan duen eragi. 3 Eba-ruak irakurtzeko zaletasuna bultzatu behar dela, jende gutxik irakurtzen duela, txikitatik hasi behar dela irakurtzen, irudimena, inteligentzia, fantasia, hizkuntza desarroitzen dituen haur batek ez duela hainbesteko zailtasunik izango heziketan, eta abar.

Hala ere, badirudi hemen guzti horrek ez duela garrantzi handirik; Madrilgo gobernuak, esate baterako:

- Haur- eta gazte-literaturaren aste nazionalak antolatzea ditu.
- “Lazarillo” saria banatzen du 1958tik aurrera.
- IBBYren IX. kongresua antolatu zuen 1964ean, eta orain laguntzak ematen dizkio “Asociación Española de Amigos del IBBY” delakoari.
- Mintegiak, asteak, katalogoak, boletinak, etab. eratzen ditu.
- Haur-literaturaren sari nazionalak banatzen ditu (argitaletxe, ilustratzaile, maketazio, itzulpen, liburudenda eta sorlan onenei).
- “Liburu interesgarriak” eta “Hobeto argitaratutako liburuak” banatzen ditu; etab.

Antzeko zerbait esan daiteke Kataluniako Generalitateaz.

Euskal Herrian, aldiz, Zarauzko udalak antolaturiko Lizardi lehiaketaz gain, orain dela gutxi “Baporea” izenez sortu dena dugu. Bestalde, eta udaletxe-mailan, badaude lan interesgarriak, Tolosako S. Juan lehiaketa, Gasteizko Umandi, eta abar; baina, oro har, oso mugimendu eskasa ikusten da instituzioen aldetik. Jaurlaritzak konbokatutako beketan, edo lehiaketetan, ez da haur-literaturaren arrastorik. Ez du laguntzarik ematen itzulpenengatik, haur-bibliotekak esku bateko behatzez kontaktzen dira. Hau da, plangintza serio baten falta nabarmena dela.

Kanporatzen ari den euskal haur-literaturaz, berriz, zera esan daiteke: bakarren batzuen esfortzuari esker ari dela euskal haur-literatura kanporatzen. Alde honetatik eskertzekoa da S. Calleja, N. Ventura eta antzekoen kritika-lana, eta baita B. Atxaga, Mariasun Landa eta antzeko idazleena ere.

Korronte eta tematika ezberdinak

Oraingo haur-literaturan edozein gai erabil daiteke. Liburuaren zailtasunak, gramatika aldetikoak edota ulermen-mailari dagozkionak izango dira; hau da, testu hori ulertzeko historia, filosofia, kultura... maila bat eduki behar duenean irakurleak. Baina gaiari dagokionez, gaur egun edozein gaiz idazten da. Badaude, esate baterako:

1. Familia zalantzan jartzen duten liburuak (*Soro berdeak, soro grisak, Uno, Konrad*).
2. Liburu feministak (*En favor de las niñas*, Lumen argitaletxeko saila, adibidez).
3. Zenbait tabu azaltzen dituztenak (*Futboleko botak, Txan fantasma*).
4. Ekologikoak (*Norena da basoa?, Isu, haginik ez zuen marrazoa*).
5. Gizartea azaltzeko (*Garabia, Eskale txikiak, Abereen etxaldea*).
6. Lana ukitzen dutenak (*Iban trapusaltzaile*).
7. Marjinazioa (*Nino suerte bila, Txirbel*).
8. Humorezkoak (*Abarrak, Pernando Amezketarra, Nikolas txiki*).
9. Abenturazkoak (*Portzelanazko irudiak, Nire ibilaldiak, Altxorraren uhartea*).
10. Fantastikoak (*Tristeak kontsolatzeko makina, Chuck Aranberri dentista baten etxean*).
11. Joko-liburuak (*Eskubeltz taldearen abenturak*, "Elije tu propia aventura" saila).
12. Historiko eta biografikoak (*Iparragirre, Landetaratuak*).

Suizidioa, marjinazioa, fikzio-zientzia: edozein gai erabiltzen da. Dena den, azken urte hauetan arazo txiki bat sortu da: narratiban irakurlearen partehartzea bultzatzen da: "Dungeons & Dragons" saila, "Elije tu propia aventura", etab. (hauen jatorria, Tolkien-en *El señor de los anillos* liburuan dago). Sail hauetan sortzen

den arazoa da, bereizi egin behar dela haur-liburua eta haur-literatura, azken honek balio poetikoa bait du, eta lehenak ez du honen beharrik.

Bolonia eta Francfort-eko azken azoketan ikusi denez, dibulgazio-liburuak, erlijio-liburuak eta bidai liburuak goraka doaz; eta gehien argitaratzen direnak, honako hauek dira: fantastikoa, egungo errealitateari buruzkoa (haurraren ingurukoa (8-12 urte), eko-logikoa), fikzio-zientzia.

Zortzi urte arte, humorezko liburuak dira nagusi, eta bukaera zorionsuarekin. Zortzi urtetik aurrera, berriz, fikzio-zientzia eta errealismo berria dira gehien.

Bestalde, gero eta gehiago ari da agertzen guraso/ume erlazioa aztertzen duen liburua, eta modan jartzen ari dira neska bat protagonista duten liburuak eta haurraren nortasuna bultzatzen dutenak.

Euskal Herrian, oraindik ere, badaude ukitu gabeko gaiak. Hemen bertan sortutako lanak aztertuz gero, oso liburu gutxi aurkitzen dugu langabezia, esate baterako, lantzen duenik; fantasia, humorea eta abenturazkoak dira gure liburu gehienak. Badago hor hutsune bat, itzulpenen bidez bete nahi dena edo betetzen dena; baina esan daiteke, oraindik —orokorki— pixka bat atzeratuta gozala, tematikari dagokionez.

Mundu osoan, beraz, honako korrante nagusi hauek ematen dira:

1. Errealismo berria (arazo-liburua).
2. Fantastikoa.
3. Folklorearen berraurkikuntza (ipuin herrikoietan oinarriturik, beste mundu batzu sortzea, humorea eta fantasia erabiliz).
4. Antiautoritarioak (familia, eskola, zalantzan jartzen dituzten liburuak).
5. Emantzipatzaileak (irakurlearen erreflexioa, estima bultzatzen dutenak).
6. Utopikoa (gizartea aldatu nahi dutenak).

Azken oharra

Munduko haur-literaturan, geurea kokatu nahi honetan bukatzen ari naizelarik, azken ohar bat egin nahi nuke, ez hainbeste gure haur-literaturaz, baizik dugun hutsune handi batez. Egia da euskal literatura normalizatze-prozesu batean sartu dela eta oraindik gauza asko daudela egin gabe; baina, horregatik hain zuzen, behar-beharrezkoa ikusten dut haur-literaturaren inguruan murgiltzen den jendea, interesaturik dagoen jendea, biltzea, koordinatzea, lanak komentatzeko eta ekintzak antolatzeke erakunde bat edo talde bat. Katalunian badago "Consell Catalá del Llibre per a Infants", OEPLY-IBBY erakundeko partaidea, eta horren inguruan biltzen dira hango idazleak, bibliotekariak, ilustratzaileak, argitaletxeak, liburudendariak: den-denak haur-literatura bultzatu asmoz. Ikastaroak, erakusketak, katalogoak, etab. egin dituzte eta aldizkari bat argitaratzen dute, *Faristol*, bertan kritika-lanak, komentarioak, etab. plazaratzen dituztelarik. Erakunde honen helburua Katalunian bertan eta kanpoan hango literatura ezaguteraztea da.

Madrilen, bestalde, "Asociación Española de Amigos del IBBY" daukagu, antzeko helburuekin. Hemen, eta gauden egoerari gaudelarik, interesgarria litzateke honelako zerbait eratztea. Denon lana litzateke eta garrantzi handikoa. Hor doa, beraz, enbidoa.

X. E.

Abecedarium haur-literaturari buruz

Bernardo Atxaga

Jakin aldizkariak haur- eta gazte-literaturari buruzko aste honetan parte hartzeko eskatu zidanean, oso lan zailetan sartuta nengoen, atera nahi eta atera ezin dudan liburu batean, eta nire estreinako joera ezetz erantzutekoa izan zen. Baina berehala bukatu nahi eta ezin bukatu dudan ipuin baten irudia etorri zitzaidan gogora, eta pentsatu nuen hitzaldi hau aitzakia ederra zela nire benetakoa lanari aurre ez egiteko, eta baietz esan nuen; baietz, iheslari batek "goazen" esaten duen bezalaxe. Egun batzuk geroago, jakina, damutu egin nintzen, zeren literatur mota honi buruz hitz egitea mahai gainean daukadan ipuina bukatzea bezain zaila ikusten bait nuen. Izan ere, zer esan ume batzuei? Nola hitz egin zuek bezalako haur batzuei? Begiratzen dizuet, ikusten dut gehienok zortzi urte baino gutxiago duzuela, eta erremediorik gabekoa zait pena ez sentitzea. Benetan esaten dizuet: hobe zeundekete kalean jostaketan. Egin ezazue nahi duzuen, nahi baduzue gelditu, nahi baduzue kalera joan, nik ez dizuet kargurik hartuko. Edozein modutara, ez zigarrorik erre, tabakoa gauza txarra da eta. Aspertzen bazarete, pipitak in. Saiatuko naiz, halere, inor ez aspertzen, eta horretarako —hitzaldi serio bat eman partez— abecedarium bat irakurriko dizuet.

Abecedarium zuek irakurtzen duzuen literaturari buruz. *Aurreneko letra*, gehienok dakizuen bezala, A delarik. Esate baterako, *Alicia*

“Alicia aspertzen hasia zegoen bere ahizparekin ibai-ertzean ezer egin gabe eserita egoteaz; behin edo bitan emana zion begiratu bat bere ahizpa irakurtzen ari zen liburuari, baina liburuak ez zeukan ez marrazkirik eta ez elkarrizketarik, eta zertarako balio du marrazki edo elkarrizketarik ez duen liburu batek?... galdera hori egiten zion Aliciak bere buruari.

Gauzak horrela, kontsideraziotan sartu zen (lan handiz sartu ere, zeren, egiten zuen beroarekin, makal eta logalez sentitzen bait zen), kontsideraziotan sartu zen ea merezi zion ala ez zion merezi margaritak biltzera altxatzeak, gero haiekin txikordak bat egiteak emango zion gustuagatik, eta hor non, horretan ari zela, untxi txuri bat, begi arroxetakoa, bere ondotik saltoka eta korrika pasa zen.

Ez zen hura gauza *oso* berezia; eta Aliciari ez zitzaion batere harrigarria iruditu untxiak entzuteko moduan esatea: *Ai! Ai! Jau-na! Ze berandu ailegatuko naizen!*... baina, untxiak txalekoaren patrikatik erloju bat ateratzen zuela ikustean, eta orduari begiratzen ziola, eta gero korrika abiatzen zela zalapartan, orduan Alicia kolpetik zutitu zen, konturaturik ez zuela sekula untxi txalekodunik ikusi, eta are gutxiago erloju bat zuenik. Eta jakiteko gogo biziz, untxiaren atzetik abiatu zen zelaian barrena, eta beta eman zion untxia zelai-ertzeko zulo batean ezkututzen ikusteko. Pittin bat geroago, Alicia ere zulotik behera ezkutatu zen, gero nola atera behar zuen pentsatu ere gabe”.

Horrela hasten da 1846ko uztailaren hasieran, Tamesistik txalupan zebiltzala, Lewis Carroll-ek Alicia Lidell neskatorentzat asmatu zuen ipuina, gero *Alicia Herrialde Miresgarrian* izenarekin edo, mundu guztira zabaldu zena. Nik abecedarium honen buruan jarri dut, eta jarri, gainera, ezkutu edo babes bat bezala. Izan ere, hitzaldi hau prestatzen ari nintzen egunetan, erabat onartu gabe, enbarazu egiten zidan ideia bat bait zebilen neure buruan, euliaundi baten burruna bezala sentitzen nuena. Iruditzen zitzaidan (ez zuek, zeren zuek umeak bait zarete) baina bai zuekin etorritako irakasleren batek ilun jarriko zidala kopeta, esanez bezala: “Hik nahi duana esango duk, baina haurrentzat egindako literatura bigarren mailakoa izango duk beti; konprenitzen diat hik defendatzea, horretan habilenez gero, baina ipuin horiek, esandakoa, hiru-garren mailakoak dituk, horixe baietz, laugarren mailakoak, bai

jauna, bostgarren mailakoak, zer uste duk, ba, hik, seigarren mailakoak; zazpigarren mailakoak, eta kitto!". Eta nik, eraso horren aurrean, izerditan ikusten nuen neure burua, eta zenbat eta maila gehiago kendu irakasleak, hainbat eta izerdi gehiago sortzen zitzaidan. Gero, literatur mota honi buruzko azterketa batzuk irakurtzerakoan, nire beldurra oso zabaldua zegoela konturatu nintzen: aztertzaile guztien estreinako lana literatura honen balioa defendatzea izaten bait da. Carmen Bravo Villasante-k, esate baterako, honela hasten du bere *Historia de la literatura infantil universal*. "Ondo idatzitako edozein lan, zuzendua dagoenari zuzendua dagoela, arte-obra bat da. Bapatean, haur-literatura argiz bete da, eta arte-kategoria irabazi du. Beste garaietan jenero minor bat izan zena, arte-obratzat hartzen da gaur. Umeentzako klasikoeak beste klasikoek mailan egon behar dute".

Gauzak horrela, haurrentzako idazle naizenez, eta partaide, beraz, auzian, ez defendatzea erabaki nuen. Ez dakit haurrentzako liburuak argiz bete diren, ez dakit inork arte-kategoria ematen dien. Egia aitortu behar badut, uste dut nik neronek ere ez diodala ematen, eta hobetzat eta garrantzi handiagokotzat jotzen ditudala beste lanak, zuengan, umeengan, pentsatu gabe egiten ditudanak.

— Zertan ari haiz? — galdetzen didate ene lagunak.

— Ba, ofizioko lanak egiten; badakik, umeentzako ipuinak etab. —erantzuten diet nik begiratua apartatuz eta suspirio batean, esanez bezala: Noiz hasiko ote naiz benetako lanekin!

— Lasai, motel —kontsolatzen nau lagunak—. Bizi egin beharra zegok!

Guztiarekin, ez nago oso seguru. Egile banaiz ere, nire kritziak ez du gehiegi balio, ezen hamaika bait dira bere obraren balioaz erabat okertu diren idazleak. Izan zen, Alemanian, Morgensten izeneko poeta erromantiko bat, poema serioak eta poema bromazkoak idatzi zituen. Berak uste omen zuen serioak medio hartuko zuela izena. Baina oso bestela gertatu zen. Poema bromazkoak mundu guztira zabaldu ziren, hizkuntza gehienetara itzuli, eta, horrezaz gain, Heidegger bezalako pentsalarien azterketak merezi izan zituzten.

Eta badakizue Morgensten-en kasua baino latzagoak ere badi-rela. Esate baterako, Byron. Nork irakurri du azken berrogei urteotan Byron? Inork ez. Seguru asko ez zen hori izango berak —eta bere garaioek— pentsatzen zutena.

Hala eta guztiz ere, Lewis Carroll-en liburua ipini dut abecedarium honen buruan. Obra gutxi egongo da bai literaturan eta bai gizartean hainbeste eragin izan duenik. Literatura barnean, abangoardia askoren abiapuntu izan delako, duen ausardia formalagatik. Gizartean, ba, Graves-ek esango lukeen bezala, esaldi berri asko jarri zituelako jendearen ezpainetan... bere izenetik hasita, jakina.

Baina banuen Aliciarekin hasteko beste arrazoi bat; hain zuzen, Carroll-ek hasiera-hasieran luzatzen digun esaera hori: "liburuak ez zeukan ez marrazkirik eta ez elkarrizketarik, eta zertarako balio du marrazki edo elkarrizketarik ez duen liburu batek?... galdera hori egiten zion Aliciak bere buruari".

Betidanik, haurrentzako liburuak idazten hasi ziren XVII-XVIII. mende haietatik, literatura horri nahitaczkoa izan zaio elkarrizketez baliatzea, eta premiazkoa izan zaio, halaber, estapanen laguntza. Xehetasunak bilatzea komeni bada, horiek lirategi-ke estreinakoak, marrazkien premia, elkarrizketen premia.

Baina, beharbada, hitz egingo dugu horretaz aurrerago. A letra asko luzatu da, eta bagoaz buruz behera B bulartsuaren babesera.

B delarik Bagdag

"Behin batez, Harun-al-Rasid kalifa egonezaz omen zegoen, loa ezin harturik, eta bere bisirrari hotsegin omen zion, esanez:

— Chafar, gau honetan desasosegatuta niagok, larri zeukat bihotza. Asma ezak zerbait entreteni eta alai nadin.

— Sinesten dutenen Emirra: badut Ali pertsiarra izeneko lagun bat. Istorio eta pasadizo ederrak dakizki, bihotzak alaitu bezala penak kentzen dituztenak.

— Ekar iezadak!

— Entzutea obeditzea da.

(...) Eta hala, Chafar-ek bere laguna ekarri zuen kalifaren gelara.

— Ezer berezirik ikusia baduk, konta ezak.

— Entzutea obeditzea da —esan zuen Ali pertsiarrak, eta istorio bat kontatzen hasi zen, honako hau:

— Orain dela urte batzuk, oi ene Emirra, ene jaioterria utzi nuen, Bagdag, eta lagun bezala zaku txiki eta eder bat zeraman

mutiko bat nuen. Hiri batera sartu ginenean, Kurdistandar maltzur eta sesiante batek zaku txikia kendu zigun, esanez:

— Zaku hau eta zaku honen barruan dagoen guztia, nirea da!

— Anaia musulmanak! Salba nazazue lotsagabe honengan-dik! —oihu egin nuen nik. Han zeudenek esan ziguten:

— Joan zaitezte kadiarengana, eta onar haren sententzia!

Eta kadiarengana joan eta arazoa adierazi ziotenean, hala esan zuen juez honek, kurdistandarrari begira:

— Hirea bada, esan zer daukan barruan.

— Bi zilarrezko lapitz daude —esan zuen kurdistandarrak— eta kolirioa begientzat, eta toaja bat eskuentzat; bi kikara urrezko, bi kandelabro, bi kanpadenda, bi plater, almohada bat, bi larruzko tapete, bi orratz, edalontzi bat, kaldero bat, bi brotze; katu eme bat, bi zakur, erratilu bat; behi bat bi txahalekin, ahuntz bat bi antxumerekin; arkume bat eta bi bildots; ganbelu ar bat, bi ganbelu eme, bufalo bat, bi zezen, lehoi eme bat, bi lehoi ar; antzara, bi azeri; koltxoi bat eta bi diban; gaztelu bat, bi saloi, bi ate dituen sukalde bat eta baita ere kurdistandar koadrila bat, zeinek hau dena nirea dela aitortuko duten!

Juezak neri galdetu zidan gero.

— Eta hik zer esaten duk?

Nik, aurreratuz, honela adierazi nuen zakuaren barruan zegoena:

— Jainkoak boteretsu egin beza kadia! Zaku horretan ez zegoen horrenbeste gauza! Bakarrik bi etxe zeuden, bat eroritakoa eta aterik gabea bestea; eta zakurrentzako gela bat; umeentzako eskola bat eta gazte batzuk dadotara jokutzen; denda batzuk, Basora eta Bagadag-eko hiriak, Saddam ibn Ad-en gaztelua. Eta gainera, erremintari baten labea, arrantzale baten sarea, bastoi bat, piboteak, neskak eta mutilak, guzti hau nirea dela aitortuko dutenak.

Kurdistandarra, hitz horiek entzutean, negarrez hasi zen, eta hala esan zuen...

Barka ezazue, baina oraintxe konturatu naiz ipuin hau *Milagan eta gau bat gehiago* bildumakoa dela, eta egia esan, itsusia eta guzti izango litzateke kasu honetan Sherezaderen eredia ez jarrai-

tzea; dakizuenez, Sherezadek burua salbatzen zuen goizero, ipuin bat eteten zuen bakoitzean. Bada-etzpada ere, berdin jokatuko dut nik. Ez nuke nahi intriga apurtzeagatik hitzaldirako ondorio txarrak erakartzea. Inork puinal bat bota nahi badit, itxaron dezala abecedarium honetan ipuinaren segida azaldu arte.

Mila gau eta gau bat gehiago, esan bezala, ipuin-bilduma da, herri-ipuinen bilduma bat, eta berrietan irakurleak nahi duena aurki dezake: kontseiluak, ohiturak, humorea... baina, bereziki, irakurleak fantasia aurkituko du... Aladinoren kriseilu miresgarri hura, palazio oso bat Txinatik Afrikara eta Afrikatik Txinara eramaten zuena; eta egurrezko zaldi hegalariak, eta ehun mila erregeren errege izan eta lur honetan paradisua egin nahi izan zuen Sadedad haren istorioa, eta itsasoaren azpian zeuden hirien istorioa, Sinbad marinelaren bizitza,... Fantasia hori, eta baita —era berean— munduko beste herri-ipuinen fantasia ere, zuzen-zuzenean pasako da, idazle erromantikoen eskutik, haur-literaturara. Ez bakarrik haur-literaturara, jakina, baina bereziki horretara. Azken finean, *Mila gau eta gau bat gehiago* bera, ia bakarrik umeentzako edizioetan saltzen da. Obra honek, gainera, obra honen fantasia bereziak, umeentzat idatzi duten idazle batzuen lana kutsatu du. Wilhelm Hauff, Washington Irving (*Alhambra*ko ipuinak) eta beste zenbait.

Eta fantasia aipatu dudanez gero, esan behar dut fantasia dela, hain zuzen (herri-tradiziotik hartutako munduaren ikuspegi hori, alegia), haur-literaturan borrokatzen duen joera nagusietako bat. Eta hasiera-hasieratik joera horri beste bat kontrajartzen zaiola, pedagogikoa.

Hemezortzigarren mendean, eta umeak hezitzeko asmoz, idatzi zuen Madame de Genlis-ek hala dio, haurrei eta gazteei eman behar zaizkien liburuez ari dela: “Zein liburu emango dizkiezu? Zer egin behar dute hamabost urteak arte, sorginkeriaz betetako liburuak eta *Mila gau eta gau bat gehiago* irakurri? Ez dizkiet ene seme-alabei horrelakoak emango. Ez dago haien artean arazo moralik duen bakar bat ere. Maitasunaz bakarrik arduratzen dira. Maitemindurik dauden printze eta printzesa ederren istorioak txarrak dira, zeren, miresgarritasunaz hunkituta, ez bait dute beren memorian lorategi zoragarri eta diamantezko palazioen oroitzapena baizik gordetzen. Fantasi irudiek ideia faltsuak ematen dizkiete umei”.

Gaur egun ere, borrokan ez bada ere bai elkarren ondoan, bi joera horiek partaide dira haur-literaturan. Garai bateko erroman-

tikoak eta ilustratuak bezala, gaur egun ere tirabiran dabilta irakasle izan nahi ez dutenak eta irakasle izateko premian edo aurkitzen direnak.

Eta bukatu da B, eta beste letra batera goaz, euskal hiztegietatik erbesteratua egonik, aipatu ere aipatu ezin dudan hirugarrenera.

C delarik Carlo Collodi

“Bazen behin...

— Errege bat! — esango dute nire irakurle txikiak.

Bada ez, umeak, okertu egin zarete. Bazen behin egur-pusketa bat. Ez egur-pusketa berezi bat, baizik eta arrunta, neguan estufara edo sutara botatzen diren horietakoa. Ez dakit nola gertatu zen, baina halako batean egur-pusketa hori zurgin zahar baten taillerrean gertatu zen. Arotz hori Maese Antonio zen, nahiz eta den-denek Maese Anpolai deitu bere sudurratik, zeren sudurra distiratsu eta more-more edukitzen bait zuen beti, anpolai heldu bat bezala.

— Egur-pusketa hau garai onean etorri da —esan zuen Maese Anpolaik—. Mahai baten hanka egiteko erabiliko dut.

Pentsatu eta egin. Hartu aizkora zorrotz bat eta egurra garbitzera eta zuritzera zihoan, non, aurreneko aizkorakada ematerakotan, besoa airean zuela gelditu zen. Mintzo txiki-txiki bat entzuna bait zuen, esanez, mesede bat eskatuz bezala:

— Ez iezadak horren fuerte eman!

Maese Antoniok inguruan begiratu zuen, mintzo txiki hura nondik atera zen ikusteko. Begiratu zuen aulkiaren azpian, eta ezer ez!... begiratu zuen armairu barruan, eta ezer ez!... begiratu zuen txirbilaren eta zerrautsaren kajoian, eta ezer ez!... atera zen arozte-giko atarira kalean inor ote zegoen ikusteko, eta ezer ez!...

— Badakit —esan zuen maese Anpolaik—. Entzun dudan hori ene ilusio bat izan da.

Eta berriro aizkora hartuz, izugarrizko kolpea eman zion egurrari.

— Atx! Hi! Min ematen didaala!

Maese Antonio harrituta geratzen da berriro, gero Geppetto etorriko da, panpina edo gizonilo bat egingo du egur-pusketa ha-

rekin, eta mundura Pinocchio jaioko da, sekula izan den gizonilorik bihurriena.

Carlo Collodi-ren benetako izena Carlo Lorenzini zen. Historiak esaten duenez, oso ezaguna egiten zaidan arrazoi bategatik hasi omen zen umeentzat idazten: diru-premia zeukalako. Pinochioren ipuina haurrentzako kazeta batean argitaratu zuen, zatika, episodio bat orain eta hurrengoa ahal zuenean. Ustekabean, Pinocchio-k aberastu egin zuen, eta Lorenzinik, batere kontenplaziorik gabe, bere pertsonaia urkatzea deliberatu zuen. Baina azken episodio hura argitaratu zenean, umeak, eta baita hain ume ez zirenak ere, protestaka joan zitzaizkion etxera, eta mehatxu egin zioten. Lorenzini Pinocchio berpiztu beharrean aurkitu zen.

Bi arrazoigatik ekarri dut Collodi abecedarium honetara. Pinocchio asko gustatu zitzaidalako irakurri nuenean, horregatik aurrena, eta gero, Collodik, edo Lorenzinik, oso modu artetsuan nahastu zituelako aurreko letran aipatutako bi joera haiek: fantasia eta heziketa. *Pinocchio* kontseilu eta eritzi moralez betetako liburua da, baina ez da, horregatik, gexa edo aspergarria, ezta inola ere.

Batzuk oso moralejaren kontra azaltzen dira. Ni ere hala nago, kontra, baina kontuz ibili behar da. Badira *Pinocchio* bezalako liburuak, eta gainera ez dugu ahaztu behar Aliciak Dukesarekin edukitako elkarrizketa hura.

— Beharbada —esan zuen Aliciak— horrek ez dauka moralejarik.

— Ba, ba! —esan zuen Dukesak— denak dauka bere moraleja, jakin egin behar bilatzen!

— Partida [ezen kartaketan ari bait ziren beste pertsonaia batzuk] ... partida [hobetozeago doala ematen du.

— Hala da —baieztatu zuen Dukesak— eta horren moraleja da, “o! horrelaxe mugitzen da mundua maitasunaren poderioz”.

Eta Alicia berriro aipatu dugunez gero, hurrengo letra, D, Dodgson-ena izango da.

D, beraz, **Dodgson**

Lewis Carroll-en benetako izena, Charles Lutwidge Dodgson zen. Bazuen, ordea beste anaia bat, erreberendoa bera bezala: Edward Dodgson. Anaia hau munduan barrena ibili zen, eta azkenean non bukatuko eta Durangon bukatu zuen. Euskara ikasi eta

eztabaida gogorak eduki zituen garaiko euskaltzaleekin, Azkue-
rekin, esate baterako. Dodgson Euskaltzaindiko buruaren aurka
zegoen, eta hitz-joko bat egin zuen hori zela eta. *Euskararen azke-
na* —idatzi zuen— *azkuena da*. Dodgsondarrek ez zuten nolana-
hiko familia izan behar. Orain arte hitz egin dudan bi anaia horien
aita, Charles Dodgson, oso gizon eskolatu eta serioa omen zen
bere apaiz-lanetan, eta, halere, begira nolako gutunak bidaltzen
zizkion, bidaian zebilela, bere zortzi urtetako umeari (gutuna Car-
men Bravo Villasante-ren liburutik hartzen dut):

“Hau istilua! —hasten da Dodgson aita Leeds izeneko hiria
deskribatzeko asmotan—. Txerriak, niniak, ganbeluak eta tximele-
tak lokatzetan zebiltzak errekan; atsoek hegan egiten diate tximi-
nietatik, atzetik behiak jarraitzen zaizkiela; ahateak kafe-kikaretan
ezkututzen dituk. Hiriko burgomaestrea zopa-platera baten bar-
rruan zegok, bainilazko kremaz eta almendraz hornitua, halatan
pastel bat ematen duela eta hiriko txikizioaz libratzen dela...”.

Nolako arbola, halako ezpala, esaten den bezala.

Eta bukatu da D letra, eta E delakora goaz.

E delarik Eguillor

Aurreneko laukian (*viñeta* delakoan) mutil koskor bat azaltzen
da, gafaduna, Juan Carlos Eguillor-en beraren antza duena. Mutil
koskorrak esaten du: *Parte hartu behar dut parkeko marrazki-
txapelketan*.

Bigarren laukian, neska koskor bat inguratzen zaio mutilari.

Honek esaten dio: *Parte hartu behar dut parkeko marrazki-
txapelketan*.

Neska koskorra, eskuak gerrira eramanez eta kopeta ilunduz,
garrisika hasten zaio: *Baina, nola! Parkeko txapelketa horretan!*
Ez al dakik, ba, nork antolatu duen! Ez al dakik Chillidak zer esan
duen! Eta Oteizak? Ba al dakik Euskal Artisten Elkarteak bere
ezezko biribila eman diola? Eta Gobernuak subentzioa kendu dio-
la! Euskadiko Ezkerrak *Bai, baina* esan duela eta Herri Batasunari
ideia maniobra butsa iruditu zaiola?

Neskatilak errita egin dion bitartean, mutikoa gero eta aurpegi
desolatuagoa jarritz joan da, eta azkenean negarrari eman dio,
esanez:

— Buuuuuuu! Nik arbolatxo bat pintatzea bakarrik nahi nuen!

Juan Carlos Eguillor ezagutu arte, haurrentzat idaztea ez zitzaidan burutik pasa ere egin. Beste askok bezala, literatur mota hori, nolabait adierazteko, aitona txintxo eta bizar-txurien lana iruditzen zitzaidan, eta ez, inola ere, abangoardia guztien berri zuen pertsona baten egitekoa.

Jakina, nik orduan haur-literaturari buruz nuen ideia, erratua izan arren, ez zen harritzeko modukoa. Jende askok du ideia hori oraindik ere, eta zuen artean ere ez da faltako eritzi horretakorik. Izan ere, beste edozein literatur motatan baino gehiago antzematen da haur-literaturan *kisch* esaten zaion joera hori.

Aspaldi honetan nik nahi baino gehiago hitz egin dut Kisch delakoaz, eta gaurkoan ezer gutxi esango dut. Bakarrik adierazi, haurra dela, gizarte osoan, pertsonaiarik zainduena, begiratuena; eta, hori dela eta, klitxe baten bitartez aztertzen direla bere premiak; esate baterako, premia literarioak.

Gauzak horrela, estetika bigun bat desio izaten da berarentzat, eta horren ildotik sortzen diren liburuak eta abar efektistak gertatzen dira, ameneratuak, "umeegiak", nolabait esateko. Hor daukazu, adibide bezala, Walt Disney, hor daukazue lorez, ilargiz, ume txintxo —hainbesteraino txintxo, non tontoak ematen duten—, izarrez, txoriñoz etab. betetako liburuak.

Agian, amaneramendu hori da haur-literaturari (bai sortzearen aldetik, bai estimazioaren aldetik) kalte gehien egiten dion gora-behera.

Dena dela, mila adibide daude aipatu kisch horren kontrakoak. Nik Juan Carlos Eguillor ezagutzean konprenitu nuen hori, bere lana ikustean. Ezagutu eta gutxira, elkarrekin liburu bat egitea proposatu zidan, hortik *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* sortu zirelarik. Asko ikasi dut berarengandik (eta ez haur-literaturaren arloan bakarrik) eta, hitzaldirik dedikatzea posible bada, ene gaurko hau berari dedikatua dago.

Eta hurrengo letra F da.

F delarik **fabula** (alegiak, alegia).

Garai batean, eskoletan entziklopediekin ikasten zen ez oso aspaldiko egun haietan, gramatika fabulaz zipriztindua egoten zen.

Hemen gaudenon gurasoek hurbiletik ezagutu zituzten Esopo, La Fontaine edo Samaniego, eta beraiengandik iritsi zaizkigu guri otso, azeri, inurri eta kilkirren istorioak, beti ere asmo moralez hornitzen zirenak. Gaur egun oso erretiratuta daude biblioteketatik.

Beste herrialdeetan hemen baino lehenagotik zeuden erretiratuak, Rousseau-ren ideientatik batez ere.

— Nik diot —idazten du *Emilio*-ren egileak— ume batek ezin dituela inondik ere erakusten zaizkion fabulak konprenitu, zeren horietan dauden irakaspenek, nahiz eta bidea erraztu nahi, umeentzat konpreniezinak diren ideiak zabaltzen bait dituzte.

Rousseau-k ez zituen liburuak nahi umeentzat, edo, hobeto esanda, liburu bakar bat nahi zuen: Robinson Crusoe.

Zuetako batzuk, fantasia eta pedagogiaren arteko tentsioa aipatu dudanean, fabula eta antzekoak pedagogiaren aldeko joera horren baitan gelditzen direla pentsatuko zenuten, beharbada. Baina ez. Pedagogoez berek ez dute fabulekin ezer jakin nahi.

Gure inguruan eragin handiena izan duen pedagogoa, Gianni Rodari-k, ez ditu aintzat hartzen ere.

Eta finitua da F, eta *Grimm* anaien bila noa.

Grimm

XVIII. mendea Ilustrazioaren garaia izan zen. Gure horretan, dakizuen bezala, finkatu ziren natur zientziak. Landare eta animalien bilduma eta deskribapenak, organismoen azter eta fisiologikoez orduan izan zuten hasiera. Natura ez zen margo, horrez gero, halako potentzia sekretu eta iluna —non pizta fabulosoak zinezkoekin nahas zitezkeen—, baizik eta funtzionamendu arrazoiduna zeukan makineria bat. Hala zioen orduko zientziak: gauzak makinak bailira ezagutuko dira, ala ez dira ezagutuko.

Ezarria gelditu zen, horrela, estreinako metodologia zientifikoak; ezarria, ordea, errealitatearen sinplifikazio bat zela medio. Izan ere, Ilustrazioak mugatu egin zuen pentsagai eta sinesgai zenaren arloa. Ezezaguna —zientziaren ezpainez ezin esplika zitezkeen hura— debekatua geratu zen. Beste modu batera esanda, Ezezaguna apartapen kultura baten biktima bihurtu zuten ilustratuek.

Artearen arloan, Ilustrazioak *mimesia* predikatu zuen. Ispilua zen obra batek naturarekin eduki behar zuen harremanaren meta-

forarik egokiena. Garai hartako pentsalari batek esaten zuenez, literaturan ezin ziren sartu "burdinazko gizonak, hegan egiten zuten zaldiak, gaztelu sorginduak, murraila apurtezinak, gorputz zaurtezinak", zeren poeta joan bait daiteke "naturaren obra zinezkotik harantz, baina sekula ez, ordea, naturaren posibilitate bezala jotzen dena baino haratago". Literaturak, pinturak... ispilu izan behar zuen, kimerei biderik egin gabe.

Erromantizismoa Ilustrazioaren aurrez-aurre jarri zen. Ez ziren zientziaz fio. Intuizioari eta sentimenduari balio handia ematen zioten. Eta, gainera, ez zuten onartzen arteak ispilu izan beharra: *espresioa* aldarrikatzen zuten, *ex-premere*, barruan dagoena kanporatu. Erromantikoeak asmatu zuten gaur hain topikoa den *erdiitza*-ren metafora ere: ama bat bailitza, poeta erditu egingo litzateke bere poemaz. Barrendik kanporako bidea beti.

Horregatik ohartu ziren, erromantikoak, herri-literaturaz, eta herri-literaturako fantasiaz. Schiller-ek hala esaten omen zuen (*omen* diot, zeren ezin izan bait dut aipua kontrastatu): "Zentzu sakonagoa aurkitzen dut ene haurtzaroko amandre-ipuina zaharretan, bizitzak erakusten dizkidan egietan baino". Izan ere, amandre-ipuinetako sorgin, antzara, urrezko maindire, munstro eta beste elementuak tresna egokiak zitzaizkien bere *barneko* gertaerak adierazteko, eta, gainera, herri-ipuina haiek ondo zetozen bere gizartearekiko ideiekin ere.

Herri-ipuinen maitale izan ziren, Schiller ez-ezik, Novalis, Goethe, Chamisso, Hoffman, Von Arnim, Coleridge eta beste idazle erromantiko asko.

Grimm anaiak giro horretan hezi ziren, eta munduan gehien zabalduetako herri-ipuinen bilduma osatu zuten, Frantziako Perrault-ek baino geroago, baina honek baino errespetu eta metodo gehiagorekin. Grimm anaiek entzun bezala jasotzen zituzten ipuinak, gero Azkuek, Amades-ek, Afanasiev-ek eta beste askok egin zuten bezalaxe.

Gaur egun egiten den haur-literatura, esan dut lehenago ere, fantasiaz baliatzen da gehienbat. *Mila gau eta gau bat* gehiago bezala, Grimm anaiek eta beren imitatzailiek jasotako amandre-ipuina oinarri dira liburu eta fantasia horietarako.

Eta honekin bukatzen da G letra, apur bat pedantea izan dena. Egia esan, letra honetan esandako guztia unibertsitateko egin behar izan nuen lan batetik hartu dut, eta jakina da aprobazteko ponperia-pixka eman behar zaiola erreflexionatutako apurrari.

Eta holaxe heldu naiz I-ra. Eta banoa I hartzera, eta entzuten dut:

Hi! Izorratua niagok! Iltzen! Intzirika! Ipin begia aitzinago!

Eta hala J-ra ailegatzen naiz, eta esaten dit J-k:

Joditua niajok! Joan jemendik!

Eta aurreratzen naiz beste pixka bat, eta K-rekin egiten dut topo.

Kaka hiretzat! —entzuten dut.

Nola hizketa itsusia gustatzen ez zaidan, L-raino luzatzen dut luma.

L delarik Edward Lear

Ez dakit ezaguna egingo zaizuen *Limerick* hitza. Bada, bost lerrotako bertso berezi bat da, honelako zerbait:

Bazen aiton bat bilbotarra
 bost koloretakoa zeukana bizarra
 gastatzen zuen bere dirua
 crosten pinturak eta pegamentua
 o bilbotar aiton krudel eta gogorra!

Limerick hau, jakina, ez da limerick on bat, baina nahikoa izango da halere deskribapenerako. *Nonsense* literaturaren aurrean gaude, dispartearen aurrean, eta —euskaraz esanda— bertso aldrebesen aurrean. Gogoratzen bazaizue, Lewis Carroll-en aitak egindako deskribapen hura, Leeds hiriarena, ildo honetatik zihoran. Hitz-joko absurdoak (itzuli-ezinak, beraz), sintaxi fantastikoa askotan, entzulea harritzeko eta algara batean jartzeko.

Lewis Carroll-en ipuinek pasarte asko dauzkate era honetakoak, baina, honela, limerick forman, Edward Lear-ek landu zuen gehien. Bera oso marrazkilari ona omen zen, eta —historiako liburuek esaten dutenez— limerick liburua atera eta handik gutxira hamasei mila ale salduta omen zeuzkan.

Lear-ek, eta Carroll-en itzal handiak, joko absurdo eta dibertigarriak ekarri zituzten haur-literaturara. Batzuek diote dispartearekiko gustu hori ingelesa dela erabat, baina hemen ere, Euskal Herrian, bazuten estimazioa.

Hala dio Manuel Lekuonak: Bazeudela, Xenpelar bertsolari famatuaren garaian, oso famatu ziren beste bi bertsolari, Juxto eta

Longinos, nahiz eta horien bien izena bertso aldrebesetatik etorri. Juxto eta Longinosekin jendeak izugarritzko barreak egiten omen zituen. Eta, hor non, egun batez, Juxtok desafioa botatzen dion Xenpelarri. Xenpelarrek onartu egin zuen desafioa, dibertsioz, noski, berak ere modu aldrebesean kantatzeko asmoz. Jendetza izugarria bildu omen zen saio hura ikustera. Eta horiek izan omen ziren azkeneko bi bertsoak:

XENPELARREK: Txantxangorri batenak / sei libra tripaki / txingurri batek berriz / zazpi arto jaki. / Baheak iriña iho / errotak iralki / ganibetak erre / eta labeak ebaki / Oyen madria non dan / Xenpelarrek daki”.

JUXTOK: Neguan otzak eta / udan txingurriak / orbela eta zipotza / denak ziatuak / subia eta zirauna / dauzkat inguruan / beldur beldurak nago / sartzeko mixtua...

“Azken irteera hau zela eta hainbesterainoko algarak sortu ziren, non ezinezkoa izan bait zen saioari segida ematea”, kontatzen du M. Lekuonak.

Eta egingo nuke ironia bat oraingo bertsolari triste eta serioen bizkarretik, baina nahiago dut isiltzea.

Eta L bukatu eta M hartzeko keinua egiten dudanean, H azaltzen zait, esanez: Añaztu egin nauzu lehenago, haserretua nago.

Beraz, haserririk ez dugu behar eta, H.

H delarik

Hdun **humorea**-ren h-a.

Errepara zaitzete orain arte aipatutako egileez: Carrol, Collo-di, Eguillor, Samaniego, Lear... Humorezaleak denak, humoregintza eta haur-literaturgintza aldi berean landu zutenak, batzuk...

Haur-literatura humorez betea dago. Nork ez du barre egin Guillermoren abenturekin? Edo Winic Puh hartzaren istorioekin? Edo Dickens-en Picw ick-ekin? Edo Tartarin de Tarascon ehiztari gizarajoarekin? Eta Mark Twain-ekin?

Esanda gelditzen da. Eta humorea, nik uste dut, poesiaren etxeetako bat da, agian zabalena.

Eta Hrekin kunplitu eta gero, Mra bihurtzen naiz.

M delarik **Moby Dick**, edo —gauza bera dena— Melville.

Nonbait irakurri dut epika haur-literaturan babestu dela, haurrak eta gazteak direlako, gaur egun, abenturak, akzioa, heroitasuna maite dituzten bakarrak.

Seguru asko, esajerazio bat da. Baina egia bide da gazteek oso maite dutela narrazio epikoa. Cooper-en *Azken mohikanoa*, Karl May-ren *Winnetou*, Salgari-ren nobelak, Stevenson-enak, Jack London-enak, Julio Verne-renak... hori eta beste askok esandakoa frogatzen dute.

Eta orain N daukat aurrean, N **nekatua** delarik.

Nekatua nago, eta ez naiz, N-az, nekatua nagoela esateko gauza baino.

O dator N-ren atzetik, baina O delako honi buruz ere ezin dut ezer esan, zeren, berarekin pentsatzen jartzen naizen bakoitzean, hutsik gelditzen bait zait burua.

P, Q eta R, berriz, ez ditut batere maite. Beraz isildu egingo naiz horietaz ere.

Gauzak horrela, S-ra ailegatzen naiz, S **Sherezade** delarik:

“Kurdistanarra, hitz horiek entzutean, negarrez hasi zen, eta hala esan zuen:

— Oi kadi, ene jauna! Zaku hori nirea dela gauza jakina da, eta lehen esandako gauzez gain, gotorlekuak dauzka barruan, eta gazteluak, zikoinak, piztiak, gizonak xakean jokatzen, behor bat eta bi pottoka, bi zaldi, erbiak, hiriak, herriak, bi urkatu, itsu bat eta bi bisiolari, paralitiko bat, apaiz bat bi diakonorekin, kadi bat bere notarioekin, zeinek zaku hau nirea delako fedea emango duten.

— Eta hik, zer diok? —esan zidan kadiak. Ni erabat haserre-tua nengoen, nere onetik aterata, eta oihu egin nuen:

— Jainkoak lagun dezala kadia! Zakuan, lehen esandakoez gainera, mila aker daramatzat, eta mila zakur zaunkaka, lorategiak, botilak, kopak, abeslariak, ezkonberri batzuk, lagunak, adiskideak; eta gainera andreak, bi Abisiniako, hiru Indiako, hogeitaz Greziako, berrogeitamar Turkiako; eta zakuan daude, baita, Tigris eta Eufrates ibaiak, eta mezkitak, almazenak, hipodromoak, Indiatik Sudancra dauden herrialdeak, eta gainera kadiaren bizarra mozteko mila labaina, baldin eta nire alde epaitzen ez badu.

Harri eta zur, kadiak zakua zabaltzeko agindu zuen. Hala egin zuten, eta bertatik ogi bat, limoia, gazta eta oliba batzuk atera ziren. Zakua kurdistandarrari bota, eta alde egin nuen handik”.

Nire ustez, ahoz kontatzen diren istorioak plazer literario berezia ematen diotē entzuleari. Haur-literaturak ahozko tradizio horretatik edaten du, eta badu jatorri horren kutsurik. Umeentzako ipuin batek, liburu batean sartua badago ere, ahoz kontatzeko gai izan behar du, eta, ez bada, seinale txarra.

Eta horrela, pittinka-pittinka, heldu gara T-ra, T delarik **txikia**

Entzun, mesedez, poema hau:

Izena dut Mary Lanford
 ene eskuak txikiak dira
 ene oinak txikiak dira
 ene ilea beltza da
 ene bularrak txikiak dira
 ez naiz oso altua
 deskribatu naiz
 hogeitazortzi segundotan.

U delarik **ume**

Zergatik da hain ederra poema hori? Nondik datorkio indarra? —galdetu nion lagun bati.

Lagunak esan zidan: Beharbada, ume-sintaxiarekin egina da-goelako. Arrazoi zuela uste dut. Mary Lanford-ek ume batek bezala deskribatzen du bere burua, edo inpresio hori ematen du, eta bukaerara ailegatzen garenean, *deskribatu naiz hogeitazortzi segundotan*, izututa bezala gelditzen gara.

Azken bi letra horietako moraleja da: Literatura etenik gabeko paisaia da. Egiten ditugun klasifikazioak (haur-literatura, helduentzatzakoa, etc.), horiek, horiek bai, literaturaren paisaiatik kanpo daude.

Jadanik amaitzeko garaian, V eta V-k, W bikoitza osatzen dute, W bikoitza **Wendy** delarik.

Wendy hazi egin zen.

Peter Pan, ez.

Gu Wendy bezalakoak gara. Nekez ailegatuko gara Ez Orain Ez geroko Herrialdera.

Eta bakarrik X, Y eta Z gelditzen zaizkit. X ezezaguna da, Y bariabileta, eta Z **zerbeza**-ren Z da. Garai batean ipuin-kontatzaileri zerbeza, ardoa eta ezta eskaintzen omen zieten beren lanagatik. *Jakin*-eko jendeak eskaintza hori egingo didalakoan, bukatu eta zuen galdera edo komentarioen zain gelditzen naiz.

B. A.

Hamar ukazio baiezen pare baterako

Anjel Lertxundi

Lehen ukazioa:

Hizkuntz irakaskuntzak ez ditu piramideak gogoko

Batuketatik hasi eta kebradotara apenas iritsi ginenok ere bada-kigu batuketari kenketa jarraitzen zaiola, batuketaren operazio la-burragoa litzatekeela biderketa eta kenketarena, antza denez, za-tiketa.

Oinarri bat beti du beharrezko bigarren urratsak, piramide ba-teko bigarren herrenkako harri tzarrak ere zimenduzkoen gainean ezartzen diren bezala. Ezer airean gera ez dadin. Piramidala da jakintzaren prozedura, gutxitik gehiagora, konkretuenetik abstrak-tuenera doana. Alderantzikoa nahi bada, puntaz behera dagoen piramidea, agian, baina piramide, hala ere.

Haur baten behar linguistikoak, ordea, ez dira piramidekoi, ezta lineal ere. Behar linguistikoak ez bait dira zientifiko soilak. Badira afektiboak, badira ludikoak eta badira, baita, hausleak ere.

Hizkuntzak berak lege bihurriak dituen arabera, haur baten behar linguistikoak ere bide bihurri bera korritu behar:

- Hizkuntza dinamikoa da.
- Dinamikoa denez, bada aldakorra ere.
- Aldakorra izatetik datorkio hausle ere izatea.
- Komunikatu nahi eta ezinaren arteko dialektikatik bi eratako hausturak sor daitezke:
 - Hizkuntza berean, haur batek *ezin dut / balin dut* joko bitxia egiten duenean bezala.
 - Beste hizkuntza batera pasatuz.
- Afektibitate orekatuak beharrezkoa du hizkuntza aberatsa.

Lege hauen eta antzekoen eraginez, barietateak infinitoak ditu hizkuntzak, erregulazinak eta, horregatik, antolazinak neurri berean matematikaren irakaskuntzaren arabera.

Izena-adjektiboa-aditza-adberbioa... Mailakatze tenporal horrek zer suposatzen du elementu morfologiko horiek denak batera suertatzen direnean?

Indikatiboa-baldintza-ahalezkoa-subjuntiboa... Mailakatze tenporalak zer suposatzen du denboraren tratamendua hizkuntzaren baitan pluriformea dela ohartzen garenean, Gandiagaren poematxo honetan bezala?

Den hau egia ote den
inor zalantzan baledi
Pelay Orozcok badaki.

Bigarren ukazioa, lehenbizikoari lotua letorkeena:
Paradigmen logika eta hizkuntz lorpenarena ez doaz bide beretik

Zeri deitzen ote diogun paradigmaren logika? Egituraketa gramatikalari, hizkuntzaren antolamendu morfosintaktikoari; guzti hori deskribapen da, hizkuntzaren fenomenoaren azterketa, baina inoiz ere ez hizkuntza bera.

Hizkuntzak bere baitan entzun/erantzun eta irakurri/idatzi prozedurak biltzen ditu. Prozedura horietan mamitzen diren hitz-andanen deskribapenera jotzen dugunean, erreflexio gramatikala taxutzen hasten gara.

Fenomenorik ez balego, ez legoke erreflexiorik. Erreflexiorik ez balego ere, ordea, fenomenoak balegoke, eskolatik pasa gabeko Xalbador bertsolariaren kasuan bezala.

Puntu honetan, derrigorrezko galdera: Zertarako erreflexio aberatsa, fenomeno linguistikoa bera seko ahula denean? Eta norbaitek luza diezaguke erantzuna: Erreflexioak indar dezake fenomenoa.

Horrelakorik ukatzen ez dugunez, partenaire hipotetikoarekin elkarrizketan jarraituz, derrigorturik gaude bigarren galdera plaza-ratzera:

— Nola? Galdera entzunarekin batera azkar asko borobildu digularik erantzuna partenaire odol-beroak.

— Erreflexioaren bidez fenomenoan murgilduz.

— Noiz?

Orain bai geratu zaigula erantzunik gabe partenaire hipotetikoak, ez bait luke kontraesanetan erori nahi. Horregatik geuk aurpegiratu diogu kontraesana:

— Fenomenoa sendotzen doan neurrian, neurri horri dagokion erreflexioa luzatu behar da.

— Noski! —esan digu harro asko hipotetikoak—. Perkadilarena!

Baina ez, ez da perkadilarena, lehenik beti bait da beharrezkoa fenomeno linguistikoa.

Zer gertatzen da, beraz? Helduok beste hizkuntza bat ikastera geuron buruak derrigortzen ditugunean, gramatikaz baliatzen gara. Beste hizkuntzaren bat ikasterakoan. Baina geurearen kasuan? Nola jaso genuen? Noiz arraio heldu ote genion lehenbiziko aldiz gramatikari?

Hirugarren ukazioa, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

Hizkuntzaren irakaskuntza globo bat denez, ez da gelan kabitzen

Hizkuntza ez omen da piramide. Berriro ere konparaketara makurtuz, puztu gabe ere globo izanagatik, puztu ondoren globoago den jostailuaz oroitu gara. Puztu aurretik badugu globoa, gomazko puzgarri den hori: -garri da globoa, puztu ahal izateko birtualitate guztiak bere baitan biltzen dituen.

Baina globoak birtualitate guztiak beregana ditzan, airea behar du; zenbat eta aire gehiago, orduan eta ederragoa dugu, lerdinagoa globoa.

Likizkeri dendetan saltzen dituzten globoetatik, ordea, desberdina da hizkuntzaren globoa, azken honek ez bait du inoiz leher-tzeko arristurik (hizkuntza hiltzen denean, ez dago globorik), hizkuntzaren ahalbideak ere infinitoak diren bezala.

Nondik ote datorren infinitotasun hori asmatzea ez da zaila. Hizkuntza giza fenomeno da, gizabanako bakoitzak inoiz harra-patuko ez dugun, beteko ez dugun fenomeno. Globo orokor bat dugu, beraz, eta globo txikiagoak daude globo orokorraren barnean. Gizabanako bakoitza globo txiki gara, globo orokor, izugarri horren barnean igerian. Gure globo txikiak puztzen eta handitzen doazen neurrian, globo orokorra ere handitzen eta edertzen doa.

Orain egin dezagun konparaketaz proba, irudimenaren laguntzaz bederen. Egin diezaiogun putz irudimenean dugun globoari. Uniformeki globo guztiaren hedadura zabala joango da puztzen. Ez orain ezkerreko zatino hau eta geroxeago eskuineko beste hura, globo osoa eta batera baizik.

Hizkuntzaren lorpenaren prozedura ere globoarenaren paretsua da: jaiotzen denetik da haurra oraindik puztu gabeko globo. Baina lehen hitzak amari edo aitari entzuten dizkionetik hasiko da globo hori handitzen, puztzen, aberasten. Kategoria gramatikal guztiak, eredu eta irudi literario guztiak daude globoaren hasierako puztaldi horretan.

Behintzat, hasieratik baldin badu globoak beharrezkoa duen airea. Hasiera horretan globoa zulo bakar batetik puztzen da, belarrietatik, eta belarri horiei aire fresko, ugaria eskaini behar zaie. Gero bigarren zulo bat ere baduela ikusiko dugu, begietan kokatua, irakurketaren bidez nagusiki baliatzen den zuloa.

Baina galdetzeke dago oraindik eskolak ematen ote dion aski aire globoari, eskolak nahikoa putz egiten duen globo horietan. Beste modu batera adierazteko: eskolak eskaintzen duen aireak —darabilen hizkerak— hizkuntzaren alor guztiak biltzen al ditu, eta hizkuntzaren alor desberdin horiei indar berdina eskaintzen al die?

Eskolak, edukinak transmititu beharraren egonezin larrian, piramidearen itxurak jantzi eta hizkera deskriptiboa darabil nagusiki: Gipuzkoak bost ibai nagusi ditu: Bidasoa, Urumea, Oria, Urola eta Deba. Zuzena da marrarik laburrena. Prehistoria garaian ahozkoa izan zen euskaldunaren literatura.

Antzeko perpaus eta esamoldez osaturik dator irakaskuntza osoa, halaberharrez baldin bada ere. Hizkera horren ezaugarri nagusienak, honakoak lirateke:

- Deskribapena du helburu.
- Orainaldian gorpuzturiko hizkera da.
- Indikatiboa da nagusi.
- Nominalizazio, perpaus erlatibozko eta finalez josia dago.
- Adjektibazioa urria da eta ez dago epitetorik.
- Zehaztasuna da helburu.
- Ez da hizkera-mota honetan irudi literariorik agertzen, enumerazioa ez bada.
- Testuak guztiz dira unibokoak.

Zerrenda luza genezake, baina honek adierazten diguna eskolak eskaintzen duen eredu linguistikoaren urritasun eta ahulezia da. Arnasaren falta.

Haurrak behar duen globoa eskolan kabitzen ez delarik. Espresibitate, eguneroko eta uneroko behar afektiboei erantzun beharra, atsegina eta hizkuntzaren alderdi ludikoa, ahalbide espresiboak, haurrak hizkuntzaz baliatu behar duela eta ez alderantziz ohartzea, iruditeriaren mundua, eguneroko esamolde adierazkorrak, *kaixo motel*-en mundua, haur-jerga, jolas-baliabideak... Fenomeno zabal horrek ez du babesik aurkitzen eskolan. Globoa ez da eskolan kabitzen.

Batek ez dakielarik hori globoa haundiegia delako suertatzen den ala gelako hormak txikiegiak egiten saiatu garelako ote zaigun gertatzen.

Laugarren ukazioa, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

Bi eta bi ez dago zertan beti lau bihurtu beharrik

Bi eta bi? Lau.

Bi eta bi? Hogeita bi.

Bi eta bi? Txoriak egin du kabi.

Bi eta bi? Hortxe dator Euxebi.

Bi eta bi? Begi-belarri.

Formulazio berdinak erantzun desberdinak jaso ditu eta erantzun horiek ez zaizkigu arrotzak. Lehenbiziko erantzunetik alden-du egin dira gainerakoak: halako joko foniko batek urrutiratu ditu logika matematikotik beste lau erantzunak.

Zilegi al dira formulazio guztiak? Baiezkoan nago. Baina aurrera joz, guk formulatuko bagenu, orain salatzen dugun egoera honen agerpide kontestatzaile gisa, *bi eta bi*, *zuhaitza* formulazioa eta onarpen bat jasoko balu zuengandik, legitimitate osoz jantziko genuke esaldia.

Zarauzko ikastolan oraintsu hamabi urte, zortzigarren mailako haurrengan jaso zuen bezala. Legitimitatea ez du hizkuntzak berak, guk formulazio bat erabiltzen dugunean legitimatzen dugu perpaus, esaldi eta antzeko oro.

Egile bait gara, sortzaile. Hizkuntza dinamikoa baldin bada, guk dinamizatzen dugulako da. Gurasoak zaharkituak zeudela esateak indarra galdu zuenean, pasatuak zeudela esatera iritsi ginen. Horrek ere indarra galdu zuenean, karroza deitzen hasi ginen gurasoei. Eta gu geu karroza bihurtu garenean, auskalo zer esaten duten gutaz ondorengo belaunaldiek.

Legitimitate horretara heltzeko, noski, lege batzuk ere bete behar dira. Hizkuntzak bere egitura propio bat badu, eta hizkuntzan bertan oinarrituz ematen dira hurrengo pausoak. Ez da, inola ere, *ex nihilo* jarraitzen den prozedura.

Egile eta sortzaile gara. Baina bagara zordun ere. Eta dialektika horretan, hizkuntzak bereak dituen legeak errespetatuz, sortzaile garen neurrian izango gara ikasle ere. Esan nahi da, globo partikularrok badugula orokorragoa den globoa, hizkuntza bera, beharrezko abiapuntu, erreferentzia eta helmuga gisa.

Dena den, formulazio orok ez du legitimitatea formulazio soil izateagatik. Bedeinkazioa lortzeko, kunplitu behar bait dira urrezko eta derrigorrezko legeak:

- hizkuntzaren senaz osaturik egotea;
- formulazioaren beraren deigarritasuna;
- hizlariaren onarpena, honela lortuko litzatekeelarik formularen hedapena ere.

Bostgarren ukazioa, laugarrenari heldua, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia eta lehenbizikoari lotua loturkeena:

Gero eta handiago / eta ez dugu ikusten;
gero eta beltzago / eta ez gaitu zikintzen

Gauari edo ilunpeari buruzko asmakizun tradizional honek badu beste erantzun bat: euskararen arazoa gure eskoletan gero eta handiagoa da, gero eta beltzagoa da.

Alde batetik, arazoa larria baldin bada, ikusten ez dugulako da: hizkuntzak planteaturik dituen korapiloak aztertzen saiatu ordez, hizkuntzaren beraren egoera aztertu ordez, aurreritziakin jokatu antolaturik dugu euskararen irakaskuntza zenbaitetan.

Baina hizkuntza bera eta hiztunak aztertu behar dira. Hizkuntza honen jokabidea, legeak, pluribokotasuna, maila poetikoa, espresibitateko indarra genituzke azterketa-gai. Hitztunaren aldeetik honek zeintzu dituen beharkizun espresibo eta ea kunplitzen ote dituen bere beharrak.

Honela, asignaturen errondan ongi baliatzen den haurra, baina jolasera irten bezain laster gaztelaniaz baliatzen dena, zergatik ari da modu horretan jokatzeko? Lagunarterako, jolas-une garrantzitsueterako, espresio-beharkizun indartsuenerako haurrak erdara jotzen badu, inguruak zer esanik baluke; baina euskarak beharkizun guztiak betetzen ote dizkion, galdetu behar. Haserre, pozik, urduri edo eragile dagoen uneetan euskarak espresamolde egokiak eskaintzen ote dizkion, galdetu beharko.

Ingurunearen eraginez eta liluraz aldatzen da haurra hizkuntzaz. Baina bereak eskaini ote dio uneren batean lilurarik? Erakar-

garri sentitu ote du "berea" dela esan dioten hizkuntza? Gaztelaniaren erakargarritasuna zein espresamoldetan agertzen da lehenik? *Vale, tío, qué guay, primer, a cumplir*, eta antzeko espresamoldeetan; soka-saltoan ibili nahi eta inguruan dituen soka-saltorako egitura guztiak (*el sillón de la reina, Avila, Segovia, Al cocherito, leré...*) erdaraz ezagutzen dituen; futboleko espresioak halakoak dituen...

Eta horra non'eskolaren zeregina gelatik kanpo ateratzen den, baina eskolaren zeregin izaten jarraitzen duen. Eskola ingurune espresibo guzti horretan inpliketzen ez bada, ez da ulergarri eskola hori cuskararen etorkizuneranzko bidean inplikaturik dagoela esatea, gela-barruko hizkuntz erabilera soila atzerakoi, erregresibo bait da.

Inplikazioak bitarteko, aipaturiko egoera gero eta beltzagoa izan arren, ez gaitu, antza, zikintzen.

Inplikazioak ingurunea, pertsonak, eskolaren erakundea suposatzen ditu. Baina suposatzen du hizkuntzarekiko jarrera ere, hizkuntza aztergai, pentsagai bihurtzea. Eskolaren erreflexio nagusienak hizkuntzaren inguruan mugieraztea.

Seigarren ukazioa, bostgarrenari korapilatua, laugarrenari heldua, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

Ez da gauza erraza / kikirikiken, kikirikiken,
ez da gauza erraza / ama gezurtatzen

Kanta herrikoiak ama gezurtatzea ez dela erraza dioenean, beti pentsatu izan dugu haurraren gezur-tankerako horietan baino gehiago amari egiten zaion traizioan; eta traizio horretaz haurrak berak ez du errurik, haurra bera da traizioa nozitzen duena.

Amak familia adierazten du. Tradizioa. Euskara-mota jakin bat, traketsa sarritan, ez-kultoa gehienetan, Euskaltzaindiaren be-deinkaziorik gabea beti, baina amaren hizkera bizia da, hizkera hori afektibitatez jantzia dago; are gehiago, afektibitatez gabea ama-hizkera ez litzateke posible izango.

Ama etxea da, kalea, ingurune linguistikoa da. Ama, hitz batean, herria da. Erabilera nagusienaren ingurunea ziurtatzen duena. Herri hori da, bereziki, globoa puzten duen airea. Ingurune euskaldunetz ari naiz pentsatzen: Asteasu, Orio, Azkoitia edo Zaratzez.

Eskolak, ordea, halako salto kualitatibo bat eman eta urrutiramentu bat eskaintzen dio, sarritan, herriko hizkerari. Ihes egiten dio kulturaren izenean. Arnasari nortasun-txartela kentzen baldin bazaio, haurra itozteko arriskuan suertatuko zaigularik.

Eskolak bere ingurunekeo hizkera ongi ezagutu behar du: herrian suertatzen diren elkarketa-fenomeno nagusienak, ezaugarri lexiko nahiz morfologikoak, herri horretako tradizio literarioak, ahozko kanta nahiz egitura literarioak, esamolde, espresio finkatu eta anekdoteria, txiste eta burla-koplak... Guzti hori da ama, eta eskolak, amarengandik urrutiratu nahi ez badu, ama ongi ezagutzen saiatu beharko du: bere akats eta bertute guztiekin. Bertuteak akatsak baino askoz ere ugariagoak direla sinetsiz.

Ama ingurunea da. Baina bada haurraren lehen urteetako bizi-tza ere. Garrantzitsuena, hizkuntzaren lorpena eta beste hainbat elementu nagusi kontutan hartuz. Eta lehen urte horiek sekulako aukera eskaintzen dute haurrak bitxi eta perla zoragarriez beteriko altxor aparta eskura dezan. Bere ganbarak gauzak gordetzeko, ikasteko, klitxe bihurtzeko duen dohain apartaz baliatuz bakarrik lortuko bait dugu ama ez gezurtatzea.

Zazpigarren ukazioa, seigarrenari estekatua, bostgarrenari korapilatua, laugarrenari heldua, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

Ez, ez eta ez,
merezi bezain kopeta beltzez
esango dizut ezetz eta ezetz.

Baina amarengandik ihes egin eta zein muturretara goazen aztertzeko garaian, arazoa ez dela euskara batua edo antzeko zer-bait ere esan behar da. Haratago doa arriskua. Hizkuntza benetan ez ezagutzetik datorkiguna.

Adibide garbi batez baliatuko gara: Frantziako testugintzan ortografiak leku berezi eta nagusia betetzen du, zortzi-hamar urte bitarteko testugintzaren ehuneko hogeitamarren bat ortografiak kunplitzen duelarik. Espainiako testugintzan ez da horrelakorik suertatzen, ortografiak toki apalagoa du bizitza akademikoan.

Desberdintasun hori nondik datorren jakitea ez da zaila: bi hizkuntzak aztertuz, frantsesak duen zailtasun ortografikoa, grafia eta fonia hain urrutiraturik egotea eta espainolak duen grafia eta foniaren arteko gertutasuna da bi testugintzetan ortografiari hain leku desberdinak eskaintzearen arrazoia.

Hizkuntza ongi ezagutzetik sortu da arrazonamendua. Eta horrek dakarren erabakia.

Gu geu beldur gara, ordea, ez ote dugun testugintza jakin batera jo, Espainiakora hain zuzen, eta horren pautak ez ote ditugun jarraitu. Pauta metodologikoak eta hizkuntzaren maparen banaketa, bat datoz gure testugintza eta espainiarraren artean.

Baina Axular-ek ere ikusi zuen arazo hau Ipar Euskal Herriko eta Hegoaldeko grafia desberdinez mintzatu zenean: "Erresumak bait dituzte diferent" esan zigun, frantsesarekiko morrontza edo espainolarekikoa salatuz.

Axular-ek salatzen zuen egoera hartatik ez garelako libratu, aitortu beharko dugu. Kolonialismoez mintzatzen garen unean, kolonialismo kulturalak era askotako eraginak bait ditu.

Baina beste hizkuntza baten metodologia geurera aplikatzeak ba al du zentzurik? Sendoturik eta erroturik dagoen hizkuntza kulto baten metodologia bat aplikatu al dakioke oraindik ere erabileraren inguruneak behar ote dituen ala ez erabakitzeke duen hizkuntza bati, uneko egoera diglosikoa jasan behar duen euskarari?

Kontzientzia linguistikoaren jabe izateak ez bait du, berez eta *per se*, kontzientzia horren norabide zuzena suposatzen.

Zortzigarren ukazioa, zazpigarrenari gehiagotua, seigarrenari estekatua, bostgarrenari korapilatua, laugarrenari heldua, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

Hortzak ditu, baina ahorik ez.

Zerra omen da asmakizunaren erantzuna. Baina bat asmakizunari jira eta buelta eman eta pentsatzen ere hasten da, hortzak sano asko eduki, protesiaren beharrik izan ez eta dastamena falta zaion gizarajoaz.

Pentsatzeari jarraituz, bat oroitzen da Axular bost aldiz irakurria duela. Sarako erretoreak erlatiboak nola erabiltzen zituen tesina bat egin behar zuela eta. "Hi haiz, hi, entregu eta trebe" bota genionean, ez zekien zertaz ari ginen. Oroitzen gara, baita, Tartasen *Onça hiltzeco bidea* zetreriazko lehen euskal liburua zela uste zuenaz. Edo Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza* jeltzale-politikaren katekima dela pentsatzen duenaz. Honela jarraituz, Barandiarani hezurak atsegín zaizkio, Manuel Lekuona moja brijiden kapelau izan da, Antonio Zavala biriketatik gaizki dabil auspo-faltaz. Orixe bere barne-muinetara bildurik dago, eta, gaurkoagoak adieraztekotan, Bernardo Atxaga Etiopiarra joan da Camilo Lizardiren bila eta Joxan Ormazabal txiste zaharrak asmatzen eta esaera berriak biltzen ari zaigu.

Karikaturak lagun diezagukeelakoan nago. Azkueren aho-literaturako bilduma izugarria ezagutzen duenaz gehiago fidatuko nintzateke eskola-lanetan, Azkue ezagutu gabe mugagabearen erabilera Matxinbentan matxinbentarrek baino askoz ere hobeto eza gutzen duenaz baino.

Dastamen-kontua bait da arazoa. Bitxiak, perlak, distirak aurkitzen saiatzearena. Hona hemen batzuk:

Balitz eta balego,
hi fraile eta ni lego.

Txapeli de txapela,
pertoli de pertola,
urtxuli de urtxula,
ttuttuli de ttuttula,
kukuli de kukula,
txiruli de txirula,
bipili de bipila,
txokoli de txokola,
umea lo dagola!

Don, don, kandelon,
 behi mardulak de Aragon,
 joaleak zintzilik
 lepotik kolgaturik,
 nagusia infernuan
 behi mardulen tratuan,
 morroia bentanean
 oheratze trantzean,
 apaizak elizan
 kricleisonetan!

Errege batek hiru alaba zituen:
 jazen zituen gorriz,
 jazen zituen zuriz,
 jazen zituen horiz:
 Kontatzea nahi al duzu berriz?

Bi hego ditu beleak
 beltza bata
 beltzago bestea
 Nahi al duzu berririo kontatzea?

Lehenengo umea Pilili,
 bigarrena Margari,
 hirugarrena Sobrari.

Eta guzti hau non dago, liburuetan eta jendearen ahotan ez-
 ezik?

**Bederatzigarren ukazioa, zortzigarrenari giltzatua, zazpi-
 garrenari gehiagotua, seigarrenari estekatua, bostgarre-
 nari korapilatua, laugarrenari heldua, hirugarrenari eran-
 tsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:**

- Kaixo!
- Ez nago gaixo!

Liburuak eta herriaren ahoa aipatu ditugu. Hona hemen, bederatzigarren ukaziotik non jendearen ahoa bide gisa eskaintzen den, non honetara helduak belarria ipini beharko duen, non belarria ipintzeko gozamenerako prestatu beharko duen, non eskola linguistikoki eta literarioki herritik gertu egoteko bide bakarrenetako den.

Bederatzigarren ukazioak bait dakar itxaropen-pixka bat arretetik beltzez margotu ditugun egoeretara. *Ez nago gaixo!* dio erantzunak: hizkuntza bera ez dago, neurri batean, gaixo; hiztun asko eta asko, irakaskuntzara emanak gauden asko eta asko gaude gaixo. Sentsibilitate-faltaz, agian. Hortzak zorrotzu bai, baina ahorik ez dugulako beharbada. Dena bost axola zaigulako akaso.

Nik frantsesa apenas dakidalako, ez da hortik frantsesa gaixo dagoenik segitzen. Aitortu behar dudalarik oraindik ere nere aitak nik baino askoz ere hobeto hitz egiten duela euskaraz. Eta ez du paradigma hitza inoiz bere bizitzan entzun.

Azken mohikano linguistikoaren garaia ez da heldu oraindik, eta ez al da helduko! Eta bitartean hizkuntzak, hasiera batean aipaturiko globo orokor horretan, bere birtualitate guztiak ditu bere baitan bildurik eta gorderik. Altxor izugarria dago gordelekuan barna. Anbizio-pittin batez altxor-zale bilakatuko bagina, abentura zoragarria korrituko genuke belarriak luzatze soilaz. Eta abenturatik garaile irteteko garantia osoz, gainera.

Hamargarren ukazioa, bederatzigarrenari itsatsia, zortzigarrenari giltzatua, zazpigarrenari gehiagotua, seigarrenari estekatua, bostgarrenari korapilatua, laugarrenari heldua, hirugarrenari erantsia, bigarrenari atxekia, lehenbizikoari lotua letorkeena:

San Juan dela, San Juan,
bihar dela Doniane,
etzi San Juan biharamune,
gure soroan lapurrik ez.

Tradizioa, tradizio hori biltzen duten liburuak, gure euskal irakaskuntzaren patriarka izan beharko luketen Azkue, Barandiaran, Lekuona, Salaberri, Antonio Zavala...

Gure soroan lapurrik gerta ez dadin, zakur zaintzaile apartak ditugu soro-ertzetan.

Eta beude, honez gero eta gaurkoz, horrelaxe gure hamar ukazioak.

— Bi baiezpen falta zaizkik lehen agindu duanaren arabera!
Gainera, euskalduna hitzeko gizona duk!

Haserre-bidetan egon zintezkeen entzule pazientiatsu horri esan behar dizut, azken bi ukazioak bi baiezpen bihurtu zaizkidala, herri-erabilera eta haur-literatura tradizionala ezinbesteko materialea dugula eskoletan, eta, modu horretan, globoa aiseago kabituko zaigula eskolan.

A. L.

Mahaingurua

Haur eta gazteen literatura argitaratzailearen ikuspegitik

Iñaki Zubeldia

Tradizio-falta euskal haur-literaturan

Euskaldunok literatura idatzian (orokorki hartuta) tradizio handirik ez badugu, haur-literaturan are gutxiago oraindik. Arrazoiak era askotakoak izan daitezke eta horien artean batzuk aipatuko ditugu:

a) Erreakzioak eragindako korrontea

Ikastolen mugimenduaren sorrera arte (1960) irakaskuntza erdaraz zen, erdara nagusitzen ari zen arlo guztietan —administrazioan, komunikabideetan, etab.— eta erantzun bezala korronte euskaltzale oldartsu bat sortu zen: ikastolak, abeslari euskaldunak, antzerkiak euskaraz, euskal prentsaren suspertzea —*Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*—, euskal izenak haurrei ezartzea... Erreakzio bezala, erdararekin zerikusia duena edo erdal kutsua duen guztia baztertu eta zokoratu egiten da ahal den neurrian. Ordainez gure

hizkuntza, nortasuna, ohiturak, abestiak, ipuin herrikoiak, mitologia... suspertzen dira. Gure arbasoen iturrietan euskararen eta euskal arnasaren ur garbia edan nahi da. Honen eraginez, haurrengana iristen den lehen literatura, ahozko literatura da eskolaurreko geletan: lamiak, sorginak, jentilak, Tartalo, Mari, basajaunak, ipuin herrikoiak (miresgarriak, mitologikoak, fabulak). Iturriak: Azkue, Kirikiño, Joxe Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, J. M. Sarustegi eta herriko zenbait jende xehe, altxor agortezina bere arbasoengandik ahoz-ahoz jaso eta gureganaino transmititu duena.

Munduko ipuin klasikoak ere euskaratzen dira: Txano Gorri-txo, Katu Botaduna, Errauskiñe, Edurne Zuri, Hansel eta Gretel, etc.

Baina gainerakoan oskol bezalako bat ipintzen da garai honetan, kanpoko eta batez ere erdaratiko literaturaren kutsuak uki ez gaitzan. Honen beharbada euskal literatura eta, prezeskiago, haur-literatura frenatu egin du neurri batean.

Gero, haurrak handitzen doazen eran, konturatzen gara, 9-10-11-12 urterekin irakurtzeko ezer gutxi daukatela, haur txikien ipuin-aroa pasa bait zaie, eta daukaten apur hori askotan oso lehorra edo interes gutxikoa dela eta erdarara erraz jotzen dutela irakurketa atsegin eta gustagarrien bila.

Garbi ikusten da Enid Blyton, Salgari, Julio Verne, Stevenson, Rudyard Kipling, Rodari eta beste hainbatek duten eragina eta, haurrek euskaraz irakurtzea nahi badugu, autore horien liburuak euskaratu beharra dagoela.

b) Idazlearentzat haur-literatura ez da erakargarria ez erraza

Ez da erakargarri, osperik ematen ez duelako; haur-literatura bigarren mailako jenero bezala jo izan du zenbaitek; saririk ere ez da antolatzen haur-literatura indartzeko (bi salbuespen: Zarauzko "Lizardi Saria" ipuinrentzat bakarrik, ez liburuentzat eta adinik zehaztu gabe, eta "Baporea Saria", S. M. argitaletxeak aurtan lehenengo aldiz eratu duena).

Ez da erraza, haurren psikologiara eta mundura egokitu behar delako. Irakurketaren prozesua hasten duenetik gazte bihurtu arte, haurrak aro oso ezberdinak igarotzen ditu. Beraz, oso zaila da 6-7 urteko haurrentzat idatzitako lan bat 10-11 urteko haurrentzat

interesgarri izatea, edo alderantziz. Idazten duzun hori, adin bat kontutuan edukiz, hizkuntz maila neurtuz, gustagarri izateko aha-
leginak eginez idatzi behar duzu eta nolabait mugatu egiten zaitu.

c) Denbora galtzea

Garai batean, kontzeptu abstraktuak eta jakingaiak jorratzen ez zituzten liburuak irakurtzea, denbora galtzea zen gurasoentzat eta maisuentzat. Hortik ez zen ezer probetxuzkorik ikasten eta, gainera, irakurketa gozamen bezala hartzea arriskugarri iruditzen zitzaien.

Guzti honengatik, euskarazko haur-literaturaren tradizioa nahikoa motza dela esan genezake.

Kolonizazio kulturala

Tradizio-falta honek ondorio bat ekarri du gure liburugintzara: *kolonizazio kulturala*, bereziki jatorri anglosaxoiko obren aldetik. Anglosaxoiek haurtzarora gizakion oinarrizko aro bezala hartzen dute, haurrari zor zaion garrantzia eta begirunea eskaintzen diote. Horregatik, haur-literatura, liburu ilustratuak etab. mimatu egin dituzte aspaldidanik eta tradizio aberatsa dute alor honetan.

Haur-literaturari buruzko planteamendua, honelakoa izan zen:

- Haurrentzat liburu berri eta egokiak euskaraz sortzea, adin ezberdinetarako mailakatuak.
- Erdaretatiko libururik politenak eta arrakastatsuenak euskaratzea, euskara erraz eta aberatsean ahal delarik.

Eta gaur egun esan genezake, gure haur-literaturan *itzulpenak* leku handia betetzen duela: % 44, guk argitaratutako liburuetan; eta, koedizioetan, % 98. Beraz, Euskal Herrian sortua % 56 izan-go litzateke guk argitaratutako lanetan eta koedizioetan % 2 bakarrik. Honek esan nahi du, lanak asko inportatzen ditugula, baina esportatu oso gutxi.

Kanpoko obra kontsokratuen itzulpenak egiteko joera honek badu zenbait *abantaila* eta beste zenbait *desabantaila*.

Abantailak:

- ikuspegi zabalagoa lortzea, beste kulturetako ohiturak, folklorea eta bizitzaren ikuspegi ezberdinak ezagutzuz;
- munduko literaturan dauden klasiko ospetsuenak ezagutzera ematea: Salgari, Verne, Rodari, Stevenson, Swift, Kipling, Gosciny, Maria Gripe, etab.

Desabantailak:

- gure literatura gutxiago promozionatzeko arriskua;
- kanpoko pertsonaia eta narrazioetara ohitzea eta hemen-goak arrotz eta estrainio gertatzea geurontzat ere;
- bertan sortzen dena gutxiestea kanpoko liluraren (egiazko edo ametsezkoaren) aurrean, etab.

Egile berriak

Hala eta guztiz ere aitortu behar da, gure haur-literaturan *sorkuntza* gehituz doala eta *egile berriak* pixkana-pixkana ugarituz doazela. Oraindik ezin dugu esan idazle berriak izugarritzko indarrez loratu direnik, landare berriak udaberrian hazi ohi diren sasoi eta joritasunez agertu zaizkigunik; baina itxaropentsu eta baikor begira genezake etorkizuna, gaurko landare hauek lore eta fruitu ugari emango bait dute, gaurko goranzko abiadak erakusten digunez. Dena dela, orain arte haur-literaturan gehien landu diren alorrak honako hauek lirateke:

– *Ipuin motzak*: miresgarriak, mitologikoak, fabulak, herrikoiak, barregarriak (Kirikiño, Felix Bilbao), pertsonaia xelebreak (Pernando Amezketarra, Pernando Plaentxiarra).

– *Narrazio edo relato motz samarrak*: 40-50 orrialde. Relato hauek errealismoaren eta fantasiaren bidetik burutu dira bereziki.

– *Narrazio luzeak*: 120-150 orrialde. Hauek gaztetxoentzako relato luzeak edo nobelak dira, eta honelakoak oso gutxi dauzkagu. Benetan hutsune handia nabari da azken atal honetan, honela-

ko liburuak idazteko sortzailerik ia-ia ez bait dago. Eta 10-14 urteko gaztetxoentzat ezer gutxi daukagu sorkuntza aldetik. Itzulpenak dira hemen garaile. Beraz, haur-literaturako sortzaileei hutsune hau betetzeko idatz dezatela eskatuko genieke.

Haur-literaturako euskal idazle hauetan gehienak irakaskuntzaren mundutik datoz. Hau da, lehenik haurrekin lan egin dute, hutsuneaz ohartu dira, idazteko afizioa ere bazuten, eta, azkenik, idaztera ausartu dira.

Badira handien literatur mundutik haur-literaturara hurbildu direnak ere.

Eta gauza bitxia, bada, ikastolako ikasle izanik edo izanda gero, oso gaztetan, idatzi duen idazlerik ere.

Beste fenomeno berezi bat ere gertatzen da inoiz gure haur-literaturan: egileak euskaraz oso ongi ez dakielako edo oso gutxi dakielako, erdaraz idazten du eta itzultzaile-egokitzaile batekin "tandem" bat osatzen, liburuak bien artean argitaratuz. Gaurko egoera soziologikoa eta orain arteko esperientzia apurra ikusita, hau ere onuragarri gertatzen dela aitor genezake.

Marrazkilarien mundua

Gai hau beste lagun batek ukituko badu ere, bi hitz esan nahi nituzke argialetxearen esperientziatik. Haurrentzako liburuetan izugarrizko garrantzia du ilustrazioak, ilustrazio egokiak. Eta pozik aitortzen dugu Euskal Herrian kalitate handiko ilustratzaileak baditugula, baina gehienak larri ibiltzen dira hortik bakarrik bizitzeko. Eta egoera hau ez da oso erraza izango konpontzen, marrazkilariak berek ez badute arazoa beren bizkar hartzen eta irtenbide posible ezberdinak aurkitzen ez badira saiatzen. Beste gauzatoxoa bat ere badago marrazkilarietako harremanetan, eta *euskararen arazoa* da. Honek ez du kritika gaizto edo atake bat izan nahi, arazo erreal baten egiaztapena baizik. Euskal Herri diglosiko honetako arazo bat da eta zenbait marrazkilari saiatu da euskararen trebatzen, beste batzuk horretarako denborarik hartu ezin duten bitartean.

Euskara ez jakite honek zailtasun eta eragozpen franko sortzen dio argitaratzaileari: askotan liburua erdarara itzulia eman behar

bait zaio marrazkilariari edo itzulpena kasete batean grabatuta. Honek lana bikoiztu eta luzatu egiten du.

Merkatuaren eragina

Argitaratzaileak zer argitaratu behar du? Eskuetara etortzen zaion guztia? Planifikazio bat behar du? Dударik ez dago, nire ustez, haurren premia ezberdinei erantzungo dien planifikazio bat behar duela. Haurren beharrak kriterio batzuen arabera neurtu beharko dira:

- haurren hazkunde psikologikoa
- haurren afizio ezberdinak
- hizkuntzaren ezagutza-maila
- literatur jenero ezberdinak ezagutzeko bideak eskaintzea.

Guzti hau kontutan harturik ere, *merkatuak* bere eragina du eta, neurri batean, bere morrontzara behartzen du argitaletxea.

Saltzen diren liburuak, batez ere hauek dira:

- haur txikien ipuin ilustratu merke, solteak (*Txano Gorri-txo, Errauskine, ...*)
- ipuin ilustratu garestien eta dotore aurkeztuen kolekzioak
- kolekzioetan ateratzen diren gaztetxoan liburuak, nahiz eta zuri-beltzean izan; liburu solteak, bakartiak, kolekzioetik kanpo ateratakoak ez dira saltzen, gure ustez oso onak izan arren.

Hutsunerik nabarietak

Olerkigintza oso gutxi landu da haurrentzat (*Izar begietan*, 1975, Elgoibarko ikastolako haurrek egin eta *Zipristin 2* liburuak zerbait). Testu-liburuetan haurrentzat egokiak izan daitezkeen olerkien aukera nahikoa zabala ematen da.

Antzerkia edo *drama* haur-literaturako ahizpa pobrea dela uste dut. Zerbait egon arren, gehiago beharko lirateke oraindik.

Tebeoa eta *komikia* ere gutxi landu da orain arte (batez ere *Ipurbeltz*, eta gero *Kili-Kili*, *Tintin*, *Asterix*, etab.).

Hutsunerik handiena, hala ere, gazteen literaturan dago: nobela, abentura, relato, ipuin luze, narrazio, historia nobelizatu etab.en falta.

Haur-literaturan pedagogismorik bai/ez?

Euskara hizkuntza zapaldua eta marjinetua izatean, ez dugu ezer egiten helburu ideal, garbi bati atxekita egonik. Haur-literatura gozatzeko omen da, literatura omen da, artea; beraz, *pedagogismo*-kutsu guztiak arbuigarriak omen dira. Bai, baina ez. Behar bada, teorian eta hizkuntza normalizatu, osatu, aberats eta oso erabiliaren kasuan, tesi baliagarria izan daiteke hori, baina gurea bezalako hizkuntza pobre, normalizatu gabe batean, lehenengo helburua hizkuntza bera ongi asimilatzea eta erabiltzea da eta gero hizkuntza horretan bertan haurrei gozaraztea.

Horregatik, zenbait liburutan *pedagogismo* hau nabari da. Baina euskararen egoera ikusita, joera iragankor edo trantsitorio bezala onartu beharra dago; are gehiago, gaur-gaurkoz beharrezkoa dela esango nuke. Bestela zer irakurriko dute B ereduari ari diren haurrek edo euskara elemental eta murriztu bat bakarrik ulertzeko gai direnek?

Hala ere, ezin ukatu hor hutsune handia dagoela oraindik bete gabe, eta gabezia beltza nabari dutela haur euskaldunberriekin lan egiten duten irakasleek.

I. Z.

Mahaingurua

Haur eta gaztetxoentzako literaturgintza

Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"

Zer esan haur eta gaztetxoentzako literaturgintzaz? Asko esan daitekeela dirudi. Hor joan dira hiru hitzaldi aurreko egunetan, eta hemen dugu gaurko mahaingurua ere. Beraz, gauza asko esan zitekeen eta asko esana egongo da, gainera. Horregatik, beharbada, errepikatze hutsa izan daiteke orain agertuko dudana, baina idazle bezala nere ikuspuntua azaltzeko eskatu zidaten, eta horretan saiatuko naiz.

Gauzak nolabait antolatu nahian, bost puntu hartu ditut:

- Literatur mota hau kokatzeko eta mugatzeko zailtasunak.
- Adina eta funtzioari begiratu, nola bana.
- Haur-literatura Euskal Herrian.
- Idazleak nondik sortu dira? Honek adieraz dezakeena.
- Idazleen elkartzeko eta organizatzeaz.

* * *

Gaztetxoentzat eta batez ere haurrentzat egiten den literatura non koka Literatura (horrela, maiuskularekin) delakoaren barruan, ez da gauza erraza. Batzuentzat haur-literatura hori "subjenero"

bat besterik ez litzateke izango. Edo, nahi baduzue, azpijenero bat, eta azpian jartzten hasita, polizi nobela eta abentura-narrazioen azpian jarriko lukete, gainera. Beste batzuek, berriz, izugarritzko errespetuak eman eta punta-puntan jartzten dute: "Haurrentzat idazterakoan, imajinazio askoz ere gehiago jarri behar da, burua asko behartu behar da umeentzat dela jabetu dadin, ..."

Eta bi postura kontrajarri horien artean, beste mila aurki genitzake. Beraz, gehiagotan sartu gabe, bere-berean utziko dugu asuntu hau, eta bakoitzak pentsa dezala nahi duena.

Non koka baino interes gehiagoko arazoa da, nire ustez, nola muga haur-literatura. Eta non bukatzen da haur-literatura eta non hasten gaztetxoena? Eta non bukatzen da hau eta "benetako" literatura hasi? Hau ere ez da arazo erraza. Orokorki hartuta, ez litzateke itxuraz oso zaila, helburua kriteriotzat hartu, eta mugaketa egitea. Esango genuke: "Haur-literatura, haurrei zuzendua dagoena da. Eta berdin gaztetxoena: gaztetxoei zuzendua dagoena", eta kito.

Baina gauza ez da hain erraza. Ez beti behintzat. Norentzat idazten du idazleak? Edo, beste era batera: badira idazleak eta haurrentzako edo gaztetxoentzako idazleak? Haurrentzat idazteko intentziora nabaria izaten al da haur-literaturako idazleengan?

Normalean haurrentzako literatura egiten ari denak badaki eta kontutan hartzen du, gainera, norentzat idazten ari den. Hala ere, puntu hau ere eztabaidatua izan dela esan behar da, eta eztabaidatzeko arrazoiak ere aurki daitezkeela. Esate baterako, hizkuntza gehienetan agertuko zaigu *Alizia* edo *Alizia herrialde harrigarrian* haur-literaturako bildumetan; baina Lewis Carroll-ek liburu hori haurrei zuzendu ote zien? Ez dut uste. Edo *Moby Dick*, beste adibide bat aipatzeko: gaztetxoentzat egindako liburu ote da?

Hemen, noski, beste arazo bat ere badago. Bi liburu horiek ez dira gehienetan "bertsio osoan eta originalean" argitaratzen haur-edo gazte-bildumetan, nolabaiteko moldaera edo adaptaziotan baizik.

Haur-literaturako klasiko askoren kasua da hau; behin baino gehiagotan obra baten umeentzako bertsioa bakarrik ezagutzen dugu. Zertan esanik ez dago, zenbaitetan obrak ikaragarri galtzen duela horrekin. Walt Disney batek izugarritzko kaltea egin zion Kipling-en *Oihaneko liburu*a-ri bere filme famatua burutu zutenean eta, batez ere, amerikarren industriak eta propagandak haur-

-literaturaren barnean, eta bete-betean, Disney-ren bertsiio akaramelatua sartu zigutenean nahitaezean.

Azterketa sakonagoa behar duen arazoa izan daiteke adaptazioena; baina gera bedi hor oraingoz, gero eztabaidatu nahi bada ere.

Horiek guztiak horrela direla, haurrentzat idazten ari denak, normalean behintzat, arau batzuk betetzen dituela esan dezakegu (edo haurrentzat argitaratzen diren liburu edo bildumek argia ikus dezaten, baldintza batzuk bete behar dituztela, nahi bada), eta gaur egun baldintza edo arau horiek markatzen dutela zer den edo nondik dabilen haur-literatura. Zein dira baldintza hauek? Ez da erraza zehatz-mehatz esatea, baina hiru behintzat marka daitezke:

- Gai egokia: halako adin edo bildumatarako egokia, eta honetan badira klitxe eta modak, nahikoa finkatuak.
- Estilo arina: gehienetan lineala eta floritura gutxikoa; irakurtzen erraza izatea, lege bihurtu da haur-literaturan.
- Hizkuntz maila: adinari dagokiona; honek badu istilu franko, noski, ez bait da erraza hori markatzea.

Irakurketarako zaletasuna noiz eta nola sortzen den jakitea, gauza oso interesgarria izango litzateke. Nik ez dut datu zehatzik, baina uste dut beldurrik gabe esan daitekeela txiki-txikitatik sortzen dela zaletasun hori, eta gerorako garrantzi handia duela haurtzaroan egiten den irakurketaren ikaste-, trebatze- eta gozatzeprozesa.

Nola sortzen da irakurketarako zaletasuna? Beste asko ere hor izango dira, agian, baina hona hiru eragile: etxekoan irakurtzeko ohitura; eskolan irakurketari ematen zaion leku eta garrantzia; irakurgaien atsegin- eta erakargarritasuna.

Lehenengoan ez dute idazleek zer esanik, aholkuren bat ematea ez bada behintzat. Bigarrenean irakasleak du hitza, eta irakurketa egoki baten bila edo, zenbait irakasle idazten hasi da/ginen Euskal Herrian. Dena dela, hirugarren puntua, eta ez aurrekoak, dagokio idazleari.

* * *

Jo dezagun badugula haur-literaturan idazle berri bat. Zer da mundu horretan aurkitzen duena? Norentzat eta nola idatz? Adi-

nari begiraturaz eta batez ere irakurketak duen funtzioari begiraturaz, hiru eremu zabaltzen zaizkio idazleari:

— Irakurtzen ikasteko liburuak, zazpi edo zortzi urte arterainokoentzakoak. Izugarritzko karga pedagogikoa dute eta marrazki asko, kolore ugari eta paper berezia edo kartoia eta horrelako berezitasunak direlarik bitarteko, erabat apartekoa den liburugintza osatzen dute. Ahozko literaturan erabili diren zenbait jolas, asma-kizun, esaera, etab. modu egokiz aplika daitezke irakurketaren ikaste-prozesu honetan.

— Irakurketan trebatzeko liburuak. Kasu honetan zailagoa da adina markatzea: zortzi bat urtetik hasi eta hamabi/hamalauerakoa dela esan dezakegu. Tradizioz ipuin fantastikoak eta folklorikoak izan dira eremu honetan jaun eta jabe; gaur egun ere asko eta asko linea horretako ipuinak dira. Hala ere, Rodari-ren itzalak eta errealismo fantastiko edo delakoak leku hartu dute azkenaldi honetan. Irakurketan trebatze-prozesu honetan, garrantzi handia du haurrak gaia eta hizkuntz maila erraz eta atsegintzat hartzeak.

— Irakurketa gozatzeko liburuak. Bigarren atalean txertatzen da, eta batak ez du bestea ukatzen. Irakurketa espontaneoki egiten hasten da haurra. Fantasia, abenturak, errealismoa (pertsonea gaztetxoekin), haur-literaturako klasikoak eta gaztetxoentzako abentura, bidaia, etab., sartzen dira atal honetan.

Idazle-gaiak, hau dena kontutan edukitzeaz aparte, jakin beharko du gehienetan liburuak bildumatan sailkatu egon ohi direla eta nolabait bilduma horietako liburuek dituzten neurri, estilo eta joeretara makurtu beharko duela.

* * *

Euskal Herrian idazle, eta haur edo gaztetxoentzat idazle izan nahian dabilenak nola dauka gauza?, nola daude lehen aipatutako hiru atal horiek? Zer eta norentzat idazten hastea luke egokiago?

Irakurketa ikasteko liburu asko argitaratu da azkenaldi honetan, baina gehienak itzulpenak edo koprodukzioak dira (diru-kontua); eta, lehen esan dudana bezala, oso mundu polita izan daiteke hau ahozko literaturako esaera, jolas, asmakizun eta aho-korapiloak lantzeko.

Irakurketan trebatzeko liburuek *boom* bat izan dute azkenaldi honetan (atal honek, hain zuzen, eta ez euskal haur-literaturak).

Dena dela, bada euskararen egoerak sortzen duen arazo bat: gaiaren eta hizkuntz mailaren artean sor daitekeen desfasea. Alde batetik, gaia errespetatu eta hizkuntz maila jaisteak idatzitakoaren kalitate beheratu egiten du. Beste alde batetik, hizkuntz maila mantentzen bada, gerta daiteke haurrak irakurri behar duen hori gaiaren aldetik desegokia izatea. Esate baterako, ezin zaio hamabost urteko gaztetxo bati ipuin zozo bat eskaini, berak duen hizkuntz mailari dagokiola eta.

3. atalean dago, nire ustez, euskal literaturgintzako hutsune nabarmenetako bat. Ez dugu tradizioirik, eta ez dago produkzioirik. Gaztetxoentzat ez dago liburu egokirik: Hamahiru/hamasei urte bitarteko gaztetxoek ez dute zer irakurrik euskaraz.

Eta zergatik ez da produzitzen? Idazlerik ez dago ala?

Era honetako liburu bat sortzeak ipuin bat egiteak eskatzen duen baino esfortzu askoz handiagoa eskatzen du; dedikazioa behar-beharrezkoa da. Orokorki hartuta, horrelako lan bat ez da berez, laguntzarik gabe sortzen, eta laguntza hori nonbaitetik etortzen ez den bitartean, oso zaila izango da zulo hori estaltzea. Nork eman behar duen laguntza hori? Aipatuko nituzke nik interesa eduki beharko luketen zenbait erakunde: Ikastolen federakuntza, esate baterako, edo diputazioak, gobernua, argitaletxeak,...

Nik dakidala, ez dago Euskal Herrian inor haur-literatura idaztetik bizi denik. Hau ez da harritzekoa, noski, baina datu bat da. Beraz, esan dezakegu egiten den guztia amateur-mailan egiten dela, honek dakarren guztiarekin.

Nortzuk dira haur-literatura idazten duten horiek? Alde batetik baditugu "idazleak", beste eremu batzuetan aritzen diren idazleak, eta haur-literatura ere egiten dutenak. Hauetako askok erlazio estua dute irakaskuntzaren munduarekin. Beste batzuk, berriz, erabat loturik egongo dira; irakasle-idazleak izango dira.

Nahitaez, kutsu berezia ematen dio honek idatzitakoari. Hizkuntzaren irakaskuntzari zuzendutako produkzioa izango da askotan haur-literatura hau, edo behintzat halako ukitu batekin.

Irakasle-idazleak hobeto ezagutuko du haurren mundua; baina, bestalde, nolabaiteko kutsu pedagogikoa izango du bere lanak. Hau ez da ahaztu behar.

Egin dezakegun beste galdera bat, da: nondik dator eskaera? Nortzuk kontsumitzen dute liburu-mota hau?

Pentsa dezagun eskola eta ikastolak, batipat, direla kontsumitzaileak. Hala al da benetan? Euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituen zenbaitek begi onez ikusten eta irakurtzen ote ditu? Hori horrela balitz, beste zenbait planteamendu ere egin beharko genuke; baina hori dena hemendik kanpo geratzen da.

* * *

Haur-literatur mundu honen inguruan dabilen jendearen organizatze eta elkartzeaz zerbait esan nahi nuke, bukatzeko. Edozein bileratan jendea elkartzea gero eta zailagoa dela jakinik, haur-literaturaren inguruan mugitzen garenok desberdinak izan behar dugula pentsatzea eta hori gauza erraztat jotzea, inozokeria iruditzen zait; baina elkartu beharko genukeela ere badakit. Eta zertarako bil?

Idazleok badugu egindakoaren balorazio bat jaso beharra. Ez dut uste behar bezala kritikatzten denik haur-literatura. Gehiago esango nuke: ez dago kritikarik. Halako aldizkariren batean erreferentzia labur bat, horrelakorik bada, eta kito.

Aldizkari bat osatzea ere, zertu daitekeen ametsa izan daitekeelakoan nago. Hor jaso daitezke kritikak, irakasleek bertan izango luteke argitara-berrien albiste, argitaletxeek iragarleku aproposa, edonork mundu horretan gertatzen denaren berri, etab. Interesaturik egon beharko lukete idazleek, irakasleek, eskola eta ikastole-tako erakundeek, argitaletxeek eta estamentu publikoek.

J. M. O.

Mahaingurua

Marrazkilariaren abentura

Antton Olariaga

Bazen behin halako marrazkilari bat, rotuladoreak, lapitzak, goma, tintak eta pintzelak besapean hartu ondoren, letren basora abiatu zena.

Nahiz eta lehenbiziko maiuskula erraldoiak ederki asko izutu, ez zuen atzera egin, eta, tartetxo bat probetxatuz, puntu borobil baten gainean hartu zuen atsedean.

Halaxe hasi zen marrazkilariaren abentura.

* * *

Bostgarren karta, idazle batena

Hala ere ez da harritzekoa, hasierako gure marrazkilari hura puntu borobil haren gainean etzan zenean, ez dela harritzekoa diot, seko lo geratzea.

Gabon.

* * *

Mister editore jauna, agur t'erdi eta kaixo:

Agindu bezala, hemen dihoazkizu eskatutako marrazkiak. Ahalik eta mustrarik zabalena bidaltzen saiatu naiz, nahiz eta, kalitatearen aldetik, fotokopiatu ditudanak eskas samarrak izan.

Formato desberdinetakoak ikusiko dituzu. Baita teknika desberdinekin eginak ere: handienak, guatxe eta tintaz; txikienak, hori-hori eginda dauden horiek (aspaldikoak bait dira), akuarelaz.

Estilo-aldaketa handi samarra dagoela, zer esanik ez. Posibilitate eta aukera desberdinak ikusteko eta aztertzeko, hain zuzen.

Dena dela, proba konkretu bat egitea gustatuko litzaidake. Hor sobran izango duzuen ipuintxo bat, adibidez, bidaliko bazenidate, bai ongi, editore jauna! Ondoren, mahai gainean jarritako gauza konkretu batez hitz egiteko aukera izango genuke eta.

Posible balitz, abentura polit bat, klasiko horietakoa... Gauzarik errazena hori litzatekeelakoan nago. Dakizunez, ez bait dut inongo editorialekin gaur arte harremanak izateko posibilitaterik izan. Bai, hiru erakusketa dezente egin ditut —bi figuratibo eta bat abstraktuarena—, baina honako hau desberdina izango delakoan nago.

A! Ia ahaztu egin dut. Datorren hilean, oporrak direla eta, kanpoan izango naizenez gero, ipuina irailaren lehendabiziko astean bidaltzea eskertuko nizuke. Publizitate-lan bat amaitu bezain laster zurearekin sartuko nintzateke *a sacco*.

Uda ona pasa dezazuela.

Barka atrebentziarengatik.

* * *

Kaixo, Picasso:

Zure telefonoaren zenbakiaren atzetik bi egun ibili ondoren, sekretariak "ez du telefonorik" esan didanean, makinan jarri naiz, nahiz eta iraileko bigarren astean sartuak izan.

Marrazkiak gure esperto-taldearen eskutan utzi ditut, eta, beren txostena jaso ondoren, azkar bezain laster bidaltzen dizut ipuintxo hau. Ahalik eta azkarren ilustratzeko, noski. Denbora bait da, beti bezala, gure etsairik amorratuena.

Ipuina "Saltxitxa" sailerako da (hor bidaltzen dizut pare bat ale) eta estilo honetan argitaratuko dugu. Dena dela, jasotako marrazkiak ikusiz, begira espertoen azterketak dioena.

Zure marrazkiei irakurgaitasuna falta zaic. Haurrak argi eta garbi jakin behar bait du zertaz doan roiloa. Testua behin eta berriaz irakurri ondoren, ikusmira pertsonal batetik enfokatu behar duzu. Baina inoiz, inola, inondik ere ez haurra imitatu marrazki-estiloan. Bere kuriositatea sortu, esnatu behar duzu (talde-dinamikaren posibilitatea zabalik utziz). Haurrak, zure marrazkien bidez, ingurua hobeto ulertzera heldu behar du. Zure lana komunikabide bihurtuko bait da. Zubi eta trenbide. Medio teknikoen aldetik, egokiena erabili (nahiz eta oraingo hau zuri-beltzez egin behar duzun: presupostu-kontua). Ez sorpresa baztertu, mesedez.

Hortik aparte, askatasun osoz joka.

Irudimena zure eskuetara pasa.

Eta betikoa: denboraren eta inprentaren menpe gaudenez gero, ea datorren asterako sorpresatxoa ematen diguzun.

* * *

Kaixo, artista:

Asmatu duk. Noski harritu nintzela hire marrazkiak editorialera bidali aurretik jaso nituenean. Ipuina nahikoa polita duk, testu aldetik. Bazeukak bere enkanto literarioa inkluso. Baina marrazkiarena, beste kontu bat duk.

Esaten duan bezala, hamar urtez ikastolan klaseak ematen ibili izanak zerbait esateko deretxoa ematen zidak.

Hi, ipuinak haurrentzat direla. Eta haurra animalia sentsiblea duk. Hor zegok koxka. Hire irudiek sentsibilitateari zuzenduak joan behar diate; gehiago oraindik, bere mundu inkontzienteari zuzenduak. Mundu horretan bait dago aberastasun, fantasia, gozatzeta eta disfrute guztia. Inkontzientean. Hizkuntza —marrazkiaren hizkuntza— dominatzen duenean, haurrari plazerraren atea zabalduko zaiok. Hire marrazkiak apaingarri hutsak dituk. Eta ez. Ez dela hori. Barne-mezua —istorioarena— harrapatzen ez duan bitartean, jai, txikito. Marrazkia konplementarioa bai, baina adorno dotorea ez. Hortik etorriko zaiok pertsuasio-indar guztia eta.

Liburu barruan, haurrak jolas bezala hartzen duen liburu horretan, istorio bakarra zegok. Bakarra. Esanak eta erakutsiak osatzen dutena. Esanak eta erakutsiak.

Nori kontatzen dioan istorio bisuala pentsatzen al duk, txikito? Ze urte dizkik hire irakurleak? Bederatziren bat? Jubilatua duk? Eta beste gauza: denbora irudietan. Testuan ederki asko zegok neurtua. Eta hi zer? kamara lentan?

Dena txarra ez duk izango, eta aitortu behar diat zuri-beltzez lortutako efektuak, sakontasuna eta formen aberastasuna bikainak direla. Hire publizitate-urteak nabari dituk.

Barka roiloa, baina aukera hik eman didak.

Deitu betiko telefonora datorren asteburuan.

Ez adiorik, ikimilikiliklik.

Joxe

P.D.

Haurrak, adin horretan, zergatik? eta nola? galdetzen dik. Hik, gutxienez, galdera hauei erantzun. Edo berdinak bueltatu. Hire lana esportablea duk, baina gaur egun Alemanian kontorno-linea erabat baztertutik zegok, eta karikatura-estiloa (nahiz eta antipedagogikoa izan) modan jarri duk. Entera hadi.

* * *

Mister editore jauna:

Gabonetarako kaleratzea posible izan ez denez,... patxada gehiagorekin hartu dut lana eta beste marrazki hauek bidaltzea erabaki dut, egokiak izango direlakoan.

Argi ikusi dut jugada. Kosta zait, egia esan. Hainbeste denbora pasa dut ipuin barruan sartu eta atera ezinik. Testuan dago klabea. Baina beldur naiz ez ote naizen testuaren pedagogo, psikologo eta pediatria bihurtu. Beste hitz batzutan: marrazkilari testologo, testogogo, testiatria eta abar bihurtu.

Baina lana itxurosoa delakoan nago. Ez dut espertorik ondoan, baina intuizioz, irudimenez eta jolastuz (dibertituz) lan egiten saiatu naiz. Ze arraio!

Dena dela, badirudi inor ez dela problema txiki batetaz jabe-tzen. Beharbada publizitate- eta diseinu-mundutik datorren obse-sioa izango da, baina... zera: maketagitza.

Testuaren eta irudiaren dibortzio ezkondua eta guzti hori ongi dago, baina begia, begia da. Pertzepzio bisuala, ez al duzu uste aurretik eta lehendabizi doan asunto bat dela? Begia segituan kon-turatzen bait da liburu barruko elementuen banaketaz. Masa eta zuriguneetatik hasi eta letra-tipo eta koloreen garbitasunarekin ja-rraituz. Oreka bai, baina. Baita hutsuneena ere.

Diseinu on batek zer? Nork? Nola?

Irakurketa (testuarena) klabea da. Baina marrazkiak ere iraku-ri egiten dira. Eta mezuak ordenatu, eta txukun ordenatu behar dira.

Merezi duela uste dut, nahiz eta tirada hain eskasa izan.

Por zierto: tirada dela eta, zer da idazlearekin banatu behar dudana ehuneko hamar hori? Diruaz ez dugu gehiegi hitz egin, baina aurreko gutunean aipatzen zenuen kontratuarena, tratatu behar dugu horra joaten naizenean (Ez dakit noiz, ez bait dut kotxerik).

Hortaz, erantzunaren zain nauzu.

Merezi duen abenturan sartu garela uste dut.

Ez adio.

Zer erremedio

eta abar...

A. O.

Mahaingurua

Eskolak haurra irakurtzaletu?

Mikel Elustondo

Oraindik orain Jiménez de Aberásturik eskribitu duena dakarkizuet gogora¹, zuetako asko jakinaren gainean zaudetela jakinagatik ere; alegia, gaur egun populazioaren % 60ak ez duela letzeko ohituratik batera.

Datu zehatzagoak dira 1979-80 ikastaroari dagozkionak²:

Populazio arrunta:

Egunero letzen duela dio	% 18,2
Astean egun batzutan letzen du	% 11,2
Astean behin.....	% 7,0
Ez du inoiz letzen esaterako	% 30,3
Ez du inoiz letzen	% 33,3

Haur eta gazteak (ikasketa-liburu eta antzekoetatik at)

Egunero	% 11,2
Astean batzutan	% 27,5
Astean behin.....	% 20,3
Ez du inoiz letzen esaterako	% 41

Emaitzak desberdinak dira, beraz. Nabarmena da oso, gehiago letzen dutela haur eta gazteek helduek baino. Gainera, inoiz ere letzen ez dutenak gehiago dira helduetan, haur eta gazteen artean baino. Aitzitik, gehiago dira entrebitartean dauden haur eta gazteak, hots, irakurle eta ez-irakurleen artean ezbaian daudenak (astean behingoak ditut gogoan).

Inkestek, honako hau ere aditzera eman digute: eduki, liburu gehiago dauzkatela helduek haur eta gazteek baino³. Jakina, sosak ere helduak erabili ohi ditu; gazteak nekez du liburua erosteko adina, are gutxiago haurrak.

Eta nola bizi dira gure ingurukoak? Zenbat letzen dute? Asko ala gutxi da letzen duguna?

Gure Estatuan % 60a da ezer letzen ez duena. Halaxe esan dugu arestian, Jiménez de Aberásturiren arabera. Bestela emango dugu orain xehetasun hori: Estatuan % 36ak dauka bere burua irakurletzat; Alemaniako Errepublika Federalean % 74a da egoera horretan, Holandan % 71, Frantzia % 57a, Britainia Haundian % 55a eta Italian % 48a⁴.

Badago alderik horratik! Gure artean gutxi letzen da. Horixe hartu beharko genuke abiapuntutzat, hortxe bait datza gakoa. Beraz, irakurtzaletzea beste erremediorik ez dago.

Irakurtzaletasuna piztu. Piztu? Nola ekin eta nondik hasi? Erantzuten saiatuko garen galderak.

Hasi, eskolumeengandik has gaitzke (helduak ahaztu ez, baina haurrak lehenengo baizik). Zergatik? Bada, haurtzaro eta gaztaroan bereganatu ohi dituelako gizakumeak bizitza osorako gerta litezkeen usadio eta ohiturak. Haur eta gaztearenganaino iristea errazago bide delako. Eskola-giroan akuilari aparta dugulako: irakaslea, alegia. Eta bestegatik, akaso.

Haurrek irakurmena menperatzen duten garai horretantxe ekin behar genioke irakurtzaletzeko bideari; hortaz, sei-zazpi bat urte bete ondorendik. Eskolan ikasten dute letzen haurrek, eta badirudi bertan ohitu behar dutela letzen, andereñoaren laguntzarekin, jakina. Dena dela, norberaren etxeak lantegi honetan zirikatu behar lukeela dirudit, nork berea duen etxe-giroak garrantzi handia bait du edozertan ere eta baita irakurtzaletasuna pizteko sasoian ere: liburu egokiak eta giroa duen etxean, haur irakurleak ere errazago izango ditugu; arago, ia-ia matematikoa da, gurasoek letzen baldin badute, haurrek ere letzea.

Gela-barruko irakurketa kontsideratu nahi badugu, on izango da zein irakurketaz dihardugun erabakitzea. Adieraztea behinik behin. Eta testuetarik, ikasketa-liburuetarik eta antzekoetarik at egiten den irakurketa hartuko dugu aintzakotzat. Ez, beraz, andereño nahiz irakasle askok aipatu didatena: "buruketak letzerakoan eta, matematika-ariketak egiterakoan eta, hizkuntz ariketak betetzekoan eta... Bai, letzen dute". Bista-bistan dago ez dela hori orain eta hemengo gaia.

Literatur liburuaren irakurketaz ari gara, irakurketa libreaz, propio letzeko garaiaz. Bego hau garbi! Arestian esan dugunez, haurriaren eskolan erakusten zaio letzen (dena dela, erakusten zaio eta ikasten du), eskolaurrean irakurketa eta idazketari dagokion hainbat aktibitate betez; eta OHOk lehen urtearen akaberan letrak ezagutzera iritsi ohi da, eta letzen badakiela esan ohi dugu (artearen ulerpen-mailan gorabehera handiak baldin badaude ere). Heziera Orokorrean bertan utziko dio letzeari seguru: letrak ezagutzen ikasteko, eta, hortaz, letzen ikasteko, testu goxo eta politikaz azaldu zaizkiolarik, gero, ikasi orduko, derrigorrezko testu aspergarri nahiz bihurriak letu beharrean aurkitzen delako. Ondorioz, azkenerako, neska-mutil koskortuak ez du letu nahi: ez libururik, ez komikirik, ez fotonobelarik, ez ezer.

Horrelaxe gertatzen da % 41ean. Eta horrelaxe gertatzen da, gizartearen eta familiaren maila ekonomiko eta soziala hala-moduzkoa datekeelako. Horrelaxe gertatzen da, herri sobera-aiptuaren kultur maila murrizta delako. Horrelaxe gertatzen da, gure gobernariak nahiago dutelako defentsa, misil eta neutroietan jostatu. Eta ez da hori berrikeria ari naizen honen hautu kaxkarra, ez⁵. Baina dagoeneko politikak kulturalaz mintzatu beharko genuke.

Eskolan letzen ikasi arren, gerora ez dugu letzen, ez gara horretaz baliatzen: ez-irakurle bihurtu ohi gara.

Irakurketak, eta batez ere estreinako urteetan, giro goxoa behar du. Familiak arduratu behar du horretaz. Hala eta guztiz ere, etxegiroak laguntzen ez duenean, are gogotikago saiatu beharko du eskolak su hori pizten lehenengo, suspertzen alegia. Irakaslearen lana ezinbestekoa da, dela letzeari buruzko oharrak emanez, dela liburu berriak erakutsiz, letu nahi den liburuaren inguruko ekin-tzak antolatuz, jolas eta ariketak⁶, eta letzeko tirria hori bizi ez dutenei igarri eta antzemanaz, plangintza zehatzak eskaintzeko, segidan: eman dezagun, liburu interesgarri eta bizienak eskuetan jarritz, errazagoak, komikiak, etab.

Irakasleen lan koordinatu eta bateratuak derrigorrezkoa dirudi. Behin, halakoren batean, bata egindakoa besteak indar dezan eta ez alferrik galtzen laga. Liburu berriak ere erakutsi beharko dira, argitarapen berriak seguru... Talde-lana, duda-izpirik gabe.

Irakasle eta andereñoek, beraz, Hasiera-Zikloan hasi eta Goi-Zikloraino, irakurtzaletze-prozesuaz arduratu behar dutenez, ahalegindu beharko dute honakootan:

1. Ordutegian barrena, irakurketa librearen garaia seinalatu zenbait alditan, ikasle guztiek haien eskura lagatako liburuetatik letu dezaten. Berdin dio beren liburuak izan, eskolarenak, mailarenak.
2. Gelak liburuen txokoa izan dezan saiatu. Liburuak agirian daudela, eta, hobeto, haurrak atsegina duen liburua etxera eramateko modua izan dezan. Ikasgelak horrelakorik ez badu, mailak behinik behin. Leherrenak jo behar badira ere, lortu.
3. Esperientzien berri eman elkarri, dela gelaz-gela, mailaz-maila edo zikloz-ziklo. Nahiz hiruhilero, nahiz hilero edo aldiro.
4. Irakurketa-giroa suspertzeko ekintzak antolatu⁷, ilustrazio-sariketak, umeen lanak jasoko dituen "liburua" osatu, poema, ipuin eta bertso emanaldiak eratu.
5. Egindako esperientziak aztertu, eta, gerora hobetzeko, sistematizatu.

Ez pentsa huskerietan gabiltzanik. Eskolaren xederik nagusia, hauxe izan bait liteke: alegia, ikasleak letzen eta eskribitzen ikastea⁸ (hizkuntzaren pobretzeari ere eutsi asmotan).

Ondorioz, letzeko gogoia piztea bezalakorik ez dago. Suspertu eta eutsi gero. Letzeko zaletasuna, bestalde, ez da sortu ohi irakurtzeko aginduta: "Liburu hauek aurren; horrenbeste ikastaroan zehar; hau eta beste hori Gabonetarako...". Laket izan ezean ez dago: abenturak eskaini, narrazio biziak, fikzioa, mitologia, bertsoak, txisteak, biografiak...

Rodari-k esana omen da: "berez irakurtzen duten haurrak ditugu, batetik, eta eskolarako letzen dutenak, bestetik". Bego horretan.

Berez irakurriko duten haurrak nahi izanez gero, eta luzaro eskolak ezin bete izango duen lana kunplitzeko dugu biblioteka¹⁰. Aproposa benetan.

Gaztetxoa irakurtzaletzeko aukerarik handiena eskolak izanagatik ere, bibliotekak ere badu helburu horretara iristeko bitartekorik. Besterik da honetaz ez baliatzea. Dena dela, ondo antolatuarik beharko du bibliotekak.

1. Egoitza: izan dadila argitsua, epela neguan, alaia, hots: txoko goxoa. Hala-moduzko egoitzak ere irakurtzaletasuna susper lezake, baldin eta liburuak ondradu eskaintzen baditu, aukera handia baldin badu, alegia.
2. Liburua: bibliotekak aukera handia, zabala eta eguneratua eskaini behar du; liburu asko argitaratzen bait da egun, kalitatezkoa izan dadila bibliotekakoa. Gainera, kaleratu ahala jaso dezala liburu berria. Bibliotekako liburu berriztatu egin beharko da aldiro; forratu eta beste. Bi urte baino gehiago oso-osorik irauten duen liburua ez ohi da errentagarria, esan nahi bait du honek ez dela erabilia izan, interesgarria ez zelako, seguru.
3. Arduraduna: estudioak ez-ezik, bere gain dituen liburuak ezagutu beharko ditu; irakurle bada, hobe, eta baita umezalea bada ere. Denen gainetik, pazientzia handikoa beharko du.
4. Antolakuntza-sistema: haurrak liburua atzaparretan erabiltzeko duen beharra kontutan harturik (helduek ere bai, baina tira!), eskura jarri beharko zaizkio liburuak. Hobe nolabait sailkaturik erakusten bazaizkio, adinez nahiz gaien arabera. Supermerkatuetako tranpak egitea ere komeniko da: alegia, liburu berriak apal berezian eman, liburu onenak —produkturik onenak— urrutien laga, etab.

Bibliotekak eta eskolak, eskolak eta bibliotekak, elkarrekin batera jokatu ezinik ez daukate. Ederra litzateke ikastaroaren estreinaldian bibliotekako bidea erakustea, baina ikasgela harainoxe eramanez, eta zein liburu dauden ikusiz, istorio bat edo beste kontatuz, funtzionamendua ikasiz. Are hobeki, eskolaren eta bibliotekaren arteko harremanak sendotzen badira, aldizkako bisita eta kolaborazioak medio: sariketak, liburu-maileguak, proiektzioak⁹.

Haurra nahiz gaztea irakurtzaletzeko moduko ekintza goralgarria izan liteke idazlearen ezagutza egitea (Adibidez, ezagutza ho-

nen ondorioz sor litekeen eskutitz-trukaketak erabat bete lezake gure helburua: haur eta gaztearen irakurtzaletzea). Bibliotekak bideratu beharrekoa dirudi idazlearen ezagutza egite hori.

Ez dago haurra irakurtzaletzeko bitarteko bat bera baztertzerik; hemen azalduak, artikulua nahiz liburuetan aurki zenitzaketenak (nonnahi, gainera), zeuek asmatu inizatiba xume, xoilak,... oro eskergarri ez-zik mesedegarri izango zaiola haurrari nahiz gazteari, ez egin dudarik. Bego, beraz, horretan.

M. E.

1. JIMENEZ DE ABERASTURI, L.M.: "Reflexiones ante el día del libro", in: *Egin*, 86.04.06.

2. PORRAS, G.: "Campañas de promoción de la lectura infantil y juvenil en la escuela", in: *El Libro Español*, 309. zk., 1984eko martxo.

3. Id.

4. RODRIGUEZ DE RIVERA Y MORON, A.: "El libro español ante la C.E.E.", in: *Seer*, 2. zk., 1985eko urria.

5. RINCON, L.: "Sobre política cultural", in: *Hitz irakaskuntza*, 9. zk. MORENO, V.: *El deseo de leer*, Pamiela, Iruñea, 81-84 or. GIL DE SAN VICENTE, I.: "Leer: acto revolucionario", in: *Egin*, 86.04.26.

6. MORENO, V.: aip. lib.

7. Id.

8. BEJAR, M.J.: "El empobrecimiento del lenguaje", in: *El País educación*, 86.04.01.

9. CALVO, B.: "Las bibliotecas infantiles y la afición por la lectura", in: *El Libro Español*, 309. zk., 1984eko martxo.

10. MEES, L.: "Bidaia fantastikoa liburutegietan zehar (I) eta (II)", in: *Habe*. CARRERAS, C. eta beste: *Organización de una biblioteca escolar, popular o infantil*, Ed. Paidós-Rosa Sensat, 1985.

Zure eskutitzari erantzunez

Informazioa euskal haur-literaturaz

Xabier Etxaniz

Gasteizen, 1986ko Irailaren 9an

Agur, Antxon:

Lchenengo eta behin, zorionak alaba berriarengatik. Biziki poztu naiz berria jasotzean. Zer moduz Beñat? Jeloskor al dago? Bada liburu bat gai horretaz, *El príncipe destronado*, Miguel Delibesena, eta anaia berri bat izateak txikienari sorterazten dizkion burutapen, egoera eta ekintzak deskribatzen ditu. Nahikoa liburu interesgarria da.

Baina, Antxon, zer? aurten ere zuzendari izatea tokatu zaizu, ezta? Aurreko eskutitzean haur-literaturari buruzko informazioa eskatzen zenidan eta horra joateko asmoa baldin banuen ere, ezinezkoa zait; beraz, saiatuko naiz eskutitz honen bidez zure zalan-tza horiek argitzen; ea baliagarri gertatzen zaizuen eskolan!

Hasteko, zera esango nizuke, zure alabatxo horrentzat, bai, jaioberria duzuen alabatxo horrentzako liburuak erosten hasteko. Harrigarria iruditu arren, haurrak urte-erdi eta urtebete duenean, harrapatzen dituen gauza guztiak ukitu behar ditu, sentitu, eta bi

urte bete baino lehen liburutako marrazkiak "irakurtzen" ditu. Alde horretatik, komenigarria izaten da hasiera-hasieratik liburutegi bat osatzen joatea, haurra istorioak jarraitzeko gai izango denerako, bere liburutegitxoan izan dezan.

Ongi dakizun bezala, Piaget-ek Estadio Senso-motore deitzen du jaiotzako unetik 2 urtetara dagoen bitarte hori. Garai honetan folkloretik hartutako hainbat elementu erabil daitezke, hala nola herri-olerkiak, haur-kantak, lo-kantak, jolasak, keinuen, doinuen eta erritmoen bidez jolas dezan haurrak.

Bi urtetatik 7 urtetara, Estadio Preoperazionala dugu. Aldaketa nabarmena ematen da haurraren baitan: hitz egiten hasten da, objektuak identifikatzen ditu; eta 4 urtetik 7rako bitarte horretan garai animista izango dugu (haurrak gauza eta animaliei bizitza propioa ematen die).

Euskaraz zer material dagoen galdetzen zenidan zure eskutitzean, Antxon. Ba, begira: nire ustez, hiru urterekin —eta birekin ere bai, kasu askotan—, haurrak marrazkiz osatutako liburuak maneja ditzake; berak bakarrik ezer gutxi egin dezake, baina guraso edo hezitzaile baten laguntzaz izugarri disfrutatuko du *Teo*-ren liburuekin edo *Lehen irudiak* bilduman agertzen direnekin. "Apu-rrak" saila ere interesgarria izan daiteke garai honetan, eta "Txin-txinbela" sail berria nahikoa aproposa da zenbakiak eta honelako kontzeptuez jabetzen joateko.

Lau urteko haurrentzat nik neuk hiru bilduma interesgarri eta egoki ikusten ditut euskal letretan: Txori saila, Ibai eta Zesar eta Ernestina. Hiru sail hauek nahikoa ezberdinak dira, eta lehena liburu labur eta zainduz osaturik dago, oso testu gutxirekin. Beste biak *Teo*-ren estilokoak izango dira, eta helduak haurraren eta liburuaren bitarteko lana egin beharko du hasiera batean.

Adin honetarako, halaber, bada "Txiribiri" sorta, hiru marrazki-liburuz egina; Jesus Lucas-en marrazkiak dira eta ia-ia ez dute testurik (A. Lertxundirena), baina liburu-sorta hau agortua ez badago, hortxe-hortxe ibiliko da; beraz, Antxon, eskolan ez baduzue, espabilatu beharko. Zoritxarrez, zuk ongi jakingo duzun bezala, euskaraz sarri askotan gertatu bait da liburuak agortuta egoitea zenbait urtetan.

Eskolan daukazuen bost urteko haurrentzat, berriz, material gehiago dago. Adin honetan ezagutzen dituzten liburuekin jolastea

atsegin zaie, eta horrela *Teo* edo *Ibai*-ren liburuak begiztatzea oso gogokoa izango zaie.

Beste liburu-sorta aipatzekotan Txilibitu saila, Gabon bilduma, Maria Goikoarenak eta Kikilikon saila ere erabilgarriak dira adin honetan; liburu hauetan marrazkiak izugarritzko garrantzia du eta testuak gehienetan folklorea oinarrituak daude. Arestian aipatu-tako azken bi bildumak, irakasleek edo gurasoek erabiltzekoak dira, haurrak berak hiru urte barru irakurriko ditu, baina orain —eta zuk zeure eskutitzean, Antxon, irakasleentzako materiala ere eskatzen zenidan— irakasleak erabiliko ditu.

Haurra letrak ikasten ari da eta laster ikasiko du hitzak eta esaldi sinpleak irakurtzen. Garai honetarako, haurra irakurtzen hasten denerako (5 urtetik 7ra), badaude zenbait bilduma, eta berriena beharbada Baporea saila izango da (dena den, oraindik ez dute adin honetarako liburu zuririk atera); beste sail batzu zahar-ragoak dira, Benjamin bilduma, Lumabelar saila, Maria Goikoarenak eta bi, La Galera-Alegiak edo Axut. Azken sail honetan, gainera, idazkera lotua (irakurtzeko erazagoa eta testu aldetik laburragoa) eta inprentazko idazkera ditugu.

Animismoak bultzatuta, ipuinak eta alegiak nahi izango ditu haurrak. Herri-ipuinak, alegiak eta folkloretik hartutako hainbat elementu izango dira haurren lehen irakurgaiak. Hauekin batera, dena dela, zenbait ipuin moderno ere tartekatuko dira. Oso testu gutxi eta marrazki ugari dituen liburua izango da. Funtsezkoa delarik marrazkiaren papera.

Zazpi urterekin haurra liburuak irakurtzeko gai izango da. Nahikoa liburu sinpleak izango dira oraindik, marrazkiak hitzak adina garrantzi duelarik, baina adin honetan istorioak irakurriko ditu, testu luze samarrak. Piaget-ek 7 urtetik 11ra dagoen tarte horri Operazio Konkretuen Estadio deitzen dio; une honetan haurrak egiten dituen operazioak, ekintza barneratuak, atzeragarriak eta koordinatuak izan daitezke.

Beñat, oker ez banago, estadio honen hasieran dago. Zazpi urte bete zituen, ezta? Ba, ikusiko zenuen bezala, oraindik ez da gai izango ekintza barneratuak, atzeragarriak eta koordinatuak burutzeko, baina prozesu horren hasieran dago. Pixkanaka, ohartuko zinen zeu ere, Beñat bere zazpi urterekin dedukzioak ateratzen hasiko da eta geroago denbora manejatzer ailegatuko da (lehena eta geroa ulertuz). Garai honetan fantasiaren munduak ez du muga zehatzik, eta haurrak ez ditu oso ongi bereiziko errealitatea eta fantasia.

Operazio Konkretuen Estadio honen barruan (7-11 urte) haurrak alde batera uzten du bere egozentrismoa eta lagun-talde batean ibiliko da. Irakurketetan, literatura fantastiko-errealista izango du gogokoena (abenturak, ipuin fantastikoak, animali-bizitzak, biografiak, umorea, fantasia).

Dena den, osoaldi luzea da eta zuk eskatu zenidan "ahal izanez gero, urtez-urte" zer dagoen euskaraz. Begira, Antxon: zazpi urterekin Birigarro saila eta Perkax saileko hainbat liburu irakur ditza-kete (*Lotara joateko ipuinak*, *Margolin*, *Kaskarintxo*, etab.), Bapore bildumako liburu urdinak ere adin honetarako dira.

Ez dut esan nahi Perkax edo Birigarro sailetako guztiak zazpi urteko haurrentzat direnik, baizik bilduma horietako liburuak zazpi urtetik aurrera irakur daitezkeela (idazkeraren zailtasunean, esate baterako, ezberdintasun handia dago *Nire belarriak* eta *Paxiki*-ren artean, eta biak nik idatziak dira).

Baina jarrai dezagun aurrera, bestela inoiz ez duzu bukatuko eskutitz hau irakurtzen. 8 urtetik aurrera, honako bilduma hauek irakur daitezke: Sorgin saila, Birigarro (B. Atxagaren liburuak), Ziripot eta Txalupa. Konturatuko zinen bezala, fantasia da nagusi gai aldetik, eta marrazkiak pisu handia du liburuan, lagungarri bezala dago eta testua osatuz, ulermena hobetzeko. Nahikoa marrazki onak dira, eta goiko lau bilduma horietan koloretakoak dira (kalitatea handituz).

8-9 urteotarako, bilduma berri bat dugu euskal literaturan: Kale gorrian, Asun Balzola-ren testu eta marrazkiez osatua. Bilduma honetan giza arazo ezberdinak azaltzen zaizkigu, eta nahikoa aproposa dirudi gaur egungo gizartea ezagutzeko. Lehenengo bi liburuetan langabezia eta aitona-amonen arazoak planteatzen dira. Gainera, eta hau, Antxon, oso erabilgarria izan daiteke klaseetan, liburuarekin batera egunkari txiki bat dator gai horri buruz hainbat berri, informazio, inkesta, dakartzalarik.

Bederatzi urteko haurrak erdiko zikloan daude, eta aldi fantastiko-errealistan sartzten dira. Euskaraz badaude bilduma batzuk hauentzat, baina nabari da hutsune bat Perkax eta Sor sailen artean, Birigarro eta Auskaloren erdian. Egia da Sor eta Itzul saileko liburu batzuk irakur daitezkeela bederatzi urtetik aurrera (*Norena da basoa*, esaterako) edo Ziripot bildumakoak irakurgai interesgarriak izan daitezkeela, baina hala ere, Antxon, nire ustez, adin honetan goiko eta ondorengo bildumetako zailenak eta sinpleenak hartu beharko dituzue.

Dena den, aurtengo Durangoko azokan, maiatzean, bereizketa interesgarri bat egin zen Auskalo saila eta Auskalo artean (liburu zuriak eta horiak), eta nire ustez liburu horiak egokiak dira bederatzihamar urteko haurrentzat. Bestalde, hor daude Kimu saileko hainbat liburu, Herensuge gorria bilduma eta Baporea saileko liburu laranjak.

Guzti hauetaz gain, bada liburu solte bat, nik biziki gomendatzen dizudana eta agian Beñatentzat eros dezakezuna (datorren urtean irakur dezan): *Harria sutan*. Oso liburu hunkigarria da, ederki idatzita, eta itzulpena Joxantonio Ormazabalena da.

Hamar urteko haurrari abentura gustatzen zaio: abentura, humorea, jolasa, fantasia... eta adin horretatik aurrera Sor, Itzul, Auskalo, Tximista eta Bostak sailak irakur ditzake (bilduma hauekako liburu sinpleenak hasiera batean; Itzul sailean izartxo-marka dutenak, esate baterako; eta konplikatuenak hamabi, hamahiru eta hamalau urterekin). Baporean, liburu gorriak hamabi urtetik aurrera irakurtzeko modukoak dira. Auskalon ez dute zailtasun bera *Tristeak kontsolatzeko makina* eta *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* liburuek, nahiz eta biak sail berean egon.

Uste dut, euskal liburuetan dagoen huts bat, goiko hori dela: alegia, goian aipaturiko bilduma guzti horiek denboraldi oso luzea hartzen dutela (10-15 urteak) eta liburuek markaren bat beharko luketela zein adini dagozkion zehatzago azalduz.

Beste alde batetik, Antxon, komiki-liburuak ere badaude, eta berriz hitzetan besterik ez bada —nahikoa gutxi dira—, hemen azalduko dizkizut dauden bildumak.

Lehenengo lekuan, eta duen berezitasuna kontutan izanik, *Ipu beltz*-en ale berezien bilduma jarriko nuke: liburu hauek 7-8 urtetik aurrera irakur ditzakete haurrek zailtasun apartik gabe. Eta *Ipu beltz* aipatu dudanez gero, goraipatu beharko litzateke bai *Ipu beltz* eta bai *Kilikili* aldizkariak egiten duten lana.

Komikiekin jarraituz, Alfer saila gomendagarria izan daiteke hasiera-zikloko ikasleen artean. Erdiko ziklokoentzat, berriz, *Asterix*, *Tintin* eta Ercin argitaletxeak ateratako Komiki-liburuak (*Ion* eta *Mirka*, *Itsas gorritan*, etab.) izan daitezke egokienak. 14-15 urteko neska-mutilentzat, aldiz, Habekomikien *Sorgin seinalea*, etab. eta Ikusager argitaletxearen *Eloy*, *askoren arteko bat*, *Manzanares Hibaia*, eta antzekoak izan daitezke gomendagarriak, besterik ezcan.

Hemen duzu, beraz, Antxon, zuk eskatutako informazioa; sentitzen dut poesiaz eta antzerkiak informaziorik ez ematea. Baina lehena, esan daiteke ez dagoela, eta bigarrena Lourdes Iriondo-ren bizpahiru lanetara mugatzen da ia-ia guztia (Kimu sailean dau-de bere bi liburu).

Ondoren, eta beharbada zerbaitetarako balioko dizulakoan, hemen dituzu *El libro infantil. Cuatro propuestas críticas* liburutik hartuta, zeintzuk izan behar duten haur-liburuaren helburuek: Sorkuntza desarroilatzea; Irudimena aberastea; Fantasia desarroilatzea; Jokoaren plazerra eta atsegina lortzea; Afektuen, sentsibilitatearen eta haurrak/mundua harremanen oreka; Haurren integrazio soziala (bere eta besteen kontzientzia hartzean); Mintzamenaren desarroiloa, eta hitzen bidezko sorkuntzena; Alaitasuna; Munduarekiko konfidantza; Norberarengan seguritatea izatea; Edertasunaz jabetzea.

Lortuko al dugu egunen batean helburu guzti hauek gauzatea? Zuk zer uste duzu, Antxon? Oraindik asko dugu ikasteko, ezta?

Beno, Antxon, agurtzeko unea iritsi zaigu. Ez dakit noiz, baina ziur aski aurten bueltatxo bat emango dut hortik; ordurarte, har ezazu zure lagun honen agurrik beroena.

Xabier

Oharra: Goiko informazioa osatu edo zehatzago ikusi nahi izanez gero, hona hemen horretaz dagoen bibliografi apurra euskaraz:

- “Haur literatura. Haurrek zer dute irakurtzeko?”, in: *Isilik*, 1. alea, 1982ko abendua (45-49 or.).
- “Zer dute haurrek irakurtzeko?”, in: *Isilik*, 3. alea, 1983ko ekaina (37-40 or.).
- “PARA LEER... Selección de libros en euskera y castellano por ciclos”, in: *Eskola*, 8. zk., 1985eko ekaina (68-76 or.).

Honetaz gain, bada Zabaltzen banatzaileak duen folieto bat, euskaraz dauden haur-liburu guztiak zikloka sailkatuz.

X. E.

ORAIN eta HEMEN

...HAINBAT ABURU

LIBURUAK



Don Miguel-en Oroiz

Ai, nire Unamuno zahar, gaixoa! Zein deskoloratua geratu haizen "liberal" horien artean...

Merezi, edozer gauza mereziko huen: horixe bakarrik ez. Hi, liberala? Arranpalo postmoderno adefesio bat eginda utzi haute.

Zergatik eskatu behar ziaten, nori eta hiri, liberala izatea, modernoa izatea, arrazoizale eta intelektuala izatea, irekia eta zabala eta unibertsala izatea, ez haizen guztia izatea justu-justu; zergatik ez egiaz hirea dena, irrazionalkeriaren bortitza, bizitzaren sentimendu tragikoa, hilezkortasun-antsia, arima mistiko kiskalia, afrikanoa eta basamortutarra, liberalkeria guztien odoltzerainoko destainu olinpikoa, hire intolerantzia kixotear guztiz partikularra, hire noizbehinkako espainolkeria *farouche* barregarri hura bera?

Hezur-muinetarainoko "Dios es el deseo que tenemos de serlo" intolerante bat izan hintzen hi. Baina hori gaur ez duk eramaten. Jainkoa ez, eta intolerantzia gutxiago. Hori baino modernoagoak gaituk orain.

Monologoaren artista bakar hori, edozein Madame de Recamier-en saloe-bazterretako dialogoetan eser erazi nahi izan haute, solaskideen munduko txolinkeria guztiak arduraz kontsideratzen bezala hire miopiarekin.

Hiri bost axola zitzaian hire borroka nola borrokatu, "con razón, sin razón o contra ella". Baina orain arrazoizkotasun

domestikatu emeenaren protagonistarena (proto-agonistarena!) jokatu behar duk.

Gaztelako lur gorrietako lur izaten enpeinatu hintzen beti ("tú me levantas, tierra de Castilla"). Mesprezatu egin hituen edonongo modernistak eta progresistak eta "los papanatas que están bajo la sugestión de lo europeo". Horra, bada, non orain kosmopolita aurpegi gabetu gisa paseatzen hauten lainoetan, haizen bezalako mutiko unibertsal pihoa hi.

Horretarakoxe behar haute.

Ortegarerekin hasita, liberalek inoiz ez hinduten piperrrik ulertu (Bilboko Mons. Gurpidek berak, bere eramanezin okerean, ez ote hinduen zuzenago ulertzen?). Gaur apenas hobeto ari dituk egiten beren komedia. Baina jadanik ez duk tristea ere.

Aitortuko diat: erdi-penaz ari nauk hire omenaldiok sentitzen. Oraindik debozioa bezalako zerbait geratzen zaidak. Jaiotatik aparte, neure aldetik joan nintzaian hire Salamancan bisitatzera, joandako urriaren lehen egun doratueta, hirea Salamanca delako eta hirea meditazioan paseatzea izan zelako Salamancan, "soñadero feliz de mi costumbre". Eta kasik satisfakzioz, ari nauk, halere, laudoriozko faltseteak urrundik sentitzen.

Pozik, azkenean, omendatzaile horien artean hire behialako irakurle eta zale euskaldunik ageri ez delako. Ikusten duk, jende kultu unibertsalaren zirkulu goi horietan oraindik ez gaudek ametituak. Martin Ugalde bat, hire hizkuntz dramaren ikerlea (zer zekian tutik Ortegak: "Fue un gran escritor. Pero conviene decir que era vasco, y que su castellano era aprendido"... Eta zer León Felipek?). Edo Txillardegi bat. San Martin bat, orain baino lehen, 1960an *Olerti*-n omentzen hinduen Otsalar hura, eta 68an *Jakin* honetan bertan aurkezten hinduena. Eta zeinek ezagutzen dik, omendatzaile txit liberal, kultu, ireki, unibertsal guzti horietatik, hire Salbatoreren irakurketa? Hori dena ignoratzea hobe zegok, euskaldunok betiko barbaro itsu-itxiak garelako esaten jarraitzeko. Nola destakatuko hituzke berak liberal bezala, bestela, gure aldean?

Ahalegintzen badituk ere, ez haiz sekula beraienagoa izango gurea baino. Heu izan hintzan horretan ahalegintzen lehena, egia esateko, euskararekiko hire jarrera ez prezeski eta propio bereziki liberalekin. *Malgré tout*, hirea gure kasta borrokara kondenatu hauxe duk.

Mundua asko zebilek eta gauzak hemen ez dituk jarri oraingo gazteei, hire *Kristautasunaren Agonia ez-ekiz*, agian *El Cristo de Velázquez* bera gustatzeko moduan. Antzina gozog irakurri izan hindugunok ere, ez niake esango aspaldion asko

irakurri izan haugunik. Egon duk, dena dela, hire euskal belau-
naldi bat, hirekin konforme pentsatu gabe, hirekin sentitu due-
na. Urteak joan ahala gero eta hiregandik urrunago, halere, go-
goan hau oraindik, buruz gogoratzen dik oraindik hire hainbat
poema:

“Alto soto de torres que al ponerse
tras las encinas que el celaje esmaltan
dora a los rayos de su lumbre el padre
sol de Castilla...”.

Hago hire Salamancan: ez haugu imitatu nahi, baina han
maite haugu. Gutxien-gutxiena modernia faltsu honetara tras-
bestitua nahi hindukegu. Han egonez bakarrik haiz egiaz gurea,
Bilbo bustira birlandaketa artifizial folklorikoak eginez baino,
han haiezlako hi heu, noizbait bederen tormentatu gintucna. Ez
moderno, ez arrazional, ez liberal, ez unibertsal, ez inolako
konbentzioetakoa, baina heure bakardadeko antsia eta borroka
amore eman ezina. Seguruenik ideia bakar batean konforme
egon ezin gintzaizkiona, baina barnean beti borrokan aritu izan
zitzaiquina. Hori haiz gurea. Machadoren “este donquijotesco
don Miguel de Unamuno, fuerte vasco...”. Gure aldetik, kasik
satisfakzioz uzten zicagu beste horiei gainerakoa: hire aktualita-
tea, modernotasuna, liberaltasuna, etab., etab.: sekula izan ez
haizena, edozeinen omenalditan erreplilatzen den lastoa. Gurea,
omenaldi horietan ez egotea, izango duk. ■ J. Azurmendi.

Portugesa: Hizkuntza arautzen

1986ko uda-udazkenetan, TBn, egunkari eta kultur aldizka-
rietan behin eta berriz agertu da, Portugalen bezala Brasilen,
Angola edo Mozambiken, hizkuntzaren batasun idatziarekiko
eztabaida lasai edo ozpindua. Esamesak, mahainguruak eta ko-
miki zirrikagarriak ere ez dira falta izan. Komikien bilketaren bat
ere egin du aldizkariren batek. Baina zertaz izan da hori dena?

Rio de Janeiro-ko “Academia Brasileira de Letras”en egoi-
tzan, 1986ko Maiatzaren 6-12etan, zazpi Estatuetakoko ordezkari-
ak bildu ziren portugezari batasun ortografikoa emateko: Bra-
sil, Portugal, Cabo Verde, Angola, São Tomé e Príncipe eta
Mozambike. Nazioarteko eta akademiarteko agiri berriak badu
esanahirik bere izenburu bitxian: “Bases Analíticas de Ortogra-
fia Simplificada de Língua Portuguesa em 1945, renegociadas
em 1975 e consolidadas em 1986”. Agirian dago, beraz: Arau
hauek historiaurreko luzea izan dute, aurtengora iritsi aurretik.

Eta hor ageri diren daten aurretik ere, iragan mendeetara joan gabe, 1910-1911etan egindako lehenengo batasun-ahaleginak gogora litezke, 1933ko Brasil-Portugalen artekoak eta 1943an Brasil-ek bere gisara proposatutako arauak.

“Bases Analíticas” hauek badute beren ingurune kultural-linguistikoa eta ez zaie falta inguru politiko oharturik ere. Erabakia ez da samurra gertatu, eta aurkako eta aldekoek gogor eraso dute edo bihotz beroz lagundu asmoa. Kolore eta tonu guztietako eritziak bil litezke erabakiaren ondoko eztabaidan. Hona bizpahiru lagin: “Eu penso que este Acordo é um erro total, ridículo para todas as partes” (S. de Mello Breyner); “A indignação dos nossos antepassados intelectuais vem da mesma raiz dos políticos do anterior regime. Em vez de ortografia tratar-se da descolonização” (V. Cunha Rego); “O resultado a que chegou não é um trabalho de improvisação (...), corresponde a uma larga elaboração, com bases muito sólidas que vem desde o I Simpósio Luso-Brasileiro” (1967). Erretolika luzea harildu liteke esandako guztiekin.

Hogeitahiru “Oinarri”tan banatu da arautegi ortografiko berritu honen edukina: Letrak, mailegatuetatik eratorriak, hasierako *h*-a, hebraieratik hitzetako bukaeretakoa *h*-ak, kontsonanteen homofoniak, kontsonante-sequentziak, bukaerako kontsonanteak, bokal atonoak, “preguntar” eta “querer” aditzei buruzkoak, sudurkariak, diptongoak, azentu grafikoa, hitz-ekarketa, apostrofoa, maiuskula/minuskula, puntuazioa, sinadura, toponimia atzerritarra.

Erabaki akademiko bati dagokion teknikotasun honek badu, noski, bere testuinguru sozio-linguistikoa, eta ez gaitu sobera harrituko, honez gero, Rio-n bildutako ordezkariak “Protocolo” bat idazteak: “Ordezkariek biziki gomendatzen diete Angola, Brasil, Cabo Verde, Ginea Bissau, Mozambique, Portugal eta São Tomé e Príncipe-ko gobernuak berengana ditzatela Oinarri hauek (...), ortografi sistema nazional bezala, horrela zazpi herrietako bakoitzean bat bera izanik, *ipso facto* berorien sistema amankomuna izango bait da. Orobat, gomendatzen dute, lege-gintz lanari dagokion *modus faciendi*-an gobernu bakoitzak erabaki dezala derizkiona, eta «Oinarriok» lege nazional gitean, erabaki horren berri eman diezaiela bakoitzak beste sei herrii”.

Hizkuntzaren eta portugés-mintzatzaile diren herrien batasunaz arduratuta ageri dira asmoa bultzatu dutenak eta gero alde jarri direnak. Izan ere, 170 bat milioi dira munduan portugesez ari direnak, kontinente guztietan sakabanatuta: batasun horren sinboloa izan liteke eskatzen den eta herri guztiek batera argitaratuko luketen hiztegi ortografiko bakarra. Bestalde, ekin-

tza hau laguntzeko Estatu bakoitzak elkarrizketarako erakunde ordezkeriak sortzea eskatu zen Rio-n.

Proposatu diren Oinarri bateratzaile hauen alde eman diren arrazoiak eta sustatu nahi den batasunari ikusten zaizkion abantailak, hauek izan dira, parte hartu zutenen eritziz: A. Houaiss Batzorde-lehendakariak arrazoi politiko, etiko, ekonomiko, sozial eta moralak aipatu ditu erabakiaren alde. 1945eko arauak Brasil-ek alde batera uztearen ondorioz —dio hark— aldarte txar^o asko nozitu du hizkuntzak, ortografiaren aitzakiarekin (liburuen zabalkuntzari ateak itxiz, adibidez, Salazar-en garaian). Batasun-proposamen onartu honek orain Estatu batean nahiz bestean argitara emango diren testuen harpide erosoago bati lagundu baizik ez dio egingo. Batez ere, portugesa ofizialtzat daukaten Estatu berrietan erabat premiazkoa da batasun ortografiko hau (aurten kolonia ohi afrikarrek Lisboako Gulbenkian Fundazioarekin testu-liburugintzarako izenpetu duten programan, esate baterako): Estatu berri horiek beren jatorrizko hizkuntzen alde ere egin beharko duten ahalegina ahantzi gabe, independentziak alfabetatze-kanpainak sustatu ditu, eta portugesa mintzatu soila hiztun askorentzat idatzia ere bilakatu da (Mozambike: % 95 analfabeto (1975), % 73 (1986), estatistika ofizialek diotenez). "Premiazkoa da hizkuntza nazionalen ikuspegitik gauzak begiratzea [ez metropoliko hizkuntzatik bakarrik], ugariak eta biztanle gehienek mintzatuak bait dira haiek. Baina portugesa —mintzaira ofiziala— da idazten den bakarra" gogoratu du L.F. Percira-k (Mozambike).

Batasun ortografikoa beharrezkoa gertatzen da nazioarteko erakundeetan ere, arazo delikatuak eta nahikoa artifizialak sortzen bait dira (Brasil eta Portugalen artean bereziki); era berean, portugesa irakasten duten atzerriko Unibertsitateetan beharrezkoa ageri da batasuna, eta estatuarteko harreman kulturelek erraztasun berria izango dute argitarapen-trukaketarako, liburuak saldu ez-ekiz egiteko ere. Hizkuntzaren espazio geografikoak bere idazkeran, beraz, batasun indargarri bat izango du hemendik aurrera.

"Oinarri" en etorkizun ofiziala zazpi Estatuetakoa Parlamentuen eskuetan geratzen da orain, berauek eman beharko bait diote, edo ukatu, erabakiari Estatu bakoitzerako ofizialtasuna. Horregatik ere, eztabaida ortografiko-kultural-politikoa irekita dago, harik eta legeak eman arte bederen; baina eztabaida linguistikoa zaharrak dira Portugalen (eta non ez!) eta ez da soberra ikaratu behar, hogeitaz urteko lan eta topaketan fruitu izanik ere, beti izango bait da eztabaidagarria aukeratutako bidea, portugaldarrek portugesa beren aberritzat aitortzen duten bitartean behintzat: "A minha língua é a minha pátria" (C. Veloso). ■
Joseba Intxausti.

Negoziatu, bai (Iranekin)

Terroristekin ez dago negoziatzerik: zer negoziaturik ez daukaten guztiak hori esatea, behar izatea esan, demokrazian, ulertzen da. Bir- eta errebirresaten aspergabe ikustea, ezer negoziatzeko inork nahi ez eta ez inolako kandelarik prozesio horretarako sekula eman izan zaienak, beti lelo berarekin, ulergarria baino azkenean sermoi aspergarriagoa ateratzen da.

Apk eta, konpreniten da, aipatzen ere entzun ezin izatea negoziaketarik. Demokrasiarengatik ote da, hain zuzen? Dakigun Espainia sakratuarengatik da.

Demokrazia ere sakraliza liteke modu berdintsuan. Orduan, oso erregimen puru eta garbia agertzen da, ogi zerutik etorria, ez batzuen artean beste erregimen bat, zuzen bakarra baino munduan, eta demokrasiaren printzipioak aduzituz, zuzentasun posible bakarra ebokatzen da, hots, mito baten anparotan aritzen gara argudiatzen, soluzionatu beharreko errealtate soilen ildoan ibili ordez.

Hemengo politiko askoren ahotan, Platonen zeruetan hipostasiatuako esentzia dirdaitsua ematen du gure demokraziak, bere printzipio sakratu guztiakin. Eta konprenitzen da hori ere, azken finean berak bait dira haren ritual eta liturgietako sazerdote inbestituak, salbazioaren ministrari publikoak eta probetxu-ateratzaileak. Jakina da, sazerdote kontsakratuak jainko baten prisa duela. Prisa gehiegitxorekin kanonizatu digute demokrazia hori behintzat. Horrela ulertuta, ulertzen da, Madrilek noizbait ETA solaskidetzat onar lezakeelako ideia hutsa, pentsamendu sakrilegoen osinbeltza iruditzea jende horri. Nola ez, demokrasiaren izenean.

(Oso kuriooa bait da gure herriko analista politiko zorrotzetan, nola, besteren begian mitoen hainbat lasto-izpi ikusi-zalek, ez duen bere begietako haga mitologikoa erreparatzen. Mitozaleak eta irrazionalak beti "besteak" dira).

Beste askorentzat, alabaina, interes eta indar sozial oso konkretu batzuen egokitasunezko antolamendu bat besterik ez da izaten demokrazia, izanik ere hoberena bera. Interesak salbatzeko dago, ez arimak. Eta interesek egoten da, ez printzipioek, eutsita. Adibidez, kasualitate hutsez bezala, demokraziak ohi deritzen guzti horien printzipioak, lehenagoko monarkia absolutisten eta diktaduren eta kolonien lurralde-muga berberetaraino hedatu ohi dira justu-justu. Ebro ibaiaren setakeria hutsa ote da, gero, ala haren izpiritu antidemokratikoa, sistema politikoez beren ibilbideak aldatu, eta hark halere bere betiko bidean jarraitzea? Etsaiak jokoaren arauak aldatu egin dituela eta, zerga-

tik behar da bapatean "haren jokoan sartu", demokratikoa omen delako?

Negoziatu, bakoitzak bere lekua daukaten etsaiek egin behar izaten dute: bakoitzak bestearen leku-pixka baten beharra daukalakoxe. Bestela ez da negoziatzen.

Inoren etsai hori, ordea, ez da printzipioetako demokrazia. Alegia, orain "demokrazia" bat ba omen dago. Baina oraindik negoziaketa exijitzen duen problema zahar hori baldin badago, ez da demokrazia dagoelako, demokraziari hain zuzen soluzio bat ematea tokatzen zitzaion problema bat zegoelako eta dagoelako baino, aspaldidaniko urteetatik eta urteotararte, eta demokraziak ere ezin soluzionatuko duena, printzipioekin, negoziaketarekin baino.

Printzipioak ondo daude, problemak printzipioenak direnean. Baina Armada espainola ez da printzipio bat, Parlamentu espainola ere ez (ilusioak aparte, parlamentu bat ez da botere-tresna konkretu bat besterik). Negoziaketa ere ez: ongi begiratu, nahi bizi eta garrasi bat besterik ez da, bakean bizi nahi, baina demokrazia jantzi duen Leviatan honi ere murtuko ez zaion herri batena (Zoritxarrez, herri honena bakarrik, oraingoz).

(Eta zoritxarrez, egunotantxe Iranek irakasten du berriro Estatu Batuekin, negoziaketa nahi duen herriak nola obligatzen duen, nahi ez omen zuena, negoziatzera).

Itxurak itxura, moralak eta printzipio demokratikoeak, letra handizkoek, ez sartu eta ez irten egiten dute hemen ezertarako. Borondate politikoaren (zer nahi den) eta kalkulu politikoaren (zer ahal) kontu soila da. Negoziaketaren aurka agertzen direnak, ager daitezke, printzipio desberdinengatik. Egon, aurka dagoena, Espainiaren sakratu hura da (Konstituziotik hasita, horixe besterik ez da, printzipio guztien balioaren markoa). Gaurko marko honen ukoa ulertu behar da, funtsean, jende batek "negoziatu, bai!", esaten duenean. Eta *vice versa*, bestea diotenean. Horregatixe dirudi, printzipio hutsetako demokrazia batean hain erraza izan beharko lukeenak, hain zaila hor beheko demokrazia zabal horretan, eta hemen goiko baso itxian.

Gorabehera honetan boto-kopuruarekin, etab., argudiatzea, auzi guztia lekuz kanpora eramatea da: HB, edo ETA, gutxientziarrak direla, ezin inposa liezaioketela beren proiektua gehiengoari. Apropos ekibokoak sortzea ematen du, garbitasuna inon bainoago behar denean (goiz honetan bertan, soldaduzkaren aurkako manifestariak tiroka sakabanatu dituzte). Izan ere, horiek legitimitate-arazora ginderamazkete. Baina zeinentzat da boto-kopurua legitimitatearen euskarri, alde z aurretik legiti-

tatearen euskarri baliozkotzat boto-kopuru horixe onartu dute-
nentzat ez bada? Hauteskondeak ez dira interes- eta indar-
partiketa bat erabakitzeko metodo egoki samarra baizik. Inkesta
bat dira, indar errepresentatuaren indize-balio soila dute. Ez
dute ezer legitimatzen, berez. Bai, onartua dago, indar horrek,
edo errepresentazio horrek, sozialki balio legitimatzailea ere ba-
duela gero, baina hori ez da sistema horrek positiboki bere bu-
ruarentzat eta bere barnerako ezarri araua besterik.

Indar-modu batzuek legitimatu egiten dutela, Konstituzioak
oinarritu du (eta oso modu desberdinetan: Monarkia, Armada-
ko graduak, diputatuak...). Konstituzio berak erabaki du, beste
indar-modu batzuek ez omen dutela legitimatzen. Baina indar
horiek ez lehen eta ez orain egon izan bait dira legitimazioa
Konstituziotik etortzearen zain! Konstituzioa bera da, hain zu-
zen, indar horien aurrean lehenengo legitimatu beharko litza-
tekeena.

Indarren problema da, beraz. Ez dago, makiabelikoak gare-
la, pentsatu beharrik: hain zuzen, arau gabeko indar hutsari,
indarraren arauketa bat aurkitzea besterik ez omen da biziera
sozialaren sustraia, politikaren teoriko klasikoek errepikatu
izan dutenez. Indartsuagoa bere indarraren arauketa (Konstitu-
zioa) inposatuz hasi denean, ordea, ez dauka zentzurik, arauke-
ta haren edo handik deribatutako formulen izenean, legitimita-
te-arazoak planteatzeak.

Problema ez da legitimitatearena (edo: legitimitatearen pro-
blemarik baldin badago, aurren-aurrenik Konstituzioarena da).
Problema soluzio duin bat aurkitzeko borondatearena da. ■ *Jo-
xe A. Otaegi.*

Beste hauteskondeak

Euskal Komunitate Autonomoko Legebiltzarrerako hautes-
kunde-kanpaina bere bizian aurrera doan une batean dihoazki-
zu lerrook. Bitartean, eta lehenagotik hasita, beste hauteskunde
batzu ere martxan daude, urteari azken txanpa nahikoa bizia
ematen ari direnak, agerian besteek adina zarata ateratzen ez
badute ere. Honen agerigarri, sindikatu nagusien eta UGTren
artearen langilegoarekiko ikuspuntu nahikoa ezberdinak nabar-
mendu dira.

Hauteskunde-kanpaina honen erdi-erdian gaude, eta ez dago emaitzen analisi erabatekorik egiterik. Baina, hala ere, datu batek egin dit dir-dir begietan eta ez dut uste, soziologiako lege guztiak apurtuz, ezer asko aldatuko denik bere funtsean hemendik kanpaina bukatu bitartean.

Datu hori, bere sinpletasunean, hau da, hain zuzen ere: Euskal Sindikatuek (ELA eta LAB) gehiengoa lortu dutela orain artean Euskal Herrian. Konkretuki: % 52,33a.

Datuak, zenbakiek duten hotzean, ez badu gehiegi argitzen, neri zera hauek sorterazi dizkit buruan, datuaren ondorio gisa.

Euskal Herriko langilegoak bertatik eta bertakoen eskutik ikusten duela bere lan-arazoen konponbidea.

Mito hutsa izan daitekeela Estatu mailako hainbat partiduk (langilegoaren ordezkari omen direnak, gainera, horietako batzuz) hauteskunde-kanpainak hasten direnean aipatu ohi duten langile etorkinen segragazioa. Ez al daude, bada, hain zuzen ere, langile-klaseetan kokaturik etorkin horietako gehientsuenak?

Euskal Herriko langileak ez duela bere klase-arazoen konponbidea inola ere ikusten kontzertazio sozialaren bidetik, Madrileko Gobernu eta harekin bat datorren UGT aspaldian oihukatzen ari diren bezala. Izan ere, bide honetatik dabilen UGTren pisua % 29,07koa da oraingoz Euskadin.

Hauteskundeok, dena den, orain daude beroenean; emaitzak bere trinkoan sakonki aztertuko dituenik ere izango da, noski, hemendik hila bete batzutarra. Bihoaz, hala ere, bapatean eta apunte gisa, jaso ditudan inpresio pertsonal hauek; ondorio-rik ere atera dezake jadanik norbaitek. ■ *Esteban J. Agirre.*

Katalanaren mugetan: Aran eta "Franja"

Autonomi Estatu honetako hizkuntzen arteko muga geografikoen bi puntutxo aipatu nahi nituzke nota labur honetan. Jakina denez, sarritan edo gehienetan Estatu mugak eta hizkuntzen barrutiak ez dira osorik bat etortzen. Estatu espainolaren kasuan ezaguna da egoera hori: etxekoa, euskararena, ongi dakigu; katalanarena ere ezaguna edo da (Roselló/Printzerria, 1659), eta, Godoy-k Laranjen gerratean desmoldatutako muga politiko-linguistikoa dago portugesarantz (galegoaren eztabaida lusistan edo autonomia linguistikoa, eta desadostasun mugakide txikiagoetan sartu gabe, noski) (Olivencia). Horietaz

aritu gabe, liburu eta egunkarietan oraintsu emandako hizkuntz eskualdeak gogoratuko dizkiot irakurleari.

Izenez ez-ekiz, bisitariz ere hain euskalduna dugun Aran-go bailarako hizkuntz egoera eta katalanaren Mendebaldeko "Franja" deitua dira Estatuko bi Komunitate Autonomotako (Katalunia, Aragoa) hizkuntz politikaren garbitasuna edo azpizjokoa argitara ekar dezaketen bi barruti glotogeografiko.

T. Climent-ek argitara-berria du *Realitat lingüística a la Val d'Aran*, bailara hartako hizkuntz soziografia eskainiz. Arandar gehien hizkuntza ez da katalana, kaskoinaren dialekto bat baizik, eta horrek, beste gabe, Generalitat-aren hizkuntz politikari aparteko betekizunak ezartzen zizkion. Katalanaren barnean Barcelonaren zentralismoa salatu ohi bada ere, Aran-go barrutian badirudi borondate eredugarria egon dela, katalana ez zen hizkuntza bati normalizazio-irtenbide bat bilatzeko (nahiz eta horrelakorik bere osoan ezinezkoa izan, Frantziak betiko bere politika daraman bitartean, kaskoinaren lurak han bait daude batez ere).

Aran-en, batez ere Eskolari begira egin da plangintza, baliabide pedagogikoen etxea sortuz, irakaslearen erreziklaia Unibertsitatearekin bultzatuz, programakuntz mintegiak eratuz, OHOrako gramatikak idatziz, irakur-liburuak argitara emanez eta hizkuntzari gramatika-arauegia finkatuz. Ez da beste gabe berez etorri den zerbait, egitarau baten barnean gidatu dena baizik.

Aranera deituaren kontzientziarik badute hango hitzunen, eta erabileraren aldetik, berriz, arandarretatik % 58,6k bere lehen hizkuntzatzat darabil aranera, gehiengo handia noski, beste % 41,4a gainerako hiruetan banatzen den bitartean (gaztelandunak % 28,7, katalanak % 8,6, % 4,1 hizkuntz lehtentasunik gabeak, % 1 frantsesak). Bestalde, bailaran bizi direnetatik, aranera ulertzen ez dutenak gutxi dira, % 7. Areago oraindik: bailatarretatik % 80k badu aranera ulertu eta mintzatzeko gaitasun minimo bat.

Hala ere, araneraren etorkizuna ez da guztiz baikorra: oro har, hizkuntza minorizatuen ajek ispilatzen dira hemen ere (adinak/hizkuntz hautapenak, ogibideak / id.). Baina, esan beharra dago, zenbait zerbitzutakoek portzentaia jasoa ematen dute: banka-aseguroetakoek % 71, adibidez. Jakina denez, Aran turismo-hartzailea da, eta kanpotarrok ez diote berariazko hizkuntzari laguntzarik ematen (lagunartean, hizkuntza zabalduenetara lerratzeko arrisku ikusia).

Araneraren kasuak badu interesik, zeren, dakidanez, kaskoin-okzitanieratan hari bakarrik aitortu bait zaio, orain arte,

bizitza ofizialik azken urteotan, eta oinarri soziolinguistiko horrekin normalizazio-saioaldi on bat egin lezake okzitaniarrek harran eder hartan, barruti geografiko askoz zabalagotan ekin aurretik.

Kataluniaren barnean hizkuntzaz bestelakoa den honen parean, ordea, Printzerriak badu kontrakorik ere: Mendebaldeko Zirinda (Franga de Ponent deitua). Katalanak Aragoan duen eskualdea da hau. Katalantzaleek ez dute ahantzi nahi mintzairaz beren hizkuntzarena duten eskualde hau. Hizkuntzari bere osotasun geografikoa ere zaindu egin nahi diote.

Katalanaren II. Kongresuan (1986), Histori Sailean bederen, eman zitzaion lekurik kezka eta ardura honi, eta orain berrikitan, La Llitera eskualdean euskarri sozial berriak eman nahi zaizkio arriskuan sumatzen den hizkuntzari. Eratu da "Associació de Consells de la Franga de Ponent", eta egin du bere lehen Batzarrea, herri guztietako elkarteak bilduz. Elkartuta aurre egingo diote batez ere herri handietan erasoan datorren gaztelaniari (Benavari, Tamarit, Fraga). Haurrentzat jakintzagai hautagarria da katalana eskoletan, baina jendearen kontzientzia eskasak ez du Aragoako diputaziotik datorren laguntzari berari ere probetxu onik ateratzeko lain indar. Tamala da, Aranen aranerentzat egin ahal izan dena, katalanaren beste muga honetan hain zaila gertatzea. Oraingoz, behintzat. ■ *Joseba Intxausti.*

PNV/EA

EAJ/PNV eten egin da. Uste dut, kanpotik ikusita, hobe izan dela. Zergatik? Ez dakit, inpresio hutsa da eta analisi baterako horixe da okerrena.

Moraliki, gutxienez, hobe. Zeren eta, gizalege mailan, gizalege-faltaren mailan alegia, bazterrotan ez da gogoratzen aspaldian eztatanda politiko penagarriagorik ikusi izana, mota guztietako bajeza guztietan.

Politikoki, hobe? Inork ezer irabazi duenik, irabazi, oraingoz behintzat ez da ikusten. Ez Alderdiak berak, ez Euskal Herriak. Alde horretatik negatiboa izan da guztientzat. Gauzak aspaldian zeuden bezala, halere, eteteak zirudien hoberena, eta hala adierazi dute alderdi biek. Badirudi, beraz, orain biak hobeto daudela, bakoitzak bere bidea egiteko.

Geroa geroari utzirik, iragana nola aurkeztu izan zaigun, harrigarria da. Azkenean ez du ematen inor ezer asko argitu denik, etenerako arrazoi zinez politikoak edo edeologikoak non zeuden. Egon ere, inon ez omen daude.

Baldin egia bada, berriz, esplikazioa hortik ez doala, orduan, eta orduan arago hain zuzen, pertsonalismoen arrazoi bakarrean aparatatu direnen kontra —sinpleegia da—, erantzunbehar izugarria historiaren eta Alderdiaren aurrean, txikizio honetan amaitu duen estrategiaren markatzaileei, ikusten diet nik. Alderdiaren politikaren lerro nagusien inspiratzaileei, urteotako EBB-kideei bereziki. Zuzenez ala okerrez gidatu duten, ez naiz sartuko, baina erresultatua hori da: Alderdia, azken finean bere historiako frakasurik beltzena kostatu zaion estrategian sartu eta alferrikako Termopila hauctara ekarri dela, ez jakin zer defendatzeko, ez bait dirudi estrategia txit loriatsua. Arrazoiak politiko eta ideologikoak izan ez badira, hain zuzen, pertsonalismoen arrazoi kaskarrarekin estaltzeko handiegitxoak den, sakrifizio gehiegiren kostuarekin eraikitako strategiaren zuloa ageri da hor. Eta estrategia suizida horren buruko harakiri publikoa.

Nork bere burua engainatu nahi izatea da, erru guztia neguari —pertsonalismoci— botatzea. Ez zen izan, noski, Napoleonen errua, neguan negua etortzea. (Bere pertsonalismo guztiz propioz etorri zen hura, nahi baduzu). Ordea, etor zedinean, Armada Handia ez arma eta ez soldatu Errusian galduta nola gera zitekeen, ez aurrikustea, eta ez kalkulatzea, eta ez ebitatzea, hori bere-bere eta ez besteren errua izan zen osoki eta hala geratuko da betiko — Alderdiaren eta historiaren aurrean.

Hau da krisi honetan egiaz dagoena eta agerian bederen aipatu nahi izan ez dena. Etxegile bati kontuak eskatzen zaizkio, etxea erori egiten bada. Injineruak kontuak eman behar izaten ditu, zubia puskatu egiten bazaio... Hemen? Hemen zubi puskatuari eskatu nahi zaizkio.

Beharbada oraindik ez da mementua, gauzak horrela planteatu ahal izateko. Beharbadarik gabe: oraindik ez da prozesua elkarren irain-arotik pasa. Ez da izango erraza, baina, Alderdiaren izena EAJ bada, etorri beharko du egunak, zein izan den ibili duen eta honela akabatu zaion bide hori, Alderdiak berak hotz-hotzean atertzeke, eta kontuak ateratzeko. Zer axola zaigu, atzo zein izan omen zen erruduna! Bihar zer egin, inporta zaio Euskadiri. ■ *J. Azurmendi.*

Ez ote jauzi kualitatiboa?

Berri txiki batek asko poztu nau. Elkar argitaratzaileak —zergatik ez esan izen eta guzti?— lagun bat hartu du, liburuaren promoziorako hartu ere. Liburu gehiago saltzeko, noski; alderdi komertziala hobeto zaintzeko, noski, esango du norbaitek. Bai, bai, halaxe da. Eta? Eta orain arte zergatik ez du, bada, honelakorik egin?

Alderdi komertzial eta enpresarialen gaineratik edo azpitik, berdin zait, albiste ona da euskal liburuarentzat. Albiste ona ez-ezik, urrats kualitatiboa izan daiteke; alegia, aldi berri batera igarotzea. Zergatik ez? Elai bakan batek ez omen du udaberria egiten, baina bai adierazten. Hain zuzen, horixe esan nahi dut liburugintzari buruz ere. Albiste garrantzikoa da hau, ez bere horretan, adierazten eta iradokitzen duenagatik baizik.

Izan ere, eskasia guztien artean, promozioa du batez ere eskas euskal liburuak. Umezurtz jaiotzen da euskal liburua, lantzamendurik gabe, promoziorik gabe, inolako laguntzarik gabe. Ez informatu, ez promozionatu egiten du euskal editorialak.

Euskal liburua ez omen da ezagutzen, ez omen da saltzen. Nola, bada, horretan deus inbertitu gabe? Erdal liburuarekin ez da gauza bera gertatzen.

Berri pozgarria da, baita, liburugintzaren aurrerapauso bat suposatzen duelako. Euskal liburugintzaren normalizazio-bide luzean pauso bat da, zalantzatik gabe. Aurreragokorik ba omen zegoen orain arte. Alderdi kuantitatiboak segurtatu direnean, alderdi kualitatiboak zaintzen eta lantzen gehiago axolatzeko orduak jo duelakoan nago.

Hutsune bat betetzeak, egoera berri bat adierazteak baino ere gehiago poztzen nau kasu honetan beste zerbaitek: ohitura berriak sor ditzake erabaki honek. Baliteke gainerako editorialek gauza bera egitera behartuak ikustea beren buruak. Eta baliteke, elkarren lehia honi esker, euskal liburugintzaren plataforma informatzaileak sortu ahal izatea. Plataforma informatzaile sistematikoak, esan nahi dut. Alegia, orain arte ezinezko gertatu izan direnak, batzuen eta besteen erruz. Begira nola. Eman dezagun *Jakin* bezalako aldizkari baten kasua. Liburugintzari eskainitako sail bat eratu nahi duzu: alde batetik, atera-berri diren liburuaren berri emanez, eta, bestetik, batzuen kritika eginez. Proiektu horren berri editorialei ematen diezu, beren laguntza eskatuz, noski: alegia, publikatzen dituzten liburuak hutsik gabe bidaltzeko. Bi argitaletzek erantzuten dizute, eta ez garrantziko enck. Historia hau ez da asmatua, gertatua da. Ho-

nela ezin sor daiteke plataformarik. Beharrezkoa da alor honean ohitura berriak sortzea, eta agian *Elkar*-ek urratu du bidea.

Bazen garaia. Baina ez da beranduegi. Sorkuntzaren hamargarren urteurrena ospatzeko modurik jatorrenetakoa iruditzen zait *Elkar*-ek egin duen hau. ■ *Joan Altzibar*.

Mendebaldea berriro demofaxismorantz

Historiak, nonbait, ez daki zuzen ibiltzen bere bidean, ezker-eskuin zambiluka joaten da, mozkorrak bezala. Orain eskuinerantz ari da erortzen, mendebaldeko histori zati hau behintzat. Ameriketatik Ingalaterrara, Frantziatik Alemaniara. Esan nahi bait du, Espainia deritzon moja-internatu horretan, betiko eskuin-zulotik irten beharrik ere ez dela egongo, gizarte progresatuenean parean aurkitzeko, eta laster nahikoa ezkerrean gabiltzala mundua, irudituko zaigula.

Richard Strauss eta Franz Lehar-en dantzak, Puccini-ren *Tosca*, Isadora Duncan: bai, alai estreinatu genuen mendea. Matisse-k etxe-jauregiak dekoratzeko estilo berria erakusten zuen Parisen, Gauguin-ek hegoaldeko itsasoaren margo beroak ekartzen zituen Europara, Picasso bera urdin zebilen. Laster ilundu zuen.

Sarajevo-n lehertuko zen hodeia. Trumoiak ikaratuta, munduko oilategia historiaren eskuin muturrean anparatu zen. Demokrazia liberal zaharra faxismoaren aterpean, demokrazia herritarra izan behar zuena stalinismoan, Amerika gazte libreak berak New Deal aldera jiratu zuen larri-larri. Denak eskuinean bildu ziren.

Beste Mundu-Gerra batek aterpe denak hautsi zituen berriro. Birreirikuntzaldi gorria iragan bezain laster, 50. urteetan, askatasunaren udaberri epela dastatu zen, jendeak ezagutzen ez zuen askatasun oparo eta eroso guri bat, aisiaz eta itsas balneario konfortez. Askatasun kontzesiboen euforia inkontzientea puztuz eta hanpatuz joan zen, bapatean izuaren izuz deskubritzeko, ezker muturreko amildegiaren arroka-punttetan ari omen zirela olatzen arrisku izugarrian. Joa bait zuen kalean 68ko maiatzak.

Jendeak ez zuen, halere, astralalada zoroan anparo bila ihes egin oraingoan. Geldi-geldi bere lekuan geratu zen, arnasa hartzeko ere beldurrez. Honez gero ez zuten Alderdi eta sindikatu zalapartari primitibo batzuek harat-honatarazten herria,

baina administrazio zuhur eta guztiz jakitun batek, poliki-poliki eta inoren aztoramendu gabe. Jendeak bazekien administrazioak dena ondo konponduko zuela eta ez zela ezer pasako.

Banan-banan, administrazioaren makina zuhur eta guztiz jakituna etxeko ate-lehio denak ari da ixten, sabaibegiak itsutzen, zirrikituak tapatzen, kristal argiageri denak burilatzen. Zaratarik batere gabe, hau deportatu egiten da, hori garbitzeko arrotz beltzaran bati ematen zaio enkargua, bestea ikusiko dugu nola bera suizidatzen den gartzelan, kontrainsurgentzia eskuak zikindu gabe antolatzen da, desagertuek ez dute gerrarik emango lurraren azpitik, kontrolatu ahal uste diren istiluak desdramatizatzea morroiari uzten zaio, behar denarekin konforme egonez progreak izateari ez uzteko adinako diskonformitate dosifikatuaren arte berri bat asmatzen da intelektualentzat, irudiarentzat oso estetiko egiten bait du horrek, polizia gustu dituen legeak eta uniformeak josten zaizkio, nazioartean oraindik falta ziren konbenioak sinatzen dira beltzak eta kolorezkoak eta txikanoak etorri ziren bidetik atzera bidaltzea da soluzio errazena. Beno, behar ziren gauzatxoak, denak ordenu oncan bizitzeko.

Eta, ez ezkerrean, ez eskuinean, mundua bake santuan dago, berriro zentru-zentruan, Ptolomeok berak ipini zuen baino boro bilago. ■ G. Noss.

Zein hizkuntza Unibertsitatean?

Hilabete batzuetako duda-muden ondoren, lehertu da azkenik arazoa, eta nola, gero? Espainiako Konstituzioaren arabera, ezinezkoa da Unibertsitatean gaztelania ez den beste hizkuntzarik ezartzea, nahiz eta Unibertsitateko Gobernu-Zuzendaritzak berak hartu horretarako erabakia. Valencia-ko Lurralde-Entzuetegiak *dixit*.

Arazoan mugitzen diren indar sozialek zerbait balio badute, oraingo hau izango da hizkuntzen eztabaida edo borroka unibertsitaria ekaitz handi bihurtuko den egokiera. Egin dezagun, bada, historia pixka bat.

Aurtengo ekainaren 20an, Valencia-ko Unibertsitateko Gobernu-Zuzendaritzak erabaki soziolinguistiko garrantzitsua hartu zuen: "Gure Eskola eta Fakultateetan, lehen ikasturtean ezik, Komunitate valentziarreko bi hizkuntza ofizialeetatik edo zinetan eman ahal izango dira jakintzagaiak, irakaslearen era-

baki librearen arabera eta ikasleekin ados jarritz gero". Erabaki hain demokratiko honek hiriko ultraeskuindarrak biziki asaldatu zituen (Alternativa Universitaria deituak bultzatu du auzia), eta Auzitegitara jo zuten hauek (uztailaren 20an), Espainiako Konstituzioak eskatzen duen hizkuntz berdintasuna gordetzen ez omen zuelako.

Irailean jakin zen Lurralde-Entzutegiak aldi baterako geldierazi egiten zuela Gobernu-Zuzendaritza haren erabakia, eta orain, azaroaren 11n, deuseztat eman du berau, horrela Unibertsitate barneko deliberamendua antikonstituzionaltzat aitortuz. Unibertsitateak katalanari berdintasun soziolinguistiko bat eman nahi baldin bazion, Entzutegiaren epaiak mahai gainean utzi du kontrako hordagoa, eta orain arte katalanaren alde borrokatu direnak ez daude, itxuraz, ez-ikusi edo txanda-pasa egiteko.

Entzutegiaren arrazoiak Konstituziotik ateratakoak izan dira (14 eta 27. art.): "diskriminaziorik ezerako eta hezkuntzarako oinarritzko eskubideak segurtatzen ez direlako", esaten da. Gobernu-Zuzendaritzaren erabaki hark ez omen lizkieke eskubide haiek ikasle gaztelanidunei soili segurtatuko. Alderantziz, berriz —diote epaileek—, "hizkuntza akademiko bezala, gaztelania erabiltzen bada, ez zaie eragozten valentzieradunei ulerpena, hura Estatuko ofiziala denez (Konstituzioko III. artikulua agindutakoaren arabera), guztiek bait dute gaztelania ezagutzeko betebeharra, eta hizkuntza autoktonoen erabilpena, ostera, ez da betebeharr juridiko bat, eskubide bat baizik" (arazoaren 11n).

Erabaki eta arrazoiketa honek berehala piztu ditu katalantzaleen erantzunak. Lehenik Unibertsitateko arduradunengan, noski, eta aldi berean hizkuntzaren arduradun zuzenak direnen artean eta hizkuntzarekin era bateko edo besteko zerikusirik dutenetan. Epaiari berehala ikusi zaio izan dezakeen joanetorri zabala. Gutxi-gutxienez, hasi-berria zen normalizazio-bidea ebakita geratuko litzateke horrekin eta nornahik luke eskubiderik, legearen interpretazio horren bidez, hizkuntzaren aldeko zeregin funtsezkoen hegoak mozteko.

"Valenciako Unibertsitateko Gobernu-Zuzendaritzaren erabakia deuseztat aitortzen duen epaia (...) ez doa Valenciako Unibertsitateko hizkuntz normalizazio-prozesuaren kontra bakarrik, Katalunia, Euskadi, Galizia eta Irletako Unibertsitateak ere ukitzen ditu, berorietan ere bi hizkuntza ofizialkide bait daude", zioen Unibertsitate hartako Idazkariak.

Katalan Hizkuntzaren Kongresuak, duen alde politikotik heldu dio epaiari: "mutur-muturreko ideologia erreakzionarioa

du bere baitan epaiak, eta giza eskubide oinarrikoenen aurka doa zuzenean, izan ere norberaren komunitate linguistikoaren barrutian edozein leku eta unetan norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea giza eskubide haien artean bait dago". Lapiedra Errektorari zuzendutako gutunean esaten da hori, tribunaletatik eraso den hizkuntzaren aldeko laguntza eta elkartasuna eskainiz.

Herrialde Katalanetako indar politiko, sindikal eta kulturalak elkartzen ari dira une honetan. Biharko, azaroaren 18rako, manifestaldi handi bat eratua dago jadanik. Beste ekintza askotan bezalatsu, Acció Cultural del País Valencià ari da guztien ahaleginok biltzen. Gatazka-une hau, Espainiako Konstituzioaren hizkuntz ideologia espreskiago egun argitara ekartzeko izango da seguraski. Teilatupe berean gaudenez, merezi du gertakariak arretaz begiratzea, Estatuko politika linguistiko-unibertsitariari test esanahitsu eta orokorra gerta bait liteke oraingo hau. ■ *Joseba Intxausti.*

Mario, Madrileko prentsaren kontzientzia ona

Azaroaren 10ean Mario Onaindiak *Diario 16* egunkariari egindako deklarazioek seguru izan dutela oihartzunik Euskal Herrian. Eta ia seguru nago, batez ere alderdi politikoen aldetik izan dutela erantzuna. Bego.

Ni ez naiz politikatik, ez politikarako bizi. Ez dakit, gainera, Euskal Herrian zer-nolako erantzuna izan duten hitz horiek. Eta horrezaz gain, elkarriketa horretan "bazterreko", "ustez bazterreko" zen puntutxo batetaz arituko naiz.

Hona Marioren beraren testua:

"Algunos vascos se explican muy mal, y se explican mal porque no les interesa explicarse bien. Así, siempre podrán acusar a los de fuera de estar mal informados (...).

... yo estoy convencido de que no existe ninguna campaña contra Euskadi en la prensa, todo lo contrario, pienso que la gente de fuera ha sido demasiado comprensiva con lo que pasa aquí. Los incomprensivos han sido los propios vascos, o digamos mejor un gran sector del pueblo vasco (...). Así que ya le digo, en-

tendernos nos entienden, lo malo es que muchas veces no queremos explicarnos”.

Pozarren gelditu da Madrileko prentsa. Han eta hemen erre-pikatu dituzte esaldiok. Jokaera jatorra duela esan die, zeinek eta garantia osoa eskaintzen duen euskaldun batek. Ongi, ongiegi ulertzen gaitu prentsa horrek, ongi tratatzen, ongi in-formatzen du gutaz. Hona Marioren patentea.

Zer gertatzen zaio Mariori Madrileko prentsarekin hitz egi-ten duenean? Hauxe bai ez dudala ulertzen! Hitz eztiak eta goxoak beti, bai, baina haientzat eta gure pentzura, euskaldu-non pentzura, esan nahi dut. Horren ongi ulertzen gaituen prentsa horretan, ABC-n adibidez, “objektibotasun” osoz in-formatzen da ikastolei buruz. Adibidez. Eta, noski, noiznahi agertu ohi dira prentsa horretan euskal kultur mugimenduko berriak, euskal literaturari buruzko albisteak. Edozein egunetan Madrileko edozein egunkari eskuratzea aski da horretaz ja-betzeko.

Izan gaitzen serio. Euskadiren aurkako prentsa-kanpaina zer den ez dakit nik. Dakidana da euskaldungoari buruzko in-formazioaren *black-out* osoa dagoela. Euskaditik jaso ohi duten errealitate gehiena —bakarra esatera nindoan— “politikoa” da: atentatuak, borroka politikoak, politikoen “saloi-guduak”.

Eta ia okerrago dena: informazio honen tratamendua diko-tomikoa da: zuriak eta beltzak, onak eta supergaiztoak, terro-ristak eta jende jatorra, honelaxe, simple-simple, argi eta garbi.

Nire ustetan, Madrileko prentsa, kazetaritzaren deontolo-giak eskatzen duen baino dexente “agresiboagoa” da, “politiko-agoa”, bereziki euskal arazoan. Galdera gutxi egiten du, ustez interpretazio-gakoak oro eskutan ditu, afirmazio borobilez be-tea dago. “Klase politikoa”ren antz gehiegi du Madrileko kaze-taritzak. Indar politikoei lotuegia, makurtuegia, iruditzen zait.

Nik ez dakit guk esplikatzen dakigun ala ez. Baina berek jakinmin handirik ez dutelakoan nago. Zenbat hurbildu zaizki-gu, adibidez, Euskal Herriko errealitate kulturala ezagutu asmoz? Bat bakarra ezagutzen dut nik neuk. Ez gaituzte ezagu-tzen, hori da egia. Nola, bada, ulertuko? Ezagutzen dituztenak, topikoak dira, betikoen topiko errepikatuak.

Ongi ulertzen ci gaituzte, dio Mariok. Aztertu ote du Ma-riok Euskal Herriaz zer esaten den eta *nola* esaten den?

Guk geuk, euskaldunok, omen dugu kanpokoen informazio txarraren errua, horixe komeni omen zaigu eta. Noski, Estatua ulertzeko Madrileko politikoeck duten ikuspegi monolotiko eta

itxiak ez du zerikusirik. Noski, Autonomien Estatua entelekia bat izateak ez du zerikusirik... Ez zerikusirik eta ez errurik, noski.

Zazpi bizietarik bat misiolaritzara emango lukeela ere esan du Mariok, bere herrian misiolari izatera, gainera. Lan gaitza, baina itxuraz bakarrik gogorra, ordaintsaria zeruan ez baino gortean jasotzen dencan. ■ *Joan Larrinaga.*

Balendin Enbeita hil da

Azaroaren 20an, Galdakaoko ospitalean hil zaigu Balendin Enbeita (1906-1986), laurogei urte zituela, gaitzak baino ezbeharrak jota. Familiartean, lagunartean edo plazetan abestutako milaka bertsoaren ondoan bi liburu utzi ditu Balendinek, idatzita: *Nere apurra* liburuan (Auspoa, 117-118 zk., Tolosa, 1974) bertsoak eman zituen, eta *Bizitzaren joanean obran*, berriz (Elkar, 1986), bere oroitzapenak hitz lauz bildu ditu. Azken honi beste batekin segida ematen ari zela joan zaigu Bizkaiko bertsolari zaharra. Goian bego, orain ia berrogei urte ezagutu nuen adiskidea.

Balendin, Kepa Enbeita "Urretxindorra"ren (1878-1942) semea zen (ik. S. Onaindia: *Gure Urretxindorra*, Ekin, Buenos Aires, 1971) eta harengandik eta senitartean zaindutako bertsozaletasuna bizirik izan du bizitza osoan. Familiako tradizio baten maiorazgoa jaso zuen, eta berorren erantzukizuna eta harrotasun leiala maitekiro gorde ditu azkeneraino Balendinek. Gerraurrean, aitaren ondoan hamazortzi urterekin hasitako lanari, belaunaldien etenen gaintetik, etenik gabeko jarraitasuna eman dio, bere familian, aita zenarena jasoz eta semeengana luzatuz.

Bertsolaritzari zeregin sozial berria eman zion bere garaian "Urretxindorra"k, bere gaitasun hura ekintza politiko abertzalearen zerbitzutan jarritz. Balendin ere ildo horri jarraiki zitzaien: "Herriko jaietatik aparte, hauteskunde garaian, ez nintzen gelditu ere egiten. Behin, egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban" idatzi-berri du Balendinek, gerraurreko lan haiek gogoratuz. Tabernako bertsolaritzaren mugak hautsi egin zituzten, beraz, Enbeitatarrek, gero esan eta egingo zirenei aurrea hartuz (ik. zer zioen M. Lekuonak 1930ean: *Idazlan guztiak. I. Aozko literatura*, Kardaberaz, Gasteiz, 1978, 213. or.).

Gerrateondo zitalaren ondoren, zailagoa izan zen agian Bizkaian bertso-lanari berriz ekitea, baina ahal izan zenetik (1955), plazetako saioaldietan eta eratu-berri ziren txapelketetan (Bizkaikoan txapeldun, 1958, 1959) ez zuen huts egin. Baina Balendini eta inguruko bertsolari lagunei zor diegun asmo aitzindaria batez ere bertso-eskolarena izan da: saiatuz eta elkarrekin arituz hobetu egin zitekeen ofizioa, eta lan hori zergatik ez zen lagunartean modu formal eta eratu batean egingo? Hirurogeietako lehen urteetan, ikustekoak ziren Muxika/Aratzako "Garriko" deitu bertso-eskolako lagun lehia eta gogoa.

Bertso-lanean ez-ezik, barruti pertsonalagoan ere, familiar alegia, emazte Klara eta seme-alabekin batera, bere sendi abertzale irekia eskaini zien euskaldunberri nahirik baserrira zetozkien. Kontu egin orain hogeitamar urteko kontakizunekin ari naizela; ez zegoen euskaltegirik, ez itxurazko ikasmetodirik, baina Bilboko X. Peña tolosarrak, adibidez, Ormaetxera eramaten zituen bilbotarrak murgil-metodoaz euskaldun zitezzen. Zilegi bekit, nere aldetik, nik ere neurea gogoratzea: familia euskaltzale batetik gentozenok, Enbeitarren etxean, Balendin eta Klararenean, zerbait berria topatu genuen: familia euskaltzale abertzale baten militantzia eta burubide eredugarria, guretzat ere nahi genuen tradizio egin eta bizi baten arnasa. Etxe hartan ikusitakoak eta handik *Jakin*-era luzatu zen presentziak aldizkarian ere izan du lekurik.

Hain zuzen, Kepa Enbeitak, Balendinen seme zaharrenak, aldizkariaren Zuzendaritzan ziharduena oraindik hasi-berriak ginen hartan (1959-1961), aurreko zuzendarien erantzukizunak hartuz. Balendinek berean eta beretik ereindakoa gurera ere iritsi zen, hortaz, pertsonalki emandakoarekin eta gure artean izandako bere semeen bidez (Kepa, Abel, Moises, Jon) gurean egindakoarekin. Balendin galtzean, neure bizitzako kapitulu bat ere burutu dela esango nuke. Sinbolo bat ere baden famili tradizioan urrezko katebegia izan da Balendin. Ohore eta esker on gutartean bete duen bizialdiari! ■ *Joseba Intxausti*.

Ohar laburrak euskal prentsa berria dela eta

Joan Mari Torrealdai

Hamar urteren buruan

Duela hamar urte —urtez-urte hamar— “euskal kazetaritzaren urtea” aldarrikatu zen. Beste garai bat zen: hil-berria zen Diktadorea eta euskal herria proiektu eta utopia askoren baratza emankorra zen. Kazetaritzaren arloan ere ez zen asmorik eta ekintzarik falta. *Goiz Argi*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*, bereziki azken bi hauek, intxuraldatu egin ziren: *newsmagazine* eitea hartu zuten, aspaldiko errebindikazioa mamituz, alegia, modernotzea (“normalizazioa”, esango genuke gaur). Astekari “elebidun” berriak jaio ziren: *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Garaia*, *Berriak*. Egunkari “elebidunak” ere sortu ziren: *Egin*, *Deia*. Bai egunkariak eta bai astekariak, egia esan, asmoz ziren elebidun, ez egiaz eta benetan, geroak crakutsi duenez. Prentsa idatzi elebidunaren porrota.

Hamar urteren buruan, euskal prentsa berriaren *boom*-a aipatzen eta aldarrikatzen da. Lau “asteroko” sortu bait dira berrikitan, bateratsu sortu ere. Hots: *El Correo Español*-en *Correo Escolar*, *El Diario Vasco*-ren *Zabalik* eta *Egin*-en *Hemen* eta *Deia*-ren *Eguna*. Pozgarria da loraldi hau, eta ziur gaude ziur, euskararen

zabalkundearen eta euskal kazetaritzaren onerako izango direla. Ongi etorriak, eta bejondeizuela!

Ereduak eta irudiak

Lau proiektuok, azken batean, bitan banatzen dira asmo eta produktuaren aldetik: batetik, erdal kazetaren eranskin direnak, eta, bestetik, egunkari izan asmoz sortu direnak.

Lehen biak —hots: *Correo Escolar* eta *Zabalik*—, halere, ez dira bikiak, produktuaren aldetik. Prentsa espezialduaren alorrean sar genezake *Correo Escolar*: bertan idazten dutenak idazle dira eta ez kazetari, bateko; eta besteko, bere publikoa ez da irakurleria orokorra, eskolumea baizik. *Zabalik*, bere aldetik, informazioaren eremuan kokatzen da. Asteroko hau “kazeta kazetaren barruan” esperientziaren bidetik doa, oraintsu arte *Egin*-eko *Egunon* bezalatsu, adibidez.

Oso bestelakoa da *Hemen* eta *Eguna*-ren bidea. Egunkari izateko saio bezala jaio dira bi-biak, nahiz eta elkarren antz handirik ez izan eitearen aldetik. Inguruko egunkarien taxua hartu du eredutzat *Hemen*-ek, eredu konbentzionala, ortodoxoa. Inguruko eredu ezagunetatik gehiago urruntzen da *Eguna*.

Lau eredu, lau irudi. Euskal kazetaritzaren ikuspegitik begiraturik, *Hemen* eta *Eguna* dira egiazki nobedade, bide-urratzaile. Beste biak erdal kazeten gehigarri dira, interesgarri bi-biak “euskararen zabalkundea”ren aldetik, gutxiago kazetaritzaren perspektibatik. Eta, arestian aipatu bezala, *Zabalik* kazetaritzaren aldetik ere bai, baina, nahiz eta kazetaritzaren sen handiagoz, *Egunon*-ek landutako lur bera lantzera dator.

Benetan berria, *Hemen* eta *Eguna*-ren produktua baino areago, proiektua bera da. Zer dira, baina? Egunkari? Astekari? Eta zer bilakatuko? Egunkari? Bai ote? Eta noiz arte iraun dezakete oraingo formula bitxi honekin?

Eusko Jaurlaritzaren estrategia

Correo Escolar eta *Zabalik* enpresa pribatuen pentzura doaz. Ez horrela *Hemen* eta *Eguna*, nahiz eta enpresa pribatuen gain oinarritu. Biek dute Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza. Areago:

sortu ere, Kultura eta Turismo Sailaren 1986ko uztailaren 22ko aginduak finkatzen dituen diru-laguntzak jasoz sortu dira.

Bi helbururi erantzuten dio agindu honek: bateko, euskararen zabalkunde eta erabilpenari; eta besteko, euskarazko egunkaria sortzeari.

Zeinek esku har dezake proiektu honetan? Hiru baldintza eskatzen zaizkio halakoari: "beharrezko lege-nortasunez horniturik" egotea, "behar den azpiegitura" izatea eta "Ekonomia eta Herriogasun Saileko 1986.eko Otsaileko 28ko agindua bere osotasunean" betetzea.

Produktuari begira, enpresa honi zenbait kondizio jartzen zaizkio: sei erredaktore izatea, edozein egunkarik dituen atal guztiak izatea, goizez argitaratzea eta banatzea, 32 orrialdekoa izatea eta horietatik % 75 aktualitate-informazioaz osatzea, banaketa Euskal Herriko lurralde guztietan egitea.

Baldintza interesgarria, zalantzarik gabe. Eta asmoa ere bai, "gaurko euskal gizartearen euskarazko egunkariaren beharrianak kontutan hartuz" eginda dagoen neurrian. Horrela ote da, gero? Ez dakit, benetan diot, ez dakit. Hobe horrela balitz, benetan diot.

Badira hiruzpatalu puntu, neretzat oso argi ez daudenak.

Lehena presa. Agindu hori uztailaren 22koa da, eta proiektua abuztuaren 15a baino lehen aurkeztu behar zen. Nor harrapatu nahi izan da ustekabeen, oporretan? Euskarazko egunkariaren beharrianak aspaldidanikoa da eta aski sakona, horren arinki erabiltzeko.

Bigarrena, *Argia*-ri emandako ezetza. Agindua hitzez-hitz hartuta, ez da erraz ikusten zergatik ukatu zaion eskuhartzea "Z. Argia" enpresari.

Hirugarrena, proiektu hauen geroa. Abenduan 31n bukatzen dira agindutako diru-laguntzak. Abenduan bukatzen ote da Eusko Jaurlaritzaren konpromezua ere? Horrela balitz, kito. Eta ezezkotan, noiz arte jarraitu beharko dute formula bitxi honekin? Noiz emango da hurrengo urratsa, alegia, noiz bilakatuko dira egiazko egunkari? Zein izango da Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza arrerantzean?

Eusko Jaurlaritzak ez du puntu hauei buruz konpromezurik hartu, hitzekoa ez bada. Etorkizuna segurtatzen ez deino, euskal

egunkariak ez du oinarri sendorik izango. Eusko Jaurlaritzaren estrategia ez ezagutzeak badakigu zer dakarren enpresen aldetik: subentzioen segidismoa.

Euskal prentsaren normalizazioa eta joerazko arriskuak

Euskal prentsa idatziaren normalizazioan aurrerapauso bezala uler daiteke udazken honetakoa. Astean behin bada ere, autonomoki eguneroko bat egiten lehen aldiz dugu erredaktore-talde bat gerraostean. Urrats bat da. Baina, aitor dezagun, urrats apala oso. Gauza bat da astero eguneroko bat egitea, eta oso beste bat astean zazpi eguneroko egitea. Esan nahi dut, egunkari normal bat egitea ez dela zazpi bider gehiago, baizik eta, gutxienez, "70 bider 7". Formula bitxia da benetan "astekari-egunkari" hauena. Geroari begira ezer gutxi erakuts diezaguke esperientzia honek, erredakzio-mailan izan ezik.

Formula honek ezin du bere horretan luzaro iraun, egunkariaren izpirituari eutsiz, eta Kultura eta Turismo Sailaren agindua betez. Kazetaritzaren printzipioetako bat zera da: ez dagoela berri zaharragorik bezperako periodikoa baino. Astean behin agertuz, zer zentzu du juxtu erdal periodikoaren pareko produktu bat egiteak, hurrengo egunean segidarik ez duenean? Euskaraz egoteak —eta horrexek bakarrik— justifikatuko luke egunkari hori. Baina horrek ez lioke sekula erdal egunkariari irakurlerik kenduko. Astean behingo egunerokoaren formula honek esperientzia bezala du zentzua; bai, horrela bakarrik, eta, gainera, motza izateko kondizioarekin.

Formula bitxi honen joerazko arriskua, astekari bihurtzekoa da. Emeki-emeki, eta disimulu gehixeagoz edo gutxiexagoz. Esan dugunagatik, sei eguneko ausentziaren ondoren ez bait du zentzurik asteazkeneko edo osteguneko berri soilei lotzeak, gainerako gertakari guztiak ahaztuz. Joera zein da, orduan? Bada, aginduak dioen "% 75eko aktualitate-informazio" hori gero eta zentzu zabalagoan ulertzea. Aste barruko informazioak oro dira aktualitate. Baina, noski, erizpide honekin astekaria gausatzen da, sekula ez egunkaria.

Aipatzen ari naizen berezko joera honi Eusko Jaurlaritzaren aginduaren beste atal bat cransten badiogu, areagotu egiten da arriskua.

Hona zer adierazi nahi dudan. Enpresa periodistikoan azpiegituraz baliaturik planteatzen du Eusko Jaurlaritzak euskarazko egunkaria. Bide itxia da hori, nere ustetan, enpresa beraren erdal eta euskal egunkariak elkarren lehian merkatu berean jartzea bait da. Bietako bat egindo du enpresak: subproduktu edo testimonial bezala mantendu euskarazkoa, edota erdarazkoaren osagarri egin. Nere eritziz, euskal egunkariak enpresarialki autonomia behar du, garrantia osoz plazaratzeko.

Esandakoaren arabera, eta *Hemen* eta *Eguna* egunerokoan kasu konkretura jaitsiz, zein da hauen joerazko arriskua? Hona labor-labor esanda: arriskurik handiena, hiltzea da, noski. Baina hortik libratuz gero, *Hemen* "Orain" enpresaren arratsaldekaririk litzateke, goizekoa *Egin* delarik. *Eguna*-ren joera gehiago ikusten dut astekariaren bidetik. "Iparragirre" enpresak baduke interesik euskal astekari batean. Gaurko *Eguna* bera erdizka egunkari, erdizka astekari iruditzen zait jadanik.

Baina, kasu, joerazko arriskuez ari naiz, eta ez nahitaez gertatuko denaz, eta gutxiago egungo egoeraz.

Nik orain eta hemen azpimarratu nahi dudana da, agindu eta planteamentu hauekin euskal egunkariaren eguna ez dela biharkoa. Edozein kasutan ere, euskal egunkariak bizitza zaila izango duela sinetsita nago. Berezko traba horiek gainditu ahal ditzan, abantaila guztiak bere alde dituela kaleratu behar du, ez jaio orduko hilda edo baldintzatua.

Beldur naiz proiektu hauek erdi-bidean ez ote diren geratuko, gertakari politikoak eta aginduaren baldintzak direla medio. Bi proiektuok egiaz eta benetan bi euskal egunkari bilaka daitezen, behar-beharrezko dira bi baldintza: erakunde publikoen borondate politiko irmea euskarazko egunkariaren alde, eta enpresa-autonomia edo, berdin dena, euskal egunkaria autonomia osoz planteatzeko ahalmena. Martxan dauden bi proiektuon kasua ote da? Hala bada, zorionak. Eta ez bada, gaitz-erdi.

J. M. T.

Poesiaren definiziorako

Javier Rojo Cobos

Gaur poesia zer den definitzeko garaia iritsi dela uste dut. Horregatik, hurrengo lerroetan horretan saiatuko naiz.

Ekintza honetan kontuan hartzeko lehenengo gauza hauxe da: Poesia ez dela definitzen bere forman, ezta bere esanahian ere, bere izpirituan baizik. Honekin adierazi nahi dut, poesia eta poema (bertsoa) ezin identifika daitezkeela.

Poema elementu tekniko batzuen aplikazioaren ondorioa da. Neurria, erritmoa, puntua eta honelako elementuak erabiltzen dira poema bat egiteko mementuan. Poesian ere honelako elementuak erabili izan dira (baina ez beti, zeren prosaz ere poesia egin baitaiteke), baina hemendik ez da suposatu behar, elementu horiek agertzen diren guztietan, poesiaren aurrean gaudenik.

Poesia, nolabait definitzeko, poeta baten bidez burututako Naturaren autokontenplazioa dela esan daiteke. Definizio hau behar-bada pixka bat ilun gerta daiteke, baina, poesiari buruz poesia bera erabili gabe hitz egitean, honelako gauzak gertatu ohi dira. Dena den, eta bidearen ahultasuna onarturik, gehiago zehazten saiatuko naiz.

Naturak bere esentzia, bere izatea adierazi nahi du, gaur egungo terminologia teknikoa erabiliz, Natura sistema semiotikoa dela esan dezakegu. Guri, haren aurrean gauden gizakioi, sistema hori, esanahi ezku hori jakitera eman nahi zaigu, zeren gizakiok kontzientzia dugun neurrian (suposatzen da) ez bait zara izaki naturalak, beste edozein abere bezala, eta ez gaude Naturan sartuta. Beraz, esan genezake, gizakiok daukagun ahalmen natural bakarra (Mintzamina) eskaintzen dugula adierazpen mistiko horretarako; ezen hizkuntza ez da gizakiena, Naturarena baizik.

Noski, jakitera emate hau poesiarekin burutzen ez bada, ezin egin daiteke osorik. Horregatik, bada, inplizitoki hain erraza dena hain zaila gertatzen da saioaren ahalmen eskasekin adierazten saiatzen denean.

Ekintza nolabait mistiko horretan poeta erabiltzen denez, poeta definitu beharrean gaude.

Hasteko, sentsibilitate handiko gizakia dela esan dezakegu; bestela ezin izango litzuke Naturan gertatzen direnen nondik-norakoak, hari xume horiek, sumatu.

Ahalmen hau berezkoa da. Hau da, batzuek badute, beste batzuek ez; eta ezin egin daiteke ezer lortzeko, ez badaukazu. Hortaz, poeta jaiotzen ez denak ez du inoiz poeta izaterik lortuko. Batzuek inspirazio deitu izan diote honi, gaur egun hitz hau erabiltzeko beldurra badago ere.

Bigarrenik, poetak hizkuntza erabiltzen du bere poesia egiteko, eta honek ere definitzen du poeta. Hizkuntza lortzen den gauza denez, poetak saiatu behar du ahalik eta hoberen lortzen, poesien egitura perfektuena, osoena izateko. Trebetasun hau eskuratzeko bide bat besterik ez dago: saiatzea; eta, saiatuaren saiatuz, hizkuntza maila goren batean menperatzea lortuko du.

Beraz, bi ezaugarri horiek definitzen dute poeta, eta poeta benetakoa izango bada, biak eman behar dira. Bestela, idazle horrek egingo dituen lanak akatsez beterik sortuko dira eta batzuetan teknikaren joko hutsak, inolako sakontasunik gabeak, izango dira. Beste muturrean, lan horiek hipokondriako baten konfesioak izan daitezke. Eta honek, pertsona batzuek bestela pentsatu arren, ez dauka zerikusirik poesiarekin.

Poeta honela definitu ondoren, agiri da horren egoera asko aldatu dela denboran zehar.

Lehen garai batean, zibilizazioa kulturari artean garaitu ez zitzaionean, poeta komunitatean normala zen sentimendu baten adierazlea zen: Naturaren zentzua, gutxi gorabehera, pertsona guztiek zuten komunitate "primitibo"etan. Pertsona berezi batzuk espezializatuta zeuden sentimendu amankomun horiek azaltzen. Pertsona berezi hauek poetak ziren eta ez lirateke apaizetatik bereiziko. Aitzinako garai haietan, poesia eta erlijioa gauza bera ziren.

Baina egoera hau aldatu egin zen, Apoloren ikuspegia jainkoen artean nagusitu zenean eta gero judaismoaren aldaki modernoak kristautasuna mundu guztian zabaldu zuenean.

Hau gertatzean, erlijio naturala desagertu egin zen eta debekuen erlijioak nagusitu ziren. "Lurra"ri lotutako kulturek "herria"ri lotutako zibilizazioei egin zieten leku eta honez gero poetak ez ziren komunitatearen sentimenduen adierazleak izan.

Egoera zaharrak Irlandako "ollave"etan dauzka bere azken aztarnak.

Gaurko egoera guztiz desberdina baldin bada, galde dezakegu ea zer egiten duten poetek orain, ea zein den bere lekua.

Esan behar da, gaurko poetak (benetako poetak, noski) ez direla ezertan aldatu eta lehen bezala Naturaren esanahi ezkutua adierazten saiatzen direla. Baina gizartea aldatu den neurrian; poetak urrunduz joan dira (egia esan, gizartea urrunduz joan da), gure munduan ia-ia zentzurik ez duten gauzak esaten dituztelakoan. Azken finean, Natura bera ia-ia desagertu egin da eta honekin batera, noski, bere zentzua. Horregatik, poetak ez daude normalean ondo kontsideratuak gizartean eta gehienek uste dute Naturari buruzko bitxikeria ulertezinak esaten dituzten gizaki arraroak besterik ez direla.

Poetak, beraz, Naturarekin batera desagertzen ari dira, eta hain kontrako giro honetan irauten duten gutxiak askotan bi irtenbideen aurrean suertatzen dira: edo zoroak izan, Hölderlin bezala, edo madarikatuak, Baudelaire bezala.

Jende askok, goian esandakoaren kontra, esan lezake gaur egun poemak idazten dituen idazle ugari dagoela.

Egia da poemagile moderno hauek benetako poesiaren teknika asko erabiltzen dituztela, baina era berean onartu behar da beraren izpiritua galdu dutela. Honen ordez, kontzepzio estetiko edo ideologiko batzuk jarri dituzte eta ez dira, hortaz, bereizten edo-

zein nobelagile edo kazetarirengandik (eta honek ez du suposatzen profesional hauen kontrako kritikarik, baina aitortu behar dute bere lanak ez direla batere sakratuak; poetarena, ostera, bai, sakratua da). Dena den, gaurko poemagile gehienek honelako gauzak egiten badituzte, ez da beren erruagatik, baizik Natura galdu eta poltsikoko natura enbasatua (parkeak, zoologikoak) asmatu dituen gure gizartearenagatik. Benetako poetek ezin bait dute honelako egoëretan gehiegi iraun, eta ondo dakite hori.

Euskal Herrian (herri primitibo gehienetan bezalaxe) poesiaren ildoak nahikoa berandu arte mantendu da herri-lirikan, gutxi gorabehera Pierres Topet Etxahun, gure Parnasotxoko lehen bertsolari ofiziala, hil zen arte. Eta oso argi zehaztu nahi izan dut herri-lirikarena, zeren literatura zahar guztian liburuak publikatu zituzten poemagileen artean ez bait dago poeta bat ere, eta hauek ziren gizarte ofizialeko ideologiaren adierazle bakarrak.

Horrez gero, Euskal Herrian salbuespen bakan batzuk besterik ez dugu eduki poesian, poemagile gehiegi eduki arren.

J. R. C.

Jaso ditugu

AISE taldea: **Kuku! 1** (Erdi zikloa. B eredua: lurra eta ilargia, ura basoa eta animaliak), Elkar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 188 or.

BALLAZ ZABALZA, J.: **Etxe bat noraezean**, Elkar, Donostia, 1986. 19 × 13 cm. 98 or.

BÖLL, Heinrich: **Pailazo baten aburuak** (euskaratzailea: Jose A. Azpiroz), Elkar, Donostia, 1986. 19 × 12 cm. 300 or.

ELORTZA, Tomas: **Botila baten historia**, Elkar, Donostia, 1986. 20,5 × 15 cm. 64 or.

ELHUYAR Fisika-taldea: **Fisika. U.B.I.**, Elkar/Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 504 or.

ELHUYAR Informatika-taldea: **Basic. Programatzeko ariketak**, Elkar/Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 216 or.

- ELHUYAR kultur taldea: **MS-DOS sistema eragilea**, Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 344 or.
- ELHUYAR Teknologi taldea: **Teknologia elektrikoa. L.H. 1-2 (Irakaskuntza ertainak)**, Elkar/Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 308 or.
- ETXEBERRIA, J./ELHUYAR Matematika-taldea: **Matematika. L.H. 2-3**, Elkar/Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 348 or.
- GOÑI ZABALA, Xanti: **Zuzenbide zibila eta Merkatal zuzenbidea. L.H. 2-3**, Elkar/Elhuyar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 276 or.
- HERGE: **Tintinen abenturak: Adarbakarraren sekretua** (euskaratzailea: Joxemari Azurmendi), Elkar, Donostia, 1986. 29,5 × 22 cm. 62 or.
- LEONARD, M. (testua) / SCHMIDT, K. (marrazkiak): **Untxia eta bere arreba** (euskaratzailea: Joxantonio Ormazabal), Elkar / Timun Mas, Donostia / Barcelona, 1986. 20,5 × 20,5 cm. 18 or.
- UZEI: **Artearen Historia / 2 (UBI)**, Elkar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 280 or.
- UZEI: **Artearen Historia / 3 (UBI)**, Elkar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 330 or.
- UZEI: **Ekonomia / 2 (Unibertsitaterako testuliburua)**, Elkar, Donostia, 1986. 24 × 17 cm. 366 or.
- ZUBELDIA, Iñaki: **Josu Azalaren harribenturak**, Elkar, Donostia, 1986. 19 × 13 cm. 130 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Colección documental del Archivo General del Señorío de Vizcaya (Fuentes documentales medievales del País Vasco**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1986. 23 × 16 cm. 394 or.
- ASKOREN ARTEAN (Zuz.: TXURRUKA, J.M.): **Eboluzioaren inguruan**, Unibertsitate-hedakuntzazko koadernoak. 10), Euskal Herriko Unibertsitatea (Argitarapen zerbitzua), Bilbo, 1986. 28 × 21 cm. 324 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal hizkuntza eta literatura. BBB-1**, Erein, Donostia, 1986. 26 × 19 cm. 312 or.
- X.X.: **Biobonba** (euskaratzailea: Elhuyar), Elhuyar, Donostia, 1986. 21 × 15 cm. 88 or.
- EUSKO JAURLARITZA (ESTADÍSTIKA-ZUZENDARITZA): **Biztanleria eta etxebizitzak. Behin-behineko emaitzak. Euskadiko K.A. 1986ko errolda. Población y vivienda. Resultados provisionales. C.A. de Euskadi. Padrón 1986**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1986. 25,5 × 21 cm. 60 or.

JAKIN

HAUR eta GAZTEEN LITERATURA

PNV / EA
Negoziazioa
M. Unamuno
Balendin Enbeita
Euskal prentsa berria
Mendebaldea faxismorantz
Portugesa, Katalana, Valentziera

Urria
Abendua

41

1986



JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia

Tel.: (943) 27 17 13